



"LAN, BIZITZA ETA PENTSIO DUINEN ALDE"


Sindikatu nagusiak eta hainbat kolektibo urtarrilaren 30eko greba orokorrerako gertu daude; alderdi gehienak eta patronala aurka agertu dira / 2

Urtarrilaren 30eko greba babesten duten hainbat kolektibotako debagoiendarrak eguaztenean Arrasaten.

XABIER URZELAI

Antoñako hezegunea berreskuratu dute Arrasaten, 220 arbola landatu eta zingira edo putzua sortuta / 12

Elkartasuna, euskara eta auzo-lana ardatz dituen Bizipoza ekimena gaur Seminarixoan / 40



Goiena telebista kanalez aldatuko da eta antenak sintonizatu egin beharko dira / 4

Aramaion ospatutako Bertso Egunak "oso zapore ona" utzi die herriko bertsolari eta bertsozaleei / 16

SINADURAK

	ANAJE NARBAIZA / 8		ASIER ELORZA / 26
	IDOIA SANCHEZ / 18		AITZOL ITURBE / 31
			AGURNE BARRUSO / 48



VW Tiguan

Udalaitz

Gipuzkoas etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto



Greba orokorrerako deialdiarekin bat egin duten eta erreportajeko protagonista diren hainbat debagoiendar, Arrasaten. X.U.

Planto, bizitza duinaren aldeko aldarria egiteko

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak greba orokorra deitu du urtarrilaren 30erako eta hainbat ekintza eta mobilizazio egin dituzte eta egingo dituzte bailaran horren harira; deialdiarekin bat egin duten profil askotariko herritarrak batu ditu GOIENAK

Eneko Azurmendi ARRASATE

Astebete falta da greba orokorrerako, baina dagoeneko hasiak dituzte haren bueltako ekintza eta mobilizazioak Debagoiengan. Adibidez, Bergaran, *Comeme la Flor* liburuaren aurkezpena egin zuten kartzela zaharrean, eta baita pentsio publikoen aldeko hitzaldia ere, Seminarixoan. Oñatin, bestalde, zaintza izan dute hizpide asteen Antixena gaztetxean egin duten solasaldian.

Bihar, zapatua, bestalde, eskualde mailako ekitaldia egingo dute, Elorregin, 12:00etan, eta herri ezberdinetatik martxak antolatu dituzte bertaratzeko. Arrasaten, esaterako, 11:00etarako egin dute hitzordua, Arrue-

na parkean, eta "kapitalismoaren errege diren horiek salatze" ekimena egin ostean, Elorregira abiatuko dira, autoz.

Greba deialdiaren harira, harekin bat egingo duten profil askotariko herritarren testigantzak jaso ditu GOIENAK.

Arantxa Gonzalez: "Leku batetik bestera mugitzen ibili behar dut jardun duina izateko"

Garbitzailea da bergararra, eta salatzen du "behar den moduko jarduna" edukitzeko, "hala moduzkoa" dena, gainera, leku batetik bestera mugitzen ibili behar izaten duela egunero. "07:00etan Arrasaten hasten dut eguna, ordu eta erdi lan eginez;

eta gero, Bergaran bi lekutan, anbulatorioan eta Mariaren Lagundiko haurtzaindegian".

Hori dela eta, lan-baldintzak egonkorragoak izan daitezela gura dugu, eta soldatak bidezkoagoak. "Oso gaizki baloratuta gaude emakumeok. Lanpostu bera izan arren, oraindik ere gizonezkoek soldata altuagoak dituzte emakumeok baino, eta horri aurre egin behar diogu, ezin dugu horrela jarraitu".

Juanito Saizar: "Esperientziak erakutsi digu ereiten ez bada nekez jasotzen dela uzta"

Pentsiodun aramaioarrak bat egiten du deialdiarekin: "Gizarteak daraman bidea ikusita,

derrigorrezkoa da aldaketa bat gertatzea". Izan ere, gizartea okerrera doala dio. "Sozialki eskubideak galtzen goaz, erosteko ahalmena ere bai, patronala irabazten ari da, aberastasunaren banaketa ez da ikusten, kontrakoa, aberastasuna pilatzen ari da, eta abar. Beraz, horri buelta emateko iniziatiba guztien alde nago, eta baita greba deialdi honen alde ere, noski; are gehiago, pentsioduna izanda, gure aldarrikapenak sartzen direlako".

Lan, pentsio eta bizitza duinak aldarrikatu ditu. "Zer gutxiago, gizarte justu baten esperantzan baldin bagabiltza? Injustizia hutsa da batzuk hainbesterekin egotea eta beste batzuk hain gutxiarekin. Beraz, erein beharra dugu, saiatu behar dugu, bizitza justu bat lortze aldera. Bide horretan ematen ditugun pauso guztiak onak izango dira guztiontzat, ikuspegi sozialetik".

Arantzazu Egiguren: "Guztioi eragiten digu prekarietateak"

Industria sektoreko produkzio langilea da bergararra, LABeko sindikalista. "Industria sektorea ez da prekarioena, baina den-

borarekin lan-baldintzak geroz eta okerrago bilakatzen ari dira. Azken urteetan baldintzak okertzen doaz eta prekarietate asko dago hainbat azpikontratatan eta beste hainbat eremutan. Nire kasuan, esango nuke nahiko lan-baldintza onak ditudala, ingurukoekin alderatuz gero. Baina prekarietateak, era batera edo bestera, guztioi eragiten digu".

Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunera bidean, "beharrezko" deritza sektore horietan "neurri politiko eta enpresarial" batzuk hartzeari, "gizarte segurantzaren aldetik edota kotizazioen aldetik, horrela bakarrik iritsiko garelako benetako parekidetasunera".

Deialdi honek langile guztien erantzuna behar duela dio. "Egin dezagun guztiok greba!".

Agurtzane Ugarte: "Sektore ahulena beti da emakumea"

Aholkularitzan dihardu Oñatiko Sare Feministako kideak, eta greba deialdiarekin bat egitea "ezinbesteko" ikusten du. "Izan ere, aldarrikapen horiek beteko balira, guztion bizitzak asko

Grebaren bueltako ekintzak

Antzuola

- **Urtarrilak 29:** Iluntzean, lapiko jotzea etxeetako balkoietan.
- **Urtarrilak 30:** Goizean, pikete informatiboak; 10:00etan, kalejira; 12:00etan, elkarretaratzea plazan; 16:00etan, batzarra; 18:00etan, manifestazioa, plazan hasita.

Aretxabaleta

- **Urtarrilak 24:** Elkartasun argazkia, 10:30ean, plazan.
- **Urtarrilak 30:** 10:30ean, bizikleta bira herrian zehar: 12:00etan, mobilizazioa plazan. 16:30ean, Arrasateko manifestaziora joateko elkartuko dira, plazan.

Arrasate

- **Urtarrilak 24:** 19:30ean plazan hasita kalejira informatiboak.
- **Urtarrilak 30:** Mobilizazioak 12:00etan eta 18:00etan.

Bergara

- **Urtarrilak 27:** 18:00etan, auto karabana saltoki handietara.
- **Urtarrilak 29:** 22:00etan, lapiko jotzea auzo eta herrigunean.
- **Urtarrilak 30:** Mobilizazioak 12:00etan eta 18:00etan.

Eskoriatza

- **Urtarrilak 30:** 09:30ean, gosari kolektiboak; 18:00etan, kontzentrazioa herriko plazan (ikus 6. eta 21.orriak).

Oñati

- **Urtarrilak 24:** 18:00etan, dokumentala eta solasaldia. *Hokoke*. Kultura etxean. Itsaso Torregrosa.
- **Urtarrilak 27:** 12:00etan, pentsiodunen manifestazioa, plazan; 18:00etan, *Pentsioen borroka* solasaldia, Eltzian. Hizlariak Ainhoa Etxaide eta Joseba Villarreal izango dira.
- **Urtarrilak 30:** Mobilizazioak 12:00etan eta 18:00etan.

hobetuko lirateke". Era berean, uste du ez dela eskubide indibidualak eskatzeko momentua bakarrik, "baizik eta eskubide kolektiboak ere bai".

Adierazi du zaintza sektorean, adibidez, emakumeek prekaritatearekin pairatzen dutela eta kontziliazioarena "broma txar bat" dela. "Zaintza lanak aurrera eramateko lanari uko egin behar izaten diogu emakumeok. Beraz, Martxoaren 8aren bueltan hasitako bide hori jarraitzeko momentuan gaude. Triste da, baina borrokan jarraitu beharra daukagu. Emakumeok geldituko bagina, mundua gelditu egingo litzateke. Imajinatu zenbat emakumeren gain dauden zaintza lanak, eta hori ze eroso den estatuentzat eta gizartearentzat!".

Bizitza duina aldarrikatzeko borrokan dabilela aitortu du. "Emakumeen, pentsiodunen, gazteen eta guztion baldintzak duinak izatea gura dugu; bizitza bera dago jokoan. Patriarkala eta neoliberala den eredutik irteten behar dugu, bizitzak erdiguinean jarritz, planetaren iraunkortasuna ere bermatu ahal izateko", azpimarratu du.

Guztiek ez dute bat egin deialdiarekin

Hainbat sindikatu eta eragile batzen dituen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak egin du greba orokorrerako deialdia. Hori horrela, LAB, ELA, Steilas eta ESK dira, besteak beste, deialdiarekin bat egin duten sindikatuak. Kartak abiatutako eztabaida prozesuan parte hartu dute, bestalde, AEK, Askapena, Duintasuna, Ikasle Abertzaleak, Sexu Askapenerako Gazte Mugimendua eta Sos Arrazakeria eragileek.

Pentsiodunen mugimenduari dagokionez, ez dago iritzi bateraturik. Duintasunak, esaterako, bat egin du deialdiarekin, baina Agijupensek ez du talde moduan iritzirik kaleratu, eta taldeko kide direnei "libreki" erabakitzeko bide eman die.

UGT eta CCOO, kontra

Badira grebari uko egingo dioten beste sindikatu batzuk ere. UGTk eta CCOOk uste dute ez dela momentu egokian iristen

greba orokorrerako deialdi hau, argudiatuz Espainian "sentsibilitate ezberdina" daukan Gobernu bat jarri berri dela martxan eta hari denbora eman behar zaiola gauzak nola egiten dituen ikusteko. Era berean, Eusko Jaurlaritzari "jazarpena" egiteko interesa dagoela gaineratu dute.

EH Bilduk bakarrik babestu du

Alderdi politikoei dagokienez, EH Bildu ez beste indar guztiak greba orokorraren kontra azaldu dira. Izan ere, hauteskunde urtean egiteko asmoa intentzionatua dela uste dute, eta, hori dela eta, mobilizazioak izaera "politikoa" duela gaineratu.

Eusko Legebiltzarreko EAJren bozeramaile Joseba Egibarrek ELAri eta LABi egotzi die

ALDERDI POLITIKO GEHIENEN GREBA KRITIKATU DUTE, BAITA PATRONALAK ETA HAINBAT SINDIKATUK ERE

"hauteskunde urtea girotu" gura izatea deialdi honekin, eta "desproporzionatua" dela adierazi du.

PSEko Gloria Sanchez legebiltzarkideak ere bat egiten du Egibarrek esandakoarekin; azaldu du Euskadiko Gobernuari eginiko "pultsu bat" dela. "Ez dugu ulertzen nola ez duten atzera egin Espainian Gobernu progresista bat eratu ostean".

Elkarrekin Podemoseko Edurne Garciak nabarmendu du greba honek aldarrikapen laboral izaera galdu duela eta "soziala eta politikoa" dela.

Alderdi popularreko Carmelo Barriok, aldiz, dio "etsaitasun eremu bat" bilatzen dutela ELAK eta LABek eta gaineratu du greba honek ez duela "ezer" eskaintzen.

Confebask ere, aurka

Eduardo Zubiaurre presidenteak dio greba orokorra "ulertezina eta arduragabea" dela, "ikusita Euskadin bizi dugun egoera".

Aitor Kortabarria: "Okerren dagoen jende horrena da beti gure aldarrikapena ere"

Lubaki Langileen Elkartasun Sareko kide da gazte bergararra. Aldarrikapenak "zilegi eta beharrezkoak" direla iritzita egingo dute bat deialdiarekin: "Lanerreforma deuseztatzea, gutxieneko pentsioak igotzea, Mozal Legearen aurka egitea edota soldata arrakala amaitzea".

Langileen batasuna aldarrikatu gura dute. "Langileok gai izan behar dugu gure diferentziak alde batera utzi eta behar gehien dituzten langileen interesen alde elkarrekin lan egiteko".

Modu berean, gogoan eduki gura dituzte "euren lan eta baldintza sozial txarrengatik greba egin ezingo duten horiek. Arduratuta gaude jende batek ezin izango duelako greba honetan parte hartu. Garrantzitsua da greba orokor hau, baina, hortik harago, langileei antolatzen has-teko dei egiten diegu, langile-riaren interesak defendatzeko. Sistema hau bukatu behar da, horrek emango digulako benetan bizitza duina, baldintza hobekin", nabarmendu du.

AUDARREKONTU -TRAKEIAK 2020

Sartu www.gipuzkoa.eus/partaidetza webgunean eta aukeratu Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko proiekturik interesgarrienak.

Proiektuen hautaketa: 2020ko urtarrilaren 21etik otsailaren 7ra.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Maialen Santos DEBAGOIENA

Bigarren Dibidendu Digitala edo 700 MHz banda libre uztea onartu zuen ekainean Espainiako Gobernuak, 5G teknologiarik espazioa uzteko eta banden eta frekuentzia erabilera eraginkorragoa izateko helburuarekin. Europar Batasunak onartutako proiektu bat da, eta, era berean, ezinbesteko prozesu bat 5G teknologia garatu ahal izateko.

Errege dekretuak zehazten duenez, Bigarren Dibidendu Digitala libre geratu beharko da 2020ko ekainaren 30a baino lehen. Hori dela eta, zenbait telebista katek frekuentziak aldatu beharko dituzte ordurako; eta aldaketa pairatuko dutenetako bat da Goiena telebista. Modu horretan, –beste batzuen artean– Goiena telebista ikusten jarraitu ahal izateko egokitzapen batzuk egin beharko dira zenbait etxetan. Dena den, aldaketak ez du berdin eragingo etxe guztietan; izan ere, telebista seinalea jasotzeko moduari erreparatu beharko zaio etxean zein lan egin behar diren jakiteko.

Soilik LTDan eragina

Lurreko Telebista Digitalaren –gazteleraz, TDT– seinalea jasotzen duten etxeetan izango du eragina frekuentzia aldaketak. Familia bakarrek etxeetan bizi direnek izango dute eraginik txikiena; izan ere, telebista berriz sintonizatuta nahikoa izango da Goiena telebista ikusten jarraitu ahal izateko. Jabeen erkidegoetan, berriz, teilatuko antena kolektiboetan egin beharko dituzte aldaketak frekuentzia berrietara egokitzeko. Antena-jartzaileek egin beharko dituzte egokitzapen horiek, eta horretarako hitzordua eskatu beharko da. Behin antena-jartzaileak lanak amaituta, norberak etxeko telebista berriz sintonizatu beharko du telebista kateak berriro topatzeko.

Telebista kable bidez ikusten dutenek; hau da, Euskaltel bidez, ez dute inolako egokitzapenik egin beharrik izango Goiena telebista ikusten jarraitzeko.

943 25 05 05
TELEFONORA DEITUTA
ARGITU AHAL IZANGO
DITUZTE ZALANTZAK
HERRITAR GUZTIEK



Erabiltzaile bat Goiena telebista sintonizatzen. GOIENA

Goiena telebista kanalez aldatuko da otsailean

Zenbait telebista kate frekuentziaz aldatuko dira datozen asteetan, 5G teknologia garatu ahal izateko. Goiena telebistari ere eragingo dio aldaketa honek; telebista antena bidez jasotzen duten zenbait etxetan egokitzapenak egin beharko dira

Antena-jartzaileek egingo dituzten lanak finantzatu ahal izateko diru-laguntzak eskatzeko aukera badago. Komunitateko presidentearen lana izango da horiek eskatzea, baina erregistratutako antena-jartzaileek egindako lanak bakarrik lagunduko dira. Laguntzetarako informazioa www.televisiondigital.gob.es webgunean dago.

Aldaketa, otsailaren 12an

Datozen asteetan hasiko dira telebista kateen frekuentziak aldatzen, eta Goiena telebistak otsailaren 12an egingo du frekuentzia aldaketa –ETBrekin batera–. Beraz, egun horretatik aurrera hasi ahalko dira antena-jartzaileak lanean.

Goienak edozein zalantza argitzeko herritar guztien eskura jarriko du honako telefono zenbaki hau: 943 25 05 05.

Eskoriatzan eraginik ez

Eskoriatzako herriguneak seinalea kable bidez hedatzeko sare propioa dauka –Elorretako auzoan izan ezik–. Horregatik, sare nagusi horretako hornitzailea arduratuko da aldaketak egiteaz.

Debagoieneko antena-jartzaileak

Debagoienean egokitzapen lanak egiten dituzten erregistratutako antena-jartzaileak:

ARETXABALETA

- Aranzabal elektrizitatea: 943 79 68 21
- Aretxargi: 943 53 26 28

ARRASATE

- Musakola elektrizitatea: 943793922 / 607225428
- Elkoro: 943794599

BERGARA

- Elektrolan instalakuntzak: 943 76 17 65
- Matxiategi: 9437 61 9 94.
- Mercurio elektrizitatea: 943 76 11 01

DURANGO*

- Vi-car elektronika: 670 08 40 81

ESKORIATZA

- Rele elektrizitatea: 615 75 91 33

OÑATI

- Arregi: 943 78 02 63
- Argi elektrizitatea: 943 71 63 54 / 600 58 45 60

SORALUZE*

- Javier Mestre: 943753098 / 665 72 46 32

* Oharra: Antena-jartzaile hauek Debagoienean ere eskaintzen dute zerbitzua.

Sortuko kideen atxiloketak gaitzesteko, elkarretaratzeak

Lau kide atxilotu zituzten eguaztenean, euskal presoek harrera ekitaldiak antolatzea leporatuta

M.S. DEBAGOIENA

Eguaztenean atxilotu zituzten Guardia Zibilak Sortuko kide Antton Lopez Ruiz, Oihana San Vicente, Haimar Altuna eta Oihana Garmendia, eta Guardia Zibilaren aurrean deklaratu ostean aske geratu ziren laurak, egun berean. Ikerketak zabalik jarraitzen du oraindik, halere.

Espainiako Auzitegi Nazionalak agindutako operazioa izan zen, eta, Barne Ministerioak komunikatu baten bidez jakinarazi zuenez, "terrorismoa gortzea" eta "biktimen umiliazioa eta mespretxua" egozten dizkiete laurak. 2016ko abenduaren eta 2019ko urriaren artean Euskal presoek eginiko 95 harrera ekitaldi "antolatzea eta koordinatzea" leporatzen diete, zehazki.

Sortuko kideen atxiloketak gaitzesteko, elkarretaratzeak antolatu dituzte egunotan Debagoienean. Arrasateko Sortuk deituta eguaztenean egin zuten elkarretaratzea, *Bakea eta demokrazia* lelopean. Bergaran ere Sortuk deituta bildu ziren atzo, eguna; norbanakoak, sindikatuak, eragileak eta alderdiak elkartu ziren bertan. Antzuolan, bestalde, gaur egingo dute elkarretaratzea; herriko plazan izango da hori, 19:00etan.

Domekan egingo dio aitortza Enbak Nikolas Segurolari

Nikolas Segurora fraide frantziskotarrak jasoko du *Baserritarron laguna* saria, nekazarien sindikatuaren eskutik. Artzain-tzaren alde egindako lanagatik emango diote; ogibidea eta bizimodu duina aldarrikatu eta lantzeagatik. Urtarrilaren 26an, domekan, Urnietako Salestarren Ikastetxean egingo den Enbaren batzar orokorrean jasoko du.

Ametsak Betetzeko Danbelako!

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

URTARRILAREN 27tik
OTSAILAREN 7ra



HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

ATE IREKIAK



UMEZAINZA ☉ urtarrilak 28 (asteartea) 17:30 Arrasate



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Arizmendi Ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzuak
(3-5 URTE)

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

ATE IREKIAK LH 1



SANTA TERESA urtarrilak 27 (astelehena) 09:15-11:00 / 14:45-16:30 Arrasate
ALMEN urtarrilak 28 (asteartea) 09:15-11:00 / 14:15-16:00 Eskoriatza
ARIMAZUBI urtarrilak 29 (asteazkena) 09:15-11:00 / 14:45-16:30 Arrasate
GAZTELUONDO otsailak 5 (asteazkena) 09:15-11:00 / 14:45-16:30 Arrasate



Gainontzeko kurtsoetarako jarri harremanetan bilera eskatzeko:
S. Teresa (Iban Roa: iroa@arizmendi.eus), Almen (Aritz Oianguren: aroianguren@arizmendi.eus),
Arimazubi (Dorleta Arana: daranao@arizmendi.eus),
Gazteluondo (Miren Uribealgo: muribesalgo@arizmendi.eus).

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE



BILERA INFORMATIBOAK DBH 1

SANTA TERESA urtarrilak 28 (asteartea) 17:30 Arrasate
ALMEN urtarrilak 29 (asteazkena) 17:30 Eskoriatza
GAZTELUONDO otsailak 4 (asteartea) 17:30 **GAZTELUPEN** ☉ Arrasate
ARIMAZUBI otsailak 5 (asteazkena) 17:30 Arrasate



DBH 2-3-4 kurtsoetarako jarri harremanetan bilera eskatzeko:
Almen (Unai Busturia: ubusturia@arizmendi.eus),
Gaztelupe (Elena Errasti: eerrasti@arizmendi.eus).



Eskerrik asko Goiena Komunikazio Taldeari

LEIRE URRETZO

ARETXABALETA LANBIDE ESKOLAKO
AUTOMOZIO MINTEGIA
ARETXABALETA

Pasa den abenduaren 17an, Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeetan Automozio arloan ikasten ari diren ikasle emakumeen lehen topaketa ospatu genuen Aretxabaleta Lanbide Eskolan.

Automozio arloan emakumezkoen presentzia ikustarazi eta indartzeko beharretik sortu zen ekimen hau.

Ekimenean parte hartu zuten ikastetxeen, enpresen, tailerren eta jo genituen ate guztietatik jaso genuen erantzuna eskertu nahiko genuke, eta, batez ere, Goienarena, hasieratik ekintzaren difusioan parte hartu duzuelako eta gure hasierako helburua lortzeko ezinbestekoak izan zaituztegulako.

'Humanity' Aralucen?

JOXEMI CAMPILLO

KOOPERATIBISTA OHIA
ARAMAIO

Azken egunotan, irudi negargarriak ikusi ditugu Igorre aldean. Mondragon taldeko kooperatiba bat, Batz, poliziaren eta eskirolen laguntzarekin Araluce enpresan sartu da materiala lapurtzera. 141 familiaren etorkizuna jokoan dago, eta kooperatibaren erantzuna polizia bidaltzea izan da. Berriro ere, agerian geratu da langile ez-bazkideen eskubide gabezia euskal kooperatibetan.

Eredugarriak omen diren Mondragon taldeko kooperatibek behin eta berriro erakutsi digute beraien interes bakarra ekonomikoa dela. Kapitalismoaren aurpegi atsegina erakusten digute, eta, aldi berean, lan sindikalarren faltagatik langileak eskubiderik gabeko zenbaki huts bihurtu dira. Kuriosoa da: etika eta morala askotan

aipatu arren, holakorik ez daukatela erakusten dute egunerokoan. Mondragon taldeko laugarren printzipio kooperatiboan, adibidez, kapitalaren izaera instrumentala aldarrikatzen dute. Bitartean, kooperatibista gehienen pentsioak kudeatzen dituen Lagun Aro guztien aurrezkiekin espekulatzen ibiltzen da. Hipokrisia ederra!

Mondragon taldeko kooperatibak, elkarte anonimo bilakatzeko bidean, beraien benetako aurpegia erakusten dabilta azken urteotan. Adibide asko dauzkagu. Estatu espainoleko pertsonaia ilun eta ustelenetakoaren gonbidapena Arrasate bisitatzeko punturik gorenetarikoa izan da ibilbide horretan. Euskal Herriak ez ditu holako kooperatibak merezi eta nahi.

Erresistentzia, duintasuna

JUAN RAMON GARAI

PENTSIODUNA
ARRASATE

Betidanik, erresistentziak lotura zuzena izan du duintasunarekin; 30eko grebak ere bai.

Greba orokor bat egiteko mila arrazoi daude, eta Estatuan Gobernu berria izatea inolaz ezin da izan aitzakia eskirol bihurtzeko. Orain arte oso ondo ikusi da gobernuek eta instituzioek, beti, kaleko presioak behartuta ekarri dutela egon diren gehiengo herritarrentzako onurak, eta hemendik aurrera berdina izan behar da.

Garaia da azken urteetan kendu diguten guztia berreskuratzeke. Garaia da lan, pentsio eta bizitza duinak bermatzeko... Badugu hamaika arrazoi urtarriaren 30ean kalera ateratzeko. Bestelako eredu sozialen eta ekonomikoen alde, tokiko merkataritzen alde, kontsumo eredu jasangarriaren alde, eskubide sozial eta laboralen errespetuan eta justizia sozialean oinarritutako den ereduaren alde. Izan langile edo langabe, izan pentsiodun,

etxeko langile, dendari nahiz tabernari, indarrak batu eta mobilizatzeraz goaz... Aberastasuna gero eta esku gutxiagotan dagoela ikusten dugulako.

Iraultzaile baten bertuterik ederrena edonork edonon jasandako edozein zapalkuntza bere sentitzea delako, ez baduzu greba egin nahi zure eskubidea da, baina ezkerrekoa baldin bazara, sekula ezin zara izan eskirol, eta horixe ari zara bihurtzen grebaren aurka publikoki agertzen zarenean; joko zikina egiten, gainera, eskumari.

Zailtasunak zailtasun, oztopoak oztopo, gai izan behar dugu gure aurrekoek borrokarekin lortutakoak berriz berreskuratzeke. Emantzipazioaren alde borrokatu gaitezen.

U30: greba orokorraren irakaspenak Eskoriatzan

IÑAKI LOITI

ESKORIATZAKO GREBA BATZORDEA
ESKORIATZA

Abenduan Eskoriatzan ere U30 greba batzordea osatu dugu; sindikalistak, gazteak, feministak eta pentsiodunak bildu gara eta gure ekarpen xumea egin dugu.

Ekinbide honetan hainbat irakaspen agertu zaizkigu etorkizunera begira eta balioan jarri nahi duguna da elkartzen gaituena: Eskoriatzan gehiengo sozial bat badagoela etorkizun eta bizitza duina nahi duena eta horren alde ekiteko prest dagoena.

Gure lau irakaspen baliotsuenak izan dira:

1) Euskal Herriko beste eskualdeekin alderatuz egoera sozioekonomiko hobeagoa bizi arren, oso inportantea izango da gazteentzako etorkizun duin baten alde borrokatzea. Enpleguan eta etxebizitzan gero eta egoera larriagoak bizitzen ari direlako, zenbaitek herritik kanpo alde egin behar dute; beste hainbatek ezin dute emantzipatu eta beste batzuek lan prekarioak hartu behar dituzte.

2) Eskoriatzako emakumeen ahalduntze prozesua azken urteetan nabarmena izaten ari da, baina, oraindik, bidea egitea geratzen zaigu: bai zaintza lanetan, bai etxeko lanetan. Enpleguan ere emakumeen arrakala agerian geratu zaigu: Gipuzkoako erresidentzietan bizitzen den borrokarekin, baita alargunen pentsiodunen egoera jasanezinagatik.

3) Prekariatatea badoa gure herrian instalatzen; batez ere, zerbitzuetan eta zaintzan. Gero eta joera handiagoa dago azpikontraten bidez lan hauek betetzeko, langileen lan baldintzak behin eta berriro urratuz.

4) Herriko merkatarien egoera ez da ona, eta oso inportantea izango da komertzio txikiaren defentsa eta bertan, herrian bertan, kontsumitzearen alde egitea. Autonomoen egoera ona ez den bezalaxe.

Beraz, ez gara uharte bat. Azken urteko egoera ekonomikoaren bilakaera kezkagarria izan da jende gehienarentzat; gure egoera pertsonalak eta eskubide sozialek, dudarik gabe, okerrera egin dute. Horregatik, bada momentua gure bizitzarako beharrezkoak diren hobekuntzen alde egiteko, beste etorkizun bat behar eta merezi dugulako. Eskoriatza herria batzen duena etorkizun eta bizitza duinaren alde egitea izango da. Horregatik, eskubide sozialen kartaren aldarrikapen taularekin bat egin dugu, eta greba orokorraren alde atera gara.

Bizi baldintza duinak behar ditugulako, urtarriaren 30ean grebara

BEÑARDO KORTABARRIA

DEBAGOIENEN EH BILDUREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Arrazoiak badaude, eta, horregatik, urtarriaren 30erako Eskubide Sozialen Kartak deitutako grebarekin bat egingo dugu EH Bilduko kideok. Prekariatatearen aurrean, bizi-baldintza duinak

aldarrikatzen ditugu. Kalera aterako gara erabaki politikoen erdigunean bizitza jartzeko eta hauek ez egoteko elite ekonomikoen interesen menpe. Kalean izango gara herri duin batean bizitza duin bat aldarrikatzeko. Azken urteetan hartu diren erabaki politiko zein instituzionalek herritarren bizi baldintzei eragiten diete zuzenean. Prekariatatea da milaka herritarren bizia baldintzatzen duen elementu nagusia. Eta hori gertatzen da elite ekonomikoen interesak herritarren interesei gailentzen zaizkielako. Ereduak asko dira; adibidez, lan erreforma edo pentsioak ez gaurkotzea, eta langileen bizitza gero eta prekarioagoa da, haien baldintza ekonomikoei, lan baldintzei, pertsonen zaintzari eta osasunari eraginez.

Izan ere, Jaurilaritzaren arabera, pobrezia %46 igo da Euskal Autonomia Erkidegoan azkeneko urteetan eta 200.000 pertsona pobrezia arriskuan daude; pentsiodunen erosteko ahalmenak %6 egin du behera eta sinatzen diren kontratuen %92 behin-behinekoak dira, besteak beste.

Debagoienean ere, egoera ez da oso bestelakoa. Urtarrileko langabezia-datuak batez beste %8tik gorako datua eman du eskualdean. Eta eguneroko ekonomiaaren egoerak okertzera egin du: dendak ixten ari dira, pobrezia-egoerak areagotzen, lan-baldintzak eskasten –urtea hasi zenetik 8 langile hil dira lan-istripuz Euskal Herrian–, gazteak lan-merkatura sartu ezinda dabilta, pentsiodunak hil bukaerara iritsi ezinda...

Agerikoa da badaudela arrazoiak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitutako greba orokorrean parte hartzeko, eta EH Bilduko kideok ere bertan izango gara. Unea heldu da prekariatatean oinarritutako sistema bati erantzuteko eta, bizi-baldintzak erdigunean jarritz, haien herritarrak zaintzen eta babesten dituen herri baten alde egiteko.

DEBAGOIENeko EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"Guztion eskola, Guztion artean"

goieskola

debagoieneko euskal
eskola publikoa



MATRIKULAZIOA ZABALIK



GOIESKOLA@GMAIL.COM

605773992



URTARRILAREN 27tik OTSAILAREN 7ra

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA
INFORMAZIO BILERAK ETA ATEAK ZABALIK

baikara

Gipuzkoako GIZTASUN ERAKUNDA

ARAMAIO - San Martin Eskola
ANGIOZAR - Herri Eskola
ELGETA - Herri Eskola
ANTZUOLA - Herri Eskola

INFORMAZIO ZUZENA
ESKOLAN BERTAN

ARRASATE
Arrasate Herri Eskola

Musakolan Urtarrilak 28 11:00

Bedoñaben Urtarrilak 29 11:00

Erguinen Urtarrilak 29 14:30

Institutuan Urtarrilak 28 18:00

Aramaion Urtarrilak 29 18:00

BERGARA
San Martin Agirre Eskola
Ipintza Institutua

Urtarrilak 29,30 eta 31
Ordutegi irekia

Urtarrilak 29 18:00

Arrasate Institutua

ESKORIATZA
Luis Ezeiza Eskola

Urtarrilak 29 17:30

URGAIN OÑATI

Txiki Txokon Urtarrilak 25 11:00-13:00

Errekalden Urtarrilak 25 17:00-19:00

Institutuan Urtarrilak 28 18:00

ARETXABALETA
Kurtzebarri Eskola
Kurtzebarri Institutua

Urtarrilak 23 18:00

Urtarrilak 29 18:00

HHI-EPA ARRASATE
HHI-EPA BERGARA

MATRIKULA ZABALIK



ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Dakartenetik edan

Astean lanean nenbilela, lankide batek eskura jarri najostanan *Oriente frente Occidente* liburua. Yang Liu egilearena don; bera izatez pekindarra don, 13 urterekin Alemaniara joan zonan bere familiarekin eta 13 urte geroago New Yorkera; orduan bururatu jakonan irudi-liburu hau egitea. Liburua ireki nebanean, sorpresa handia hartu najonan; izan ere, irudien bidez azaltzen jittun europarren eta txinatarren arteko ezberdintasunak gai askoren inguruan: jatorduak, kontaktuak, dirua, eguzkia, mugikortasuna.... Europarrenak urdinaren gainean eta ezker aldean jarenean azalduta eta txinatarrenak, berriz, gorri eta eskuinaldean. Hitzekin ezingo zittunan horren garbi azaldu kultura bien artean dauden ezberdintasunak. Baina modu berean erakutsi jostan badirela kulturen artean ikasteko aukera ezin hobeak; horretarako, arreta piztu dosten bi adibide: lehenengoa, txinatarrek

EUOPARROK ETORRI BERRIARI EZ JOTZANAU LEKURIK EGITEN GURE GIZARTEAN


berrikuntza
pertsonek
bakoitzaren esku
dagoela sentitzen
jone eta
europarrok, berriz,
berrikuntza
urrutiago sentitzen
jonau, beste

nor baiten esku egongo balitzon bezala. Eta bigarrena, txinatarrek etorri berria txertatu egiten jone taldean eta europarrek, berriz, taldetik kanpora lagatzen jonau, ez jotzanau lekuri egiten gure gizartean.

Egun mundua horren bizkor doianian, beharko hurbildu txinatarrek daben pertzepzioa eta gure egin gutariko bakoitzean dagoela berrikuntza eta ez dela izen handiko zientifikoa izan behar berrikuntzari ekiteko. Zer esanik ez etorri berriaren inguruan dogun portaeraz; gure gurasoak bizitzan behin joan zittunan Madrilera, kristoren bidaia balitz bezala. Egun osteraterrak, lapurretak, eguraldiak edo bestelako arazoak eraginda milaka joan-etorri jarene eta mundua txiki-txikia geratu jakun. Pentsa honek zelako aukera ematen doskun hurbiltzen diren kulturek dakartenik edateko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Mendiak, ura eta klima aldaketa

ASIER HILARIO

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Azken asteetan, batetik eta bestetik iritsi zaizkigu berriak. Abendu hasieran, Madrilgo COP25 goi-bileran milaka aditu, kazetari, aktibista eta agintari bildu ziren bitartean, abenduaren 11n, Nazio Batuetako Mendien Nazioarteko Eguna ospatu zen, *Mountains matter for youth* lelopean. Ez da kasualitatea. Izan ere, klima aldaketak mendietan eragiten du indar handiagoarekin..

Mendietako elur eta glaziarrek milioika pertsonari ematen diete ur zerbitzua

munduan zehar. Abenduan *Nature* aldizkarian argitaratu eman zen ikerketa zientifikoa batek dio Parisko akordioan onargarri bezala estimatu zen 1,5 graduko tenperatura igoera mantentzen badugu, mendietako glaziarren izotzaren 2/3 mantenduko litzatekeela, baina 2 graduko tenperatura igoerarekin, Himalaiakoak izan ezik, mendietako glaziar gehienak denbora gutxian desagertu egingo liratekeela.

Gure lurraldean ez dugu glaziarrik, baina euria egiten duenean gure mendietako kareharriek euri-ur hori lur-azpian gordetzen dute eta urte guztian zehar iturburuetatik milaka eta

milaka litro askatzen dituzte poliki-poliki. Esponja funtzio honi esker, gure etxeetako iturriek ura ematen digute udan, eta garrantzitsuagoa dena, gure errekek bizirik mantentzen dute paisaia lehorten handienetan ere.

Gaur egun, Gipuzkoan urtero 1.500 litro euri-ur jasotzen ditugu metro karratu bakoitzeko. Klima aldaketaren testuinguruan litekeena da prezipitazio kopurua nabarmenki ez aldatzea, baina euria gutxiagotan egitea eta egiten duenean kantitate eta indar handiagoarekin egitea. Horretarako ere mendiak izango dira gure aliatu nagusiak. Zenbat balio du gure paisaiaren kolore berdeak?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketaziora
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitate
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundinano,
Ziortza Martin.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Hezkuntzaren hastapenetan teknologia txertatu nahi da"

MARIA RUIZ AMURRIO ISEA-KO STEM ARLOKO IKERKETEN KOORDINATZAILEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE STEM diziplinen gainean atzo Garaian egin ziren jardunaldien gainean dihardu Arrasaten bizi den ingeniari bastidarrak. **Zer da STEM?** *Zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematika* berbak edo kontzeptuak batzen ditu. 1950eko hamarkadan sortu zen, Ameriketako Estatu Batuetan, enpresen premiei erantzuteko, gazteen artean kompetentzia horiekiko interesa pizteko eta hezkuntza prozesuko hastapenetatik kompetentzia horiek txertatzeko. **Zertarako jardunaldiak?** Diagnostikoa egin nahi dugu STEM diziplinekiko dagoen bokazio faltaren gainean; emakumeen presentzia areagotzeko hausnartu eta estrategiak ezagutzea eta gazteen artean zientziarekiko eta karrera teknikoekiko grina sustatzea. Kolaborazio proiektuak sortzea da asmoa.



Ikerlaria, Arrasateko Garaia berrikuntza gunean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

Gaur egun, langile kualifikatuak behar dituztenez, ze eskatzen dute bereziki enpresek? Profil teknikoak, jakina, baina hori berez izan behar dute formakuntza egokiaren bidez. Hortaz, taldean lan egiteko

gaitasuna; ingeniarien eta arkitektoen artean oso ohikoa ez den komunikazio gaitasuna; jarrera, ekimena, positibotasuna... Hau da, zeharkako kompetentzia horiek.

Eta horiek sustatzen dira eskoletan, unibertsitateetan?

MUn, zehazki, ahalegin handia egiten ari gara kompetentzia horiek garatzeko. Baina Debagoiena oasi moduko bat ere bada. Hemendik kanpo bestelakoa da egoera. Lan handia dago. Edozelan ere, EAEn STEM estrategia zehaztuta eta txertatuta dago hezkuntza sisteman ere.

Dena den, oso berezita egon izan dira hezkuntzan ikasgai edo karrera teknikoak eta humanistikoagoak.

Bai, baina sistema integratu batera jo behar da, bestela oso zaila da eta helburu guztiak lerrokatuta egotea. STEM horrekin bilatzen da zientifiko-teknikoa bultzatzea, baina beste osagarri batekin, zeharkako kompetentzia horiek ere kontuan hartzeko, hezkuntza eredu oso bat sortzeko, eta ez plan bat une jakin bateko arazo bati erantzuteko.

Diozue diziplina zientifiko-teknikoetan bokazio-falta dagoela. Zergatik?

Egia da Debagoiena ezberdina dela, baina, oro har, bai Espainiako datuek eta baita Hego Euskal Herrikoek erakusten dute ingeniartzako eta arkitekturako ikasketak jaitسي egin direla.

Debagoienean, oster, ikusten da asko direla, bereziki mutilen artean, ingeniaritza ikasketak aukeratzen dituztenak.

MUko Arrasateko Ingeñiaritza Unibertsitatearen eragina argia da eta egia da Debagoienean arrakasta dutela ingeniaritza ikasketek. Baina EAEn oso bestelakoa da errealitate hori. Ekosistema berezia da hemen ingurukoa. **Zergatik ez dira matrikulatzen emakumezko gehiago ingeniartzan edo arkitekturan?** Kulturala da. Oraindik ere patroï batzuek agintzen dute gizartearen eta horiek haustea zaila da.

Nola sustatu ikasle gazteengan eta bereziki emakumeengan zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa?

Grina hori sustatzeko badaude proiektu batzuk; esaterako, Inspira STEM izenekoa. Gazte-gaztetatik, hezkuntzan, diziplina teknikoekiko interesa piztea du helburu, eta, batez ere, emakumeen rola aldatzea diziplina horiekiko. Praktikaren bidez ikastetxeetan ingeniari baten zeregina lanbidea ze izango den erakusten da. Ikasketetatik harago, zure lanbidea, praktika, zein izango den erakustea da helburua.

ITURRI ONETIK

Gerrako umeak omenduko dituzte apirilaren 25ean

Elgeta tropa frankistek hartu zuten 1936ko apirilaren 25ean. Intxorta 1937 Kultur Elkartek, Elgetako Udalak eta beste hainbat erakundek ohitura dute orduko gertaerak gogora ekarri eta faxismoaren aurka borrokatu zirenak omentzeko. Apirilaren 25ean egin ohi dute. Aurten, gerrako umeak omendu nahi dituzte. Gerrak Euskal Herrian iraun zuen bitartean, milaka haur erbesteratu ziren. Gerrako haurren elkartek kalkulatu du 30.000 ume ebakuatu zituztela. Horiek omenduko dituzte Elgetan aurten.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2010-01-23

'Egunkaria'-ko auzipetuen alde ezagun asko

Egunkariaren Alde Elkartek deituta, hainbat aurpegi ezagun batu ziren, Arantzazun, "Euskal Herriaren bihotzean", *Egunkaria*-ko auzipetuei elkartasuna adierazteko. Absolutzioa eskatzeko, gizartearen babesaren beharra azpimarratu zuen eskertzeko berbaldian Juan Mari Torrealdei auzipetuetako batek. Auzipetuekin batera, politika, kultura eta komunikazio alorreko hainbat pertsona ospetsu batu ziren basilikaren aurreko aldean.

ITURRI ONETIK

Greba deialdia hizpide

Trending topic izan da urtarilaren 30erako hainbat sindikatuk eta eragilek deituriko greba orokorra:

@Eskubideenkarta: "Urtea hasi zenetik 8 langile hil dira Euskal Herrian lan istripuetan #U30".

@naroaelortza: "Euskal gehiengo sindikalak kooperatibetako langileei grebarako gonbidapena egin die, interes propioei erreferentzia eginez. Kooperatiben oinarrian dagoen konpromiso soziala ere bada nahikoa arrazoi grebarako".



Zigor Andino udaltzainburua eta Maria Ubarretxena alkatea, martitzeneko prentsa agerraldian. XABI GOROSTIDI

Udaltzaingoak 858 esku hartze urritik abendura

79 salaketa jaso dituzte, eta Udaltzaingoak egiten duen lanari balioa eman nahi izan dio alkateak; iragarri du aurten "lehen aldiz" segurtasun plan bat egingo dutela Arrasaten, komertzioekin, ostalariekin, ikastetxeekin eta erretiratuekin elkarlanean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Agintaldi berrian udaltzainen aktibitatearen gainean informazioa erabaki zuen Gobernuak –hiru hilabeteko maiztasunarekin–. Urrian egin zuten gisa horretako lehen agerraldia, eta martitzenean, aldiz, bigarrena; 2019ko urri eta abendu bitartean pilatutako datuei buruzkoa.

"Udaltzainen lana balioan jartzea eta horri buruz informatzea funtsezkoa da. Segurtasuna udal honen ardura nagusienetako bat da, Arrasate atsegin seguru eta garatua baitugu jomuga", azaldu zuen Maria Ubarretxenak. Esku hartze eta salaketa kopuruari dagozkion datuak eman zituzten –zatiduran daude ze-

rrendatuta– eta, ostean, segurtasunarekin lotutako ekintzen berri eman zuen alkateak.

Hiru ekintza aurrerantzean

Hiru ekintzen berri eman zuen Ubarretxena alkateak: Ertzaintzarekin egingo duten hurrengo kolaborazio akordioa, Arrasateko Lehen Segurtasun Plana

eta udaltzain taldea handitzeko martxan dituzten kontratazio prozesuak. Ertzaintzarekin kolaborazio hitzarmena martxoan sinatuko dute. "Orain arteko kolaborazioak fruitu onak eman ditu, eta helburua da Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko elkarlana are gehiago indartzea".

Segurtasun Plana 2020an martxan jarri nahi dutela azaldu zuten, eta horretarako "aliantzak" bilatuko dituztela segurtasun kontuetan zeresana izan dezaketenen herriko eragileekin: herriko komertzioekin eta ostalariekin, ikastetxeekin, adindun pertsonekin... "Esku hartze komunitarioa egitea da asmoa. Segurtasuna hobetzeko, zenbat eta begi gehiago eduki, hobeto. Herriarren kolaborazio funtsezkoa da".

Une honetan –bajak eta erretiroak tarteko– lanean ari diren udaltzainen kopuruak ere aipatu dituzte: 26 udaltzain, udaltzainburu bat, hiru garabi-gidari eta bi administrari. Lantaldea handitzeko behin betiko sei udaltzain kontratatuko dituzte, Arkautitik deitu berri duten laugarren lan eskaintza publikoan. Aldi baterako udaltzainak kontratatuzko, ordea, bi bide erabiliko dituzte: Arkautiko lan-poltsa bateratua eta udal lan-poltsa. Azken hau meritu bidezkoa izango da eta alde zuzenetik "formakuntza homologatua" jaso duten udaltzainek soilik har dezakete parte.

Udaltzainen jarduna, zenbakitan

Hauek dira 2019ko urritik abendura bitartean izandako jardunarekin lotutako datuak.

858 esku hartze

- **269 administrazio arlokoak** Animaliak, zaratak, alarmak, dokumentu galeriak...
- **219 segurtasun arlokoak** Liskarrak, matxurak, kalte materialak...
- **151 trafiko arlokoak** Istripuak, harrapaketak...
- **219 bestelakoak** Epaitegiko eginbeharrak, Ertzaintzarekin elkarlanak –26 izan dira, guztira–, herritarrei laguntzak...

79 salaketa

- **41 ondare eta sozioekonomia arlokoak** Lapurretekin lotutako lau, kalte materialekin lotutako 25, erasoekin lotutako bat, droga trafikorekin lotutako hiru, alkohola eta drogak kontsumitu ostean gidatzeagatik zortzi.

Udaleko enpresa batzordeak negoziazio "serioa" eskatu du

Gobernuaren "jarrera eta utzikeria" salatu dute, eta Eudel-ekin negoziatu beharrean Udalarekin egitea eskatu

X.G. ARRASATE

Asteazkenean, agerraldi publikoa egin zuten enpresa batzordeko kideek, Maite Barreña presidentea buru. Adierazi zuten, Udal Gobernuak ez du funtzio publikorako "ez proposamenik, ezta estrategiarik ere". Jakinarazi zuten azken hilabeteetan lau aldiz batu direla negoziazio mahaian, baina bilerek ez dutela "ezertarako balio" izan.

"Bilera horietan LKS enpresak funtzio publikoari buruz egingandako proposamenen txosten batzuk ekarri dizkigute; sinatu



Enpresa batzordeko kideak. GOIENA

gabe, eta aurrez gurekin landu gabe".

Enpresa batzordearen eskaerak

Lanpostuen balorazio berria, soldataren igoera linealak aplikatzeko proposamenak, aldi baterako lanpostuen kopurua jaisteko eskaera, erretiratze primen egokitzapena, etorkizunean erretiratuko diren lankideen ordezkapenak egiteko plana... Adierazi dute, besteak beste, gai horiek konpontzeko eskaera zehatzak egin dituztela enpresa batzordetik, eta beti ezezkoa jaso dutela. Udal langileen egoera Arrasaten negoziatzea eskatu dute, Eudel-ekin negoziatu ordez.

Udal Gobernuak, bestalde, adierazi du lau aldiz batzartu direla, gaia Udal barruan lantzen ari direla eta ez dutela adierazpen publikorik egingo.



JOSU BILBAO

Kulturate txiki geratu zen

Irantzu Varela kazetariak eta islamiar testuinguruan berdintasun aditu Maya Amraek feminismoari eta arrazismoari buruz hausnartzeko saioa egin zuten martitzenean, eta Kultureteko Loramendi gela goraino bete zen. 60 lagunetik gora gerturatu ziren, eta, nagusiki, arrazakeriaren aurkako feminismoa garatzearen garrantziaz hausnartu zuten.



Herritar bat TAO sistemari buruzko ekarpen bat BAZera eramaten; urtarilla amaitu arte egin ahalgo dira. XABI GOROSTIDI

TAO: ekintza publikorik ez; erreakzioak, bai

Joan den astean, gune informatiboak eta eztabaida-saioak egon ziren eta aste honetan erreakzioak egon dira: Ibai-arte gaiari buruzko hausnarketa plazaratu du, Gobernuak balorazioa, eta herritarrek ekimenak hasi dituzte sare sozialetan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aste honetan ez da gaiari buruzko ekintza publikorik egin, baina erreakzioak, bilerak, balorazioak eta ekarpenak egiteko mugimenduak azaldu dira.

Ibai-arteren "ezinegona"

Ibai-arte elkarteko kideei astelehenean aurkeztu zieten TAO sistemaren proposamen teknikoak eta hurrengo egunean euren "ezinegona" adierazteko oharra plazaratu zuten. Bertan zera proposatzen zuten bezeroentzako: "Aparkaleku pribatuetan ibilgailuak sartzen dituztenei hobariak ematea eta Ferixalekua bezalako gune gehiago jartzea proposatzen dugu, besteak beste. Bezeroek aparkatzeko erraztasunak nahi dituzte, eta ez daude prest ordaintzeko; beraz, TAO sistema ezarrita, arrazoi gehiago izango dituzte erosketak Arrasatetik kanpo egiteko. Merkatariorik ezin ditugu, kasurik onenean, hilean 96 euro gehiago ordaindu Arrasateko Udalarri,

herrian lan egin ahal izateko. Gainera, saltokiak ditugun herriko zenbait eremutan egoiliarren guneak baino ez izateak ere harritzen gaitu. Oraindik badaude zalamalnetarako guneak, egokitu gabeko merkataritzaguneak, eta, gainera, aparkatu behar izango dugun gunea urrundu egingo digute".

Udalaren "enpatia falta" ere salatu zuten, bilerak Aztikerreko teknikariekin egin zutelako, "udal ordezkariarik gabe". "Badirudi Arrasaten oraingorik ez gaituztela baloratzen. Abenduan lau saltoki itxi dira herrian, eta badirudi ez diola inori axola. Noiz izango da Udal honentzat txikizkako merkataritza, guztientzat beharrezko den ondare?".

525 HERRITAR IZAN DIRA TAO-RI BURUZKO SAIOETAN ETA 360 EKARPEN JASO DIRA ORAIN ARTE

Udalaren balorazioa

Aurreko asteko informazio-gu-neetan eta eztabaida-saioetan 525 herritar inguruk hartu dutela parte jakinarazi du Udal Gobernuak. Udal webgunean 160 ekarpen jaso dira eta pape-rean 200dik gora. Udalak "oso era positiboan" baloratzen du herritarren parte hartzea eta ekarpenak egiten jarrai dezaten eskatu die. Kolektibo bereziekin ere batu dira Aztikerrekoak, eskaera ezberdinei erantzunaz, hala nola, merkataria eta ostalariak, Goiena Komunikazio Taldea, Gelmako etxeak, Aldai etxeetako bizilagunak, Uribe eta Arimazubi gaineko etxeetako bizilagunak, San Andresko eskolako zuzendaritza eta Ferixalekuko postuak. Ekarpenei erantzun gehienak honako gai hauen ingurukoak izan dira: egoiliar txartela, gune urbanoaren hedadura, doako tartea, garajeen erabilera, periferiako kale eta auzoen egoera, *express* guneen denbora tartea, familia

zaintza, herri sarreran aparkalekuak, egoiliar langile txartela, garraio publikoa, bidegorri sarea eta abiadura mugak. Hainbat gunetako herritarrek TAO eremua euren auzoetara zabaltzea eskatu dute; besteak beste, Aldaira, Gelmara, Erguingo zenbait kaletara eta ospitale ingurura.

Biteriko eta Laubideko aparkalekuak doakoak izatea ere eskatu dute, baina hori egitea zerk eragozten duen azaldu dute Udaletik. Bi parking horien kudeaketa 50 urtez enpresa pribatu batek egitea adostu zuen udalbatzak 2003an; akordioa hautsiz gero, Arrasateko Udalak 9.000.000 euroko kalte ordaina ordaindu beharko luke.

Tarifei buruzko mugimendua

Sare sozialen bitartez, herritar batzuek TAO sistemaren tarifen inguruan alegazio masiboa egiteko dei egin dute, eta "sistema doakoa" izatea eskatu. "Neurri honek herritarren artean ezberdintasunak sortzen ditu, ordaindu ahal dutenen eta ezin dutenen artean. Herritarrei bidali zaigun planoan ez da hori zehazten eta askok uste doakoa izango dela".



Erdiko kalea. GOIENA

EH Bilduk bi batzar deitu ditu, PER plana bizilagunekin lantzeko

Bi bilera ireki egingo dituzte urtarilaren 28an, Kulturategi areto nagusian, 14:30ean eta 18:30ean, interesatuek ondoen datorkien orduan parte hartu ahal izateko. Bi helbururekin antolatu dituzte: bizilagunen eta negozioa dutenen proposamenak eta iritziak entzuteko; eta berrikuspenari dagokionez EH Bilduk dituen proposamenen berri emateko.

+ 1.200
bezero baino gehiago

Liderrak zuri esker

24 orduko zerbitzua
Pieza guztiak barne
Euskarazko zerbitzu profesionala

OROTARIKO ZERBITZUA 100€ /hileko

ARRASATE Garaia Berrikuntza Gunea
943 903 450 www.bertako.eus

Has daitezela bizidunak Antoñan zehar hedatzen

Hainbat eragilek osatutako Ingurumen Mahaiak proposatu zuen Antoñan hezegune bat sortzea, gizakiak kaltetutako eremu hori biziberritzeko. Joan den zapatuan, 220 zuhaitz landatu zituzten bertan, eta laster, askotariko izaki bizidunen etxe izango da

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Institututik Anporretara joateko bidearen hasieran dago Antoña. Duela 100 urte baino gehiago, Udalatxetik aterako mineralak garbitzen ziren eremu horretan dagoen presan, eta horren eraginez sortutako lokatz eta hondakinen gainean naturgune bat egitea okurritu zitzaion herritar talde zabal bati. Ingurumen Mahaia izenpean egin zuten eskakizuna eragile hauek: udalbatzako alderdi politiko guztiek, Besaide Mendi Elkartek, Naturtzaindia Elkartek, SUDCek, San Prudentzio elkartek, Ekologistak Martxanek, Arrasate Zientzia Elkartek eta Zero Zabor taldeak.



Haur eta gurasoak, hezeguneko pasarelan, zuhaitz aldaxkak landatzen. M. REGUEIRO

Proiektutik errealitatera

2017 azaroan eman zuten proiektua aditzera. Anporretatik doan errekatxoa albotik igarotzen dela baliatuta, zingira edo putzu bat sortzea zen asmoa, 20 eta 30 zentimetro arteko sakonerarekin.

Putzua sortzeko, enborrez eta makilez egindako presa naturalak jartzea proposatu zuten Basoinsa enpresakoek. Hezegunea ez da bainurako aisialdigune izango, bertako espezie autoktonoentzako bizileku baizik:

igelak, apoak, zapaburuak, hegaztiak eta landareak hazteko gune bat. AZEko Xabier Bengoak azaldu duenez, natur kate bat sortuko da bertan: "Igelak egongo dira, hauen arrautzek eltxoak erakarriko dituzte, eltxoek txo-



Xabier Bengoa eta Joan Angel Barrutiabengoa, hezegunean. XABI GOROSTIDI

AZEkoak, "gustura" eta "eskertuta"

Arrasate Zientzia Elkartea hezegunearen sustatzaileetako bat izan zen. Behin lanak amaituta, eta zuhaitzak landatuta, "gustura" azaldu dira emaitzarekin. "AZEren partetik, mila esker Udalari eta Antoñan lan egiten duten teknikari guztiei".

riak erakarriko dituzte, saguzarrak ere agertu daitezke... Naturak kate moduan funtzionatzen du, eta hemen horrelako kate aberats bat gertatuko da".

Egurrezko pasarelak eta habiak Argazkian ikusten denez, egurrezko pasarelak jarri dituzte, hezegunearen gainetik pasa ahal izateko. Bi pasarela jarri dituzte: bata errepidetik gertuago eta bestea barrualderago. Horrez gain, txorientzako habiak ere jarri dituzte hezeguneko hainbat zuhaitzetan.

Zuhaitzak landuta, zain

Joan den zapatuan, 220 zuhaitz aldaxka landatu zituzten hezegunean, eta denborarekin hasiko dira izaki bizidunak agertzen. "Udaberria heldzean, segituan hasiko dira espezieak agertzen eta hemen bizitokia ezartzen".

GIZAKIAREN ERAGINEZ KALTETUTAKO EREMUA NATURGUNE BILAKATU DA DAGOENEO

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Gurpil aulkiarekin ezin pasatu zebra-bidea

"Aprendices kaleko zebra-bide hori gurpil aulkiarekin pasatu gura duenak jai du". Horixe helarazi digu arrasatear batek; izan ere, haren esanetan, irudiko "koxka hori oso altua da".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Haur eta Guraso Asanbladakoek, hausnarketa saioa

Duela hiru sortu zen Asanblada hau, neguan haurrentzako aisialdi aukera gutxi zeudela ikusita. Gaztetxean aurkitu zuten euren beharrak asetzeko aterpea, eta talde bezala funtzionatzen hasi ziren, askotariko ekintzak antolatzeke. Egindako bidez eta aurretik dutenaz hausnartzeko, batzarra egingo dute zapatuan, Kulturaten, 11:00etan. "Galderak, gogoetak, hausnarketa... beharrezkoa direla pentsatzen dugunok bagaude. Elkarrekin jarraitu eta aurrera egiteko. Zerk elkartzen gaituen jakiteko. Zein espektatiba daukagun konpartitzeko. Herrian daukagun beharrianak mahai gaineratzeko", azaldu dute.

OHARRAK

Danok-bat elkartekoen batzar orokorra

Domekan, hilak 26, egingo dute; 11:30ean lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena.

Pentsiodunak

Mobilizatzen hasi zirela bi urte igaro direla ospatu ostean, astelehenean berriz batuko dira, 12:00etan, Herriko Plazan.

Egiptu elkartekoen batzar orokorra

Domekan, hilak 26, egingo dute; 10:00etan lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena.

San Valentín afaria, Ibai-arteren kontu

Erakusleihoak San Valentín gaiarekin apaintzeaz gain, gau berezi bat pasatzeko aukera zozketatuko dute: afaria eta ikuskizun sorpresa. Urtarrilaren 23tik aurrera Ibai-artereko saltokietan erosten dutenek parte hartuko dute, baita webgunearen eta sare sozialen bidez parte hartzen dutenak ere.

Mankomunitateak, ekintzaileentzat zazpi tailer

Ekin Debagoienean 2020 programaren baitan antolatu ditu. Izen emateak eta informazioa, 943 79 30 90 telefonora deituta.

Arrasate

Herri Eskola



MATRIKULAZIOA ZABALIK

URTARRILAREN 27^{TIK} OTSAILAREN 7^{RA}

Eguneroko zaintza eta zaintza zerbitzu integrala Irailean, Uztailan eta gorriaz ez diren eskolako opor egun guztietan

**ATEAK
ZABALIK**

MUSAKOLA

Urtarrilak

28

11:00 etan
18:00 etan

BEDOÑABE

Urtarrilak

29

11:00 etan
18:00 etan

ERGUIN

Urtarrilak

29

14:30 etan



**MUSAKOLAKO ESKOLA
ERAIKIN BERRIAREN
AURKEZPENA**



Arrasate
Herri Eskola



goieskola
debaioleko euskal
eskola publikoa



*"Guztion eskola,
Guztion artean"*

"Urtea espero baino hobeto hasi dut"

ANDER MURUA PILOTA JOKALARIA

Ander Murua pilotariak txapel bikoitza lortu zuen asteburuan. Pozik dago orain arte lortutako emaitzekin eta lanean gogor jarraitzeko asmoarekin dago arrasatearra

Amaia Aranegi ARRASATE

Ander Murua arrasatearra 4 urterekin hasi zen pilotan eta geroztik kirol honetan dihardu. Arrasate eta Bergarako taldeetan aritu da, eta orain, Soraluze taldean dago. Urtea emaitza onekin hasi du eta aurreko asteburuan bi txapelekin bueltatu zen etxera.

2020a emaitza onekin hasi duzu.

Ez nuen espero hain ondo has-tea urtea, baina, egia esatearren, jokatutako partidua guztiak irabazi ditut.

Aurreko asteburuan, bi txapel irabazi zenituen.

Bai; askotan, denbora luzea egoten zara torneoak irabazi gabe, eta, batez ere, orain, seniorretara pasatzerakoan, gehiago kostatzen baita. Gainera, horrelako torneoak irabaztea oso zaila izaten da, onenak doazelako. Egia esan, partiduz partidua joan ginen bi torneoetan, eta, agian, biak irabaztea ez nuen espero, baina ondo jokatzea bai. Eta ondo jokatu genuenez, irabaztea lortu genuen.

Ostiralean, Elgoibarko XVIII. San Anton Pilota Txapelketako finala jokatu zenuen Endika Uriondorekin bikote. Aurkari gogorak izan zenituzten?

Oso maila handiko pilotariarekin aritu nintzen jokoan, txapelke-



Ander Murua, asteburuan lortutako bi txapelekin. AMAIA ARANEGI

tetan bukaerara iristen diren horietakoak. Nire bikotekidea eta beste bi aurkariak, Elola eta Mariezkurrena, Diario Vasco Txapelketako finalean aritu ziren. Beraien aurka jokatzea polita da, oso maila handia dutelako, eta kantxatik kanpo lagunak gara. Gainera, horrelako partidua jokatuta, asko ikasten da eta hobetzen laguntzen dizu.

Nola joan zen partidua?

Laurak pare bat pilota galtzen hasi ginen, eta gero, beste bikotea –Elola eta Mariezkurrena–

partiduan ezin sartu egon zen. Ondoren, partidua nondik nora zihonan ikusita, gure estrategia ondo erabiliz tantoak gure aldera ekartzea lortu genuen. Eta, azkenean, espero baino erraza go irabazi genuen: 22-9.

Endika Uriondo izan zen zure bikotekidea. Lehenago jokatu izan duzu berarekin?

Ez; bizkaitarra da eta lehenengo aldia da berarekin jokatzen dudana, eta, egia esan, oso gustura aritu nintzen.

Finaleko jokalaria onenaren saria jaso zenuen.

Bai; egia esan, finalaurreko partidua finalekoa baino hobeto joan zen. Azkenean, finaleko partidua ez zen atera hain ondo, akats asko egon ziren, baina gustura geratu nintzen egindako lanarekin. Endiak ere oso partidua ondo egin zuen, berak ere merezi zuen sari hori.

Domekan, Tafallan izan zinen Arbizurekin jokoan. Nola joan zen asteburuko bigarren partidua?

Partidu hura askoz ere gogorragoa izan zen. Hasieran, tantoak bukatzea kosta egiten zitzaigun eta partidua gogortu egin zen. Bi atzelariak oso ondo hasi ziren, eta pilota oso urruti jartzen. 15-14 galtzen joan ginenean, pilota aldatzarekin, guk aldatzea erabaki genuen, jokoan gehiago sartu nintzen eta erritmoa aldatu eta aurrean gehiago jokatzen hasi nintzen, eta, azkenean, hor egon zen partidua gogorakoa. Altutzarra atzelaria fisikoki jaitxi egin zen eta nire bikotekidea Arbizu oso ondo aritu zen. Azkenean, dominatzea lortu zuen eta nik tantoa aurrean bukatzeko erraza go izan nuen.

Arbizurekin izan zara lehenago jokatzen.

Bai; Laudioko Aretoko Txapelketa berarekin jokatzen dut. Oso ondo moldatzen gara eta momentu honetan oso ondo dabil, atzelari onenetakoa izango da. Nik neuk oso gustura jokatzen dut berarekin.

Gaur 19:00etan Laudion izango zara, Herriaren 24. Txapelketan. Nola ikusten duzu partidua?

Arbizurekin jokatuko dut, Labakaren eta Telletxearen aurka. Oso partidua zaila izango da, azken bi urteetan txapeldun geratu dira torneo honetan. Egia esan, oso bikote ona da, Tolosako Klubekoak dira eta elkarren artean oso ondo ulertzen dute.

Labaka aurrelaria seniorretan onena da eta Telletxea atzetik onenetakoa da baita ere. Aurreko finala, adibidez, 22-4 irabazi zuten. Baina espero dut lan ona egitea eta gurea ematea.

Aurrera begira, pilotan jarraituko duzu?

Pilota serio hartzen dut, garrantzi handia ematen diot. Gustura sentitzen naiz eta niri gustatzen zaidana da. Disfrutatzeaz gain, sufritu ere egiten dut. Azkenean, ez banu sufrituko, ez litzaidake kirol hau gustatuko. Orain bezala segitzea da nire asmoa, entrenatzen eta lanean gustura. Ez dut etorkizunean askorik pentsatzen; profesionalki pilotan aritzea zail ikusten dut, oso jende ona dagoelako. Baina orain arte bezala lanean jarraitzen badut, seguru gustura egongo naizela.

Soraluzeko taldean zaude.

Bergarako Klubean hiru urte egin nituen eta azkenengo urte honetan Soraluzeko taldean nago. Ikasketengatik Zarautzen bizi naiz eta Soraluzeko eta Tolosako taldeekin entrenatzen naiz.

Pilota munduan zeintzuk dira zure erreferenteak?

Irujo zen nire erreferentea, baina, zoritxarrez, utzi egin behar izan zuen, eta orain, egia esatearren, Altuna asko gustatzen zait; orain, onena dela esango nuke. Eta debuta egin berri duen Salaberria ere bai. Nik baino urte bat gehiago dauka, eta, laguna izateaz gainera, bere jokoa gustuko dut.

"PILOTA SERIO HARTZEN DUT, GARRANTZI HANDIA EMATEN DIOT; ASKO DISFRUTATZEN DUT"

Pertika-jauzilariek emaitza onak lortu dituzte Bordeleko mitinean

Malen Ruiz de Azuak 4,33 metroekin garaipena lortu zuen eta Istar Dapenak 5,23 metroko marka lortu zuen

A.A. ARRASATE


Urtarrilaren 18an, zapatuan, Star Perche mitinean aritu ziren Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena pertika-jauzilari arrasatearrak. Mitin horretan lehian aritzeko gonbidatuak

izan ziren eta emaitza onak lortu zituzten.

Malen Ruiz de Azuak 4,33 metroko marka egin eta garaipena lortu zuen eta Istar Dapenak, berriz, 5,23 metroak gaititu zituen. Arrasate Kanpanzar At-

letiko taldeko Fernando Zufiriak dio denboraldi hasierarako marka oso onak direla.

Gaszte kategoriako gaszteak ere lehian aritu ziren asteburuan. Anoetako parte-hartze libreko probetan marka hauek lortu zituzten: jauzi hirukoitzean Alain Egiak 13,77 metro, 60 metroko lasterketan Ander Oterok 7.48 eta Iker Menorrek 7.49. Eta, hain zuzen ere, gaszte kategoriako gaszteak lortutako markak euren mailarako onak direla dio Zufiriak berak.



Dapena eta Ruiz de Azua. ARRASATE K.A.

Kanpanzar Arrasatek etxean jokatuko du zapatuan

Kanpanzar Arrasatek igoera faseko lehen partidua jokatuko du zapatuan, 16:00etan, Mojategin, Iruñearen aurka. Igoera lortzea helburu du taldeak eta gogor ari dira lanean, baina badakite igoera fasea zailagoa izango dela. "Orain, partidua gogorak ditugu aurretik, baina taldea motibatuta dago", dio entrenatzaileak.

'Gauekoak' ikuskizuna Amaia antzokian bihar

Kukai dantza taldeko zuzendari eta koreografo Jon Maya dantzan izango da zapatuan Amaia antzokiko taula gainean. Dantza eta zuzeneko musika uztartzen dituen ikuskizuna da 'Gauekoak' eta arratsaldeko zazpi eta erdietan hasita eskainiko dute

Amaia Aranegi ARRASATE

Gogoeta pertsonal eta intimo batetik sortu zen proiektua da *Gauekoak*, Kukai dantza taldeko zuzendari eta koreografo Jon Mayak sortu eta protagonizatua. Zapatuan, dantzan egongo da Amaia antzokiko taula gainean, eta berarekin batera Arkaitz Miner eta Xabi Bandini musikariak izango dira. Beti taularen atzeko aldean egon da Maya, eta, oraingoan, taularen gainera egingo du salto *Gauekoak* ikuskizunarekin. Jendaurreko ekitaldiak ez ditut albo batera utzi inoiz. Azkenengo sorkuntzetan eta proiektu berrietan atzeko lanetan egon naiz gehiago, eta orain, kontrakoa, aurrean eta protagonismo handiarekin".

Duela urte eta erdi hasi zen proiektu honetan pentsatzen eta maiatzetik aurrera gogor ibili da lanean. "Duela urte eta erdi, Mireia Gabilondori, eszena zuzendariari, kontatu nion buruan nuen ideia. Garai haietan, Kukaiko beste estreinaldi bat neukan tartean, eta bestelako lanak. Baina pixkanaka-pixkanaka aurreratzen joan nintzen eta azkenengo urte hau intentsitate handikoa izan da", dio dantzariak.

Jon Mayarekin batera, eskarmentu handiko eta urteetako ibilbidea duten musikariak izan-



Jon Maya dantzaria, oholza gainean. IMANOL QUILEZ

go dira oholza gainean: "Arkaitz eta ni herri berekoak gara eta umetan elkarrekin dantza egin genuen talde berean, aspalditik ezagunak gara. Eta pendiente nuen berekin lan egitea. Xabi Bandiniri ere proposatu nion eta baiezkua jaso nuen. Istorioa hirurok kontatzen dugu, hirurak gara protagonistak".

Sentsazio asko

Ikuskizun honetan sentsazio asko jasotzen dira eta asko identifikatuta sentitu ahal direla dio Mayak: "*Gauekoak* ikuski-

zunak edozein sortzaileraren gauekoa kontatu dezake. Gauza intimo bat da, goxoa, obsesioak, bakardadea, gogoak, ezinak... hori guztia agertzen da ikuskizunean. Agertokian gauden hirurona izan daiteke, baina beste edonorena ere bai. Seguruenik, asko identifikatuta sentituko dira. Ez dauka kontaktuzun lineal bat, sentsazio desberdin askotatik pasatzen da, baina, betiere, gauak ematen digun bakardade eta misterio puntu horretatik abiatuta. Pixkanaka-pixkanaka hirurak ba-

koitzaren bakardadetik batzen goaz".

Ikuskizun honetan, eszenografiak bere garrantzia dauka, eta, hortaz, asko landu dute aspektu hau: "Fernando Berneusenak dira eszenografiaren diseinua, argiztapena eta ikus-entzunezkoak. Kontakizun hau testuinguratzeko espazio batean. Oso etxeko elementuak daude: sofa, ohea... baina, era berean, egiten den erabilpenak beste mundu batera eramaten du ikuslea".

Biraren lehen fasea

Abenduaren lehen estreinatuta zuten ikuskizuna eta geroztik nahiko jarraian egiten ari dira emanaldiak. Momentuz, abenduaren 21ra arte dauzkate iragarrita biraren datak, eta gero jarraipena izango du. Bitartean, bakoitzak bere lanetan ere jarraitzen duela dio Mayak: "Kukaik martxan dituen beste proiektuekin ibiliko naiz ni, Xabier Bandinik bere bakarkako lana aurkeztu berri du, Arkaitz ere bere proiektuekin dago. Baina proiektu honetarako ere tarte bat dugu, eta, gure ohiko jardunetan jarduteaz gain, *Gauekoak* ikuskizunerako denbora batez badaukagu tarte bat".

Ikuskizunak oso harrera ona izan du eta pozik daude jasotako balorazioekin: "Pozik gaude jendearen harrerarekin; egia esan, oso emanaldi politak irten dira. Ni oso pozik nago, prozesuan asko gozatu dut, agertokian pila bat gozatzen dut, oso gustura nago bizipenekin eta sortutakoarekin. Momentu hunkigarriak daude niretzako".

Zapatuan Arrasaten izango dira, 19:30ean. Ikuskizunerako sarrerak www.arrasate.eus atarian eta antzokiko leihatilan eskuratu daitezke, 10 eurotan.

Strad taldearen emanaldirako sarrerak, agortuta

Jorge Guillen biolin-joleak gidatzen duen Strad taldearen emanaldirako sarrerak agortuta daude jada. Urtarrilaren 31n, musika klasikoa, jazz, elektronikoa, rocka eta flamenkoa nahastu dituen emanaldia taularatu dute Amaia antzokian. Urtarrilaren 2an hasi ziren sarrerak saltzen eta dagoeneko guztiak, 740ak, agortu dira.

'Udazkena Euskal Herrian' lehiaketaren sari banaketa, bihar

Artgazki elkarteak antolatutako lehiaketaren bosgarren aldian parte hartutako lanak ikusgai eta salgai egon dira Kulturategiko klausuroetan bi astez. Zapatuan, 12:00etan, sari banaketa egingo dute lehenengo hirurak, eta publikoaren saria ere banatuko da. Era berean, lortutako dirua Aspanogi elkarteari emango diote.

Ipuin kontaketa musikatua izango da zapatuan Iratin

Nerea Ariznabarreta Izkue eta Mariano Hurtado Bravo ipuin kontalariaren eta musikariaren eskutik, ipuin kontaketa musikatua izango da Irati tabernan zapatuan, 13:15ean. 50 minutu iraungo du, eta, 3 eta 10 urteko haurrei zuzenduta, *Bertoko eta urrutiko ipuinak* ikuskizuna eskainiko dute, ipuinak eta musika uztartuta.

Zatoz gu ezagutzera

- Kuota ezberdinak, diru sarreraren arabera.
- 18.000 € baino gutxiagoko irabaziekin, **DOAN**.
- Bigarren seme-alaba, **DOAN**



MUSAKOLAKo Haurreskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABEko Haurreskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTU GAIK

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Bertsozaleak bertsolariei entzuten –Jokin Uranga, kantuan–, Sastiña aurrean egindako saioan. IBAI ZABALA

Elkarrekin ikasi, jolastu, gozatu

Aste luzeetako prestaketen ostean, bikain atera zen 2020ko Bertso Eguna Aramaion. Jende asko batu zen eguerdiko bisita gidatu bertsokatuan, eta 300 lagun inguru bost bertso bazkarietan. Geratu zaien aho zaporea "oso ona" dela dio Manex Agirrek



Zuazubiskar, Egaña eta Iguaran, parkean, Marta Ugarte gai-jartzailearekin. I.Z.



Amaia Iturriotz, kantuan, eta Martin Abarrategi eta Sustrai Colina, ondoan, elizan. I.Z.

Julen Iriondo ARAMAIO

Kantuan egindako saioek eurek baino are hobeto, agian, eguerdiko ekitaldian geldituenetik geldiunera oinez egindako tarte haiek –denak batera, nahasian– irudika lezakete ondoen Bertso Eguna zer izan zen: ekosistema-ko bi osagai nagusiek, *-lariek* eta *-zaleek*, bertsoaren aitzakian elkarrekin pasatako eguna, egun ederra.

Egitarauari ekiteko, hiru geldiunedun bisita egin zuen tropelak herrian barrena. Formula bera errepikatu zen geldituenetik bakoitzean: Amillena elkarteko Libe Ramila gidariak tokiaren gaineko zenbait azalpen eman, eta Marta Ugarte gai-jartzaileak haiekin lotutako pare bat gai jarri; eta hiru bertsolari kantuan.

Umorera bideratutako gaiak izan ziren, gutxi asko, denak: Aramaiora bizitzera joateko, aurrez, Sastiñan, odol garbikoak zirela ziurtatu behar zutenena –garai batean horrela zela esaten dela argitu zuen Ramilak–; elizara –Euskal Herriko eliza neoklasiko apurretako bat, gidariak azaldu zuenez– apaizaren aurrean aitorpena egitera joandakoa; edo gaur egun parkea dagoen lekuan bainuetxea zegoeneko, eta bertsolari koinatu-koinatak, bata bainujantzi txiki estu batez, bestea neoprenoz eta hirugarrena biluzik, hango bainuontzian kabituz ezinda.

Azken gai horri kantatu zioten bertsolarietako bat izan zen

Oihana Iguaran, Andoni Egaña eta Ane Zuazubiskarrekin batera, eta Villabona-Amasakoak aitortu zuen herriari buruz gehiago jakiteko formatu polita izan zela eguerdiko bertso-bisita: "Lezio nahikotxo jaso ditugu gaur. Bainuetxearena ez nekien, eta bainuontziarekin [parkean bertan dago bat] ohartu gabe nengoen, eta oso kuriosoa iruditu zait".

Kontuok, dena den, ez zuten berriak behar bertsolari guztiendako, hirukote bakoitzean baitzegoen herriko bertso eskolako kide bat; Martin Abarrategi, horietako bat –eliza aurrean kantatu zuen–, gustura bere parte-hartzearekin: "Sekula ez dut eduki aukerarik hain *cachet* handiko bertsolariekin kantatzeko, eta hasieran beldur apur bat banuen, baina...".

Denak pozik, hortaz; entzun eta esandakoekin, eta egitarauko lehenengoak batutako jende kopuruarekin ere bai: "Hainbeste jendeko ekitaldirik aspaldi ez dugu ikusi Aramaion", zioen Manex Agirrek –Goiena telebistak astelehenean Bertso Eguna-ren gainean egindako tarte berezian izan zen, antolakuntzan jardundakoen izenean–.

Bazkalostean, librean

Eguerdiko ekitaldia bukatuta, tragoxkaren bat edo beste jotzeko denbora justua, eta bazkarietara denak. 300 lagun inguru batu ziren antolatutako bost otorduetan –lau ziren hasieran, baina, jendearen erantzuna ikusita, beste bat ere antolatu zuten–; txartel guztiak zeuden salduta.

Iparra-Hegoa elkarteko kideek prestatutako menuarekin –txitxirioak eta masailak– sabela bete, eta 17:00ak bueltan hasi ziren, berriro, bertsoak: Iñaki Viñaspre eta Ane Labakarekin, Zabolán; Jone Uria eta Beñat Gaztelumendirekin, eskolan; Nerea Elustondo eta Unai Iturriagarekin, Ehiztari Txokoan; Miren Artetxe eta Eneko Lazkozekin, Izarra elkartean; eta Sebastian Lizaso eta Onintza Enbeitarekin, Uribarrin. Beste ordu eta erdi inguru *bertso-jaten*.



Kuadrilla Artekoren aurkezpena, udaletxean. JULEN IRIONDO

Kuadrilla Artekoa, hastera

Bertso Egunak hiru plater izan zituen, baina baita aperitiboa ere. Aramaion aurkeztu zuten goizean Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa. Hiru saio eta bi talde izango dira Aramaion; hain justu, txapelketa gaur hasi eta herriko taldeak lehiatuko dira Marixekan.

**HASTEKO, LIBE
RAMILAK AZALPENAK
EMAN, ETA HAIEKIN
LOTUTAKO GAIEI
KANTATU ZIETEN**

Eguerdiko saioan gaiei kantatu zieten bertsolariek, bazkalostekoetan, osterara, librean jardun zuten: "Egia da libreko saioak oso gustagarriak izaten direla, bertsolariak benetako bat-bateko jardunean ikusten dituzulako, benetan euren ahotsetik kantatzen denbora guztian", zioen Agirrek; Uribarriko saioan izan zen bera, eta Enbeitak eta Lizaso primeran aritu zirela adierazi zuen.

Jarritako gairik izan ez eta zeri kantatua norberak sortu behar horren adibide, Goiena bera izan zen, esate baterako, jomugan, eta hortik abiatuta Madrilgo kongresuraino iritsi zen bertsoen soka, pentsa: Goiena han azaldu zela-eta, berak, deitzekotan, Tele5ri baino ez diola deitzen bota zuen Enbeitak; Lizasok gehiegizkotzat jo, eta *Tele5ra ez zara iristen* bota zion, ETB aipatuz; Enbeitak, orduan, Lizaso *Herri Txiki*-n moldatzen zela ondo, eta bera *infernu handi-an*"; Kongresuak behar zuen infernu handi hori, eta Lizasok gogora ekarri zuen *moñokin rimatzen duen hitz bat* "oso famatu" egin zuela, eta "ausardia" aitortu zion hurrengo bertsoan; eta bizkaitarrak amaitu: *Ez nuen izan arazo asko mahaia gogor jotzeko / ta gero ez naz kapaz bertsoak negar barik amaitzeko*. Bertsolari bikotearen jardunarekin gozatu ederra hartu zuten Uribarriko elkartean batu ziren zaleek.

Eta, horrela, bazkariz bazkari. Eguneko bigarren platera amaituta, berriz, atzera ere Ibarran batu ziren denak, postrerako; Urola Erdiko trikitilariek alaitu zuten iluntzetik aurreragokoa: "Hasieratik garrantzitsua iruditu zitzaigun berriz ere elkar-tzea; triki-poteoa egin genuen Urola Erdiko trikitilariekin, artista kuadrilla galanta, eta ordu txikiak arte egon zen trikitia eta festa. Horrela bukatu behar dira gauzak, ondo".

Azken finean, "oso ona" aurtengo Bertso Egunak utzitako aho zaporea: "Geu ere oso eskertuta gaude; Bertso Eskolarentzat hau opari bat izan da".

**LIBREAN JARDUN
ZUTEN BAZKARIETAN,
ETA IBARRAN AMAITU
ZUTEN FESTA,
TRIKITILARIEKIN**



Zabolako bertso bazkaria, Iñaki Viñaspre eta Ane Labakarekin. IBAI ZABALA



Eskolako saioa, Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi bertsotan zirela. IBAI ZABALA



Nerea Elustondo eta Unai Iturriaga, Ehiztari Txokoan. IBAI ZABALA



Miren Artetxe eta Eneko Lazkoz, Izarra elkarteko bertso bazkarian. IBAI ZABALA



Sebastian Lizaso, Onintza Enbeitak eta hainbat bertsozale, Uribarri. JULEN IRIONDO



Drogen kontsumoari aurre egiteko liburua

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek, UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak elkarlanean osatu duten lana da, eta drogen kontsumoaren prebentzioan eragin gura du. 500 familiari eta UDAko kirolariei banatuko dizkiete argitaratu dituzten aleak

Naroa Urien Berrio ARETXABALETA

Duela bi urte martxan jarritako U@DA proiektuaren baitan kokatzen da astelehenean Ibarra kiroldegian aurkeztu zuten *Egin dezagun jauzi handi bat* liburua, eta UDAk "mendekotasun-sortzaile diren substantzien kontsumoari aurre egiteko" abian jarritako programaren mugarri nagusiak jasotzen ditu.

Aipaturiko proiektua San Juan de Dios ospitale psikiatrikoarekin elkarlanean burutu dute, eta ondoren, Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikastetxeetara zabaldu, bi herrietako udalen babesarekin. 12 eta 16 urte bitarteko 492 neska-mutilek erantzundako inkestei esker, drogen kontsumoaren arazoa kuantifikatu ahal izan dute. Modu horretan, azterketa horren ondorioak eta bi urte hauetan sustatu dituzten ekimenak batzen ditu liburua.

Aste honetatik aurrera, Almen eta Kurtzebarri ikastetxeetako 500 bat familiak jasoko dute liburua, Bigarren Hezkuntzako ziklo guztietako eta batxilergoko lehen mailako ikasleen artean banaketa eginda, eta UDAko jokalariek ere jasoko dute. Era berean, klubaren webgunean ere eskuragarri egongo da, PDF formatuan, baita Aretxabaleta-



Liburuaren aurkezpena, astelehenean, Aretxabaletan. ENEKO AZURMENDI

ko eta Eskoriatzako udalen webguneetan ere.

1.100 ale argitaratu dituzte, euskaraz eta gazteleraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Hurrengo pausoak

Programaren bultzatzaileek "pausoak ematen" jarraitu nahi dute aurrerantzean ere. "Erabaki baliagarriak hartu behar ditugu, eta, harresi bat jartzeaz gain, gainerakoak hezi eta geuk hezi behar dugu. Arazo hori ez da arazoa daukanarena bakarrik,

guztiona baizik", azpimarratu dute. Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarretak azaldu duenez, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek proiektu honen aldeko apustua egiten jarraituko dute. Ildo horretan, EKKO izeneko programa lantzen ari direla aurreratu du -Eskola, Komunitatea, Kirola eta Osasuna-. Oraingo honetan, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik seigarrenera jaitsiko dute parte-hartzaileen adina -10 urtetik 12ra-, eta familiak ere inplikatu dituzte.



NIRE USTEZ


IDOIA SANCHEZ

'Urdina + gorria = morea', ezta?

Duela urtebeteko kontu bat kontatuko dizuet. Orain dela bost urte oparitu zidaten nire lehenengo hilekorako kopa, eta ordutik nire lagun onenatarikoa izan da. Momentu hartan, aldiz, inguruan gutxi edo inork ez zuen erabiltzen, nahiz eta gutxinaka hedatuz joan den tresna bat izan den, zorionez. Kuriosoena zera da, gauza berritzaletan bada ere koparen patentea 1937koa dela, urte hartan merkaturatu baitzuen Leona W. Chalmersek. Hedatu egin dela nioen, eta ez soilik gazteen artean, hilekoak irauten duen azken egunera arte erabili baitaiteke.

Duela urtebete, ospitalizazio planta batean lanean nengoela, sorpresaz harrapatu ninduen hilekoak. Ez neraman uniformearen praka urdin zoragarri haiek babesteko ezer, eta, beraz, lankideengana jo behar izan nuen laguntza eske. Hiru aldiz galdetu, eta hiruretan erantzun bera jaso nuen: "Sentitzen dut, baina nik kopa erabiltzen dut". Eta prakak zikindu nituen, baina sinetsi gutxienekoa izan zela, ezin izan nuelako goiz guztian harrotasun irribarrea aurpegitik ezabatu.

GORA ETA BEHERA




GOIENA

Txakur-kaka txirrista gainean

Murubideko parkean dagoen txirrista gainean "pastela" topatu zuen eguaztenean herritar batek: txakur-kaka. "Umeek jolas egiten duten lekuan; lotsagarria!", adierazi du, oso haserre.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Odontologia estetikoak	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Implantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

Auzolanean eraikita, kultura indartzeko asmoz

Kalitatezko eta eskaintza kultural finko baten aldeko apustua egin gura izan du Loramendi Elkartek. Hori horrela, auzolanean, udaletxe zaharreko sarrera egokitu dute, paletak erabiliz sofa eta aulkiak eginez, eremu eroso eta goxoa sortzeko

Imanol Beloki ARETXABALETAKO

2020. urtean eskaintza kultural oparoa izateko asmoz urrats bat egin gura izan du Loramendi Euskara Elkartek. Izan ere, auzolanean, udaletxe zaharreko lokaleko eremua atondu dute zenbait herritarrek, eta, aurreikuspenak betetzen badira, aste-buru honetan amaituta izango dituzte lanak. Hori horrela, urtarrilaren 31n, lehenengo ekitaldia izango da. Hain zuzen ere, Irungo Eneritz Furrya bakarlari arituko da, 22:00etan.

"Lehenengo hitzordutik abiatuta, hasiera batean, formatu txikiko musikariak, bakarlari edo bikote moduan antolatzea



Auzolanean egindako bi sofa, udaletxeko sarreran. ENAUT ZUBIZARRETA

da asmoa. Hala ere, ez gara musikara soilik mugatuko. Antzerkiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, dokumentalen proiektzioak eta zineklub txiki bat izatea eta antolatzea da helburua. Gazteei begira behar bat dago herrian, eta dinamika honek funtzionatuko duelakoan gaude", adierazi du Loramendiko teknikari Eñaut Zubizarretak.

Lanak, amaitzeaz

Paletak erabiliz zenbait sofa egin dituzte bertan lanean aritu direnek. Horiekin batera, eserlekuak ere egin dituzte, oihalez forratuta: "Eraikinerako sarrera hotz samarra da, eta goxotasuna eman gura izan diogu guk egindako aulki eta sofekin. Hala ere, geratzen da zer egin, baina astebururako amaituko ditugu egitekoak".

Sarrera bereziak

Ekitaldiaren bat egiten dutenean ez dute sarrera finkorik ezarri gura antolatzaileek. Ikusleak, saioa ikusi eta behin amaitzean, iruditzen zaion araberrako diru kantitate bat edo beste uztea dela asmoa adierazi dute.



Oihana Aldai urrezko danborraz. ALDAI

Aldai ere jaso du Urrezko Danborra Realeko jokalariekin

Realeko futboleko eta belar hockeyko taldeetako kideek Donostiako Udalak emandako 2020ko Urrezko Danborra jaso zuten, San Sebastian egunean. Hala, Oihana Aldai aretxabaletarrak ere jaso du danbor hori, iazko denboraldian Real Sociedadeko atezaina izanda Erreginaren Kopa irabazi zuelako taldeak. Orain, Kordobako Pozoalbense taldeak fitxatu berri du.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

Belorrieta 8
20550 Aretxabaleta

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: 2020-01-27 / 2020-02-07

Bulego ordutegia: 09:00-14:00 / 16:00-18:00

zeuria
zeuena
geuria



Aretxabaletako
Udala



Kontxi Lazkano, Ciriaco Sandoval, Arantxa Marrodan eta Rosario Elorza ikasleak eta Mariatxen Urkia irakaslea. MIRARI ALTUBE

Sekula ez da berandu musika ikasten hasteko

Herriko lau erretiratu martitzen goizetan elkartzen dira Mariatxen Urkia irakaslearekin musika eskolak jasotzeko: "Ezin gusturago elkartu ere"; horietako batzuek kantuan ere egiten dute eta pianoa jotzen ikasten dabil bat edo beste

Mirari Altube ARETXABALETA

Leizarra musika eskolako atea edonorendako daude zabalik, baita erretiratuendako ere. Dagoeneko hiru urte daramatzate eskolak jasotzen eta aitortu dute benetan gustura elkartzen direla Mariatxen Urkia irakaslearen esanetara lan egiteko.

Musika ikasi eta kantuan egin

Kontxi Lazkano, Ciriaco Sandoval, Rosario Elorza eta Arantxa Marrodan aretxabaletarrek martitzen goizetan dute hitzordua Arkupen. "Oso gustura elkartzen gara, eta solfeoa erakusten digu astuna izan barik", diote.

Pianoa jotzeko "ezinbestekoa" da partiturak irakurtzen jakitea eta kantuan egiteko ere asko laguntzen du. "Horren gainera jakintzarik ez nuen eta kanturako oso ondo datorkit. Baina ez da samurra, bereziki intonazioa da zaila...", dio Sandoval. Urkiak berretsi egin du partituren garrantzia: "Gutxieneko jakintza bat izatea beti komeni

da, kanturako ere bai". Hala, musikaren teoriar sakontzen dute, bereziki; partitura baten nondik norako guztiak ikasi, esaterako.

Musika jakintzak jasotzeaz gain, kantuan ere egiten dute. Hiru urtean asko ikasi dutela diote eta bakarkako kontzertuak ere eman dituzte; azken bi urteotako Gabonetan, esaterako, parrokan egin du kantuan Sandoval, organoak lagun eginda. Marrodan eta Lazkano, oster, Aretxabaleta Abesbatzako kide dira. "Bakarka kantuan egitea biluztea lez da, norberaren barru-barruko kontua, eta jendurrean egitea kosta egiten zaio askori", dio Urkiak, eta hori ere

HIRU URTE DAROATE MUSIKA JAKINTZAK JASOTZEN; HORREZ GAIN, KANTUAN ERE EGITEN DUTE

zaindu beharreko kontua dela gaineratu du.

Sandovalen esanetan, eskola horiek gehiagorengana iristea interesgarria litzateke: "Basotxon ere badago kantu talde bat eta haiei eskaintzea ere ondo legoke. Partituren ikasketan sartu barik, era apalagoan, beharbada, baina ikasketa batzuk bai. Izan ere, afizio handia dago".

Terapia egin eta burua martxan

Nagikeria barik elkartzen direla berretsi dute guztiek eta horren arrazoiak eman dituzte: "Benetan gustuko dugu musika eta hori da garrantzitsuena", eta gaineratu dute: "Taldea polita sortu dugu, gainera. Eta terapia egiteko ere balio digu: berrikerian egin, arazotxoak konpondu...".

Leizarra atea zabalik dituzte edonorendako: "Burua martxan izaten ere laguntzen du: kontzentrazioa landu... Musikatik ez da sekula erretiratu behar eta sekula ez da berandu hasteko", adierazi dute.

Aratuste bazkarietara joateko txartelak, bihartik aurrera salgai

Kiroldegikoan izena emateko Arkupera jo behar da eta 'bazkari golfo'-rakoak Kixkor eta Urbaltz tabernetan hartu

M.A. ARETXABALETA

Karnabalen Lagunak eta Kultura Sailak bi herri-bazkari antolatutako Aratuste-domekarako. Horietara joateko txartelak bihar, zapatua, jarriko dituzte salgai.

Ibarra kiroldegian egingo den bazkarirako, Arkupera joan behar da, 09:00etatik aurrera. Helduek (18 euro) izango dute patatak errixar erara, txahal masailak eta flana, eta umeek (13 euro) makarroiak, hanburgesak eta pasteltxoak –edaria, ogia eta kafea prezio barruan–.

Iturrigorri pilotalekuan egingo duten *bazkari golfo*-rako txartelak ere bihartik izango dira salgai Kixkor eta Urbaltz tabernetan (15 euro). Menua da patatak txorizoarekin, oilaskoa, postrea eta kafea –aukera begarria dago–, baina edaria bakoitzak berea eroan beharko du.

Otsailaren 15ean ospatuko den Txapel Txin Egunerako ere antolatuko dute bazkaria Karnabalen Lagunek. Komentuan izango da eta paella gertatuko dute; txartelak Kixkor eta Urbaltz tabernetan dituzte (10 euro).

Hamazortzi bikote lehiatuko dira frontenisean asteburuan

UDAk antolatu du eta zapatuan eta domekan jokatu dituzte partidua Iturrigorri pilotalekuan

M.A. ARETXABALETA

Mutilen binakako frontenis txapelketa antolatu du UDak Udaren laguntzarekin, eta aste bukaeran, zapatuan eta domekan, hamazortzi bikote elkartuko dira Iturrigorri pilotalekuan nor baino nor gehiago.

Kanporaketa zapatuan

"Aurreikusitakoa baino lehena go itxi behar izan dugu izen-emate epea, izan duen arrakasta ikusita", adierazi du Oihana Mata UDako kideak, eta gaineratu: "Inoizko kopururik han-

diena izan da eta asteburu bakarrean jokatu ahal izateko ezohiko antolaketa egin behar izan dugu".

Zapatuan, kanporaketa partidua bat jokatu dute hamazortzi bikote horiek, zozketa bidez ateratako bikotearen aurka; 25 tantora izango dira. Bederatzi bikote kanpoan geratu dira orduan. Domekan, sailkatutako beste bederatziek ligaxka jokatuko dute, hiru taldeetan banatuta. Horien artean onenek finalerdiak izango dituzte gero, eta bukatzeko, finala.

'Barre egiteko ipuinak' kontaketa saioa liburutegian

Begoña Gomez Abrisketa *Bego Alabazan* ipuin kontalariak *Barre egiteko ipuinak* saioa eskainiko die 4 eta 8 urte bitarteko neska-mutikoei bihar, zapatua, 11:30ean, Haur liburutegian; sarrera debalde da.

Istoria dibertigarrien laguntzarekin ordubete "gozoa" eta "barre gustura egiteko modukoa" pasaraziko die.

Grebara gonbidatzeko argazkia bihar eta ekitaldiak egunean

Greba orokorra feminista izango da leloarekin elkartasun argazkia ateratzera dei egin du Atxabalako Mugimendu Feministak; bihar elkartuko dira, 10:30ean, Herriko Plazan. Urtarrilaren 30ean, oster, hainbat ekitaldi izango dira: bizikleta bira (10:30); plazan ekitaldia (12:00); eta Arrasateko manifestaziora joateko elkarretaratzea plazan (16:30).



Iaz, Zuhaitz Egunean batutako zenbait herritar zuhaitzak landatzen. IMANOL SORIANO

Jaiotza bakoitzeko zuhaitz bat landatzera

28 haur jaio ziren 2019an, Eskoriatzan, eta, urteroko ohiturari jarraituz, jaiotza beste zuhaitz landatuko dituzte Santa Marina auzoan. 11:00etan museoan batuta, lur eremura abiatu, eta lizarrak eta urkiak izango dira landatuko dituztenak

Imanol Beloki ESKORIATZA

2019an, 28 haur jaio ziren Eskoriatzan, eta haien gurasoek, familiekin lagunduta, aitzurrak hartu eta zuhaitzak landatuko dituzte, urteroko ohiturari jarraituz, domekan ospatuko duten Zuhaitz Egunean. Aurtengoa hamaseigarren edizioa izango da, eta Santa Marina auzoko urbanizazio berrian jarritako lursailean egingo dute landaketa. Iaz, 28 haur jaiota, zuhaitz kopuru bera landatuko dute; oraingoan, lizarrak eta urkiak izango dira.

Zuhaitzak zaintzea komeni

Domekan, 11:00etan, Ibarraundi museoan batuko dira egitasmoa batu nahi duten gurasoak, eta, Ibarraundi museoako langileek hainbat argibide eman ostean, landaketa egingo duten eremura joango dira. "Guraso izan direnei gutuna bidali diegu ekintzara animatu daitezen, eta erantzun ona aurreikusten dugu. Beste urte batzuetan ere landatu izan

Guraso izanda, landatzera

KEPA ISASMENDI
HERRITARRA

"Ekimen polita da domekan gauzatuko dena Zuhaitz Egunean. Abenduaren 2an izan genuen haurra, eta gonbidapena jaso genuen bertara joateko. Hori horrela, bertan izango gara; izan ere, ederra da haurrak bere zuhaitza izatea. Horrekin batera, klima aldaketari aurre egiteko, eta ezbeharrak gertatu diren herrialdeetakoek elkartasuna adierazteko egitasmoa ere izango da, bide batez, landaketa hau.

dugu eremu horretan, baina zuhaitzek ez dute indarra hartu eta ihartu egin dira. Ea oraingoan ez den gauza bera gertatzen. Horretarako, zuhaitza landatzen duten gurasoek urtean zehar zaindu egin beharko lukete... hori izango litzateke proposena", adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi museoako langileak.

Amazoniari elkartasuna

Sinbolismoz betetako ekintza honek pisu handiagoa izango duela aurten gaineratu du Altzuak: "Mundua zuhaitz gabe geratzen ari zaigun honetan -Amazoniako eta Australiako suteak kasu-, ekarpen xumea egingo diogu naturari. Izan ere, herritar talde batek Eskoriatzako Udalarri eskaria egin zion herrian zehar zuhaitzak landatzeko, eta horri erantzuna eman go zaio ekintza honekin. Horrekin batera, elkartasuna adieraziko diegu, bide batez, azkenaldian sute lazgarriak jasan dituzten lurraldeei".

Lan, pentsio eta bizitza duina bermatzea eskatuko dute

Urtarrilaren 30ean, bi hitzordu nagusi izango dira Eskoriatzan: bata goizean eta bestea arratsaldean

I.B. ESKORIATZA

Pasa den asteburuan hasi ziren urtarrilaren 30ean greba orokorra egiteko mezua zabaltzen Eskoriatzan. Eskoriatzako greba batzordeko eta Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideak kalera atera ziren, eta kale-bira egin zuten, besteak beste, informazioa herritarren artean zabaltzeko.

Honekin batera, pentsioak, lan baldintza duinak eta eskubide sozialak berma daitezen eskatuko, beste zenbait hitzordu ere antolatu dituzte urtarrilaren 30erako. Honela adierazi du Es-

koriatzako greba batzordeak: "Eskoriatzako kaleetan egongo gara eta eguna gurekin pasatzera eta batera aldarrikatzera deitu nahi zaituztegu. Bi deialdi egongo dira egun horretan: 09:30ean, herriko plazan elkartuko gara sindikalistei harrera egiteko, gosari kolektiboa egiteko eta aldarrikapenak zabaltzeko ekimenak egiteko. 18:00etan, kontzentrazioa egingo dugu plazan, eta, baldintzak onak badira, herria zeharkatuko dugu, lan-pentsio-bizitza duina eskatzeko modu zaratatsuan (Informazio zabalagoa, 6. orrian).

'¡Hoy, milagro!' umorezko antzerkia izango da domekan

Domekan, *¡Hoy, milagro!* antzezlan izango da ikusgai, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Atakados Teatrok eskainiko duen lana da, eta adin guztietako publikoari zuzenduta dago.

Momentu ederra pasa eta barre algarak egin nahi dituenarentzat aproposa izango da. Izan ere, komediazko obra honekin hori bilatzen da.

Arantzazuko eta Begoñako Ama Birjinak protagonista izango ditu, eta, saioa gaztele-raz izango den arren, bi protagonistak euskaldun papera egingo dute.

Jon Madariagak zuzendutako lana da, eta Cres Blazquez, Leire Vadillo, Maite Carrera, Encar Roda, Ander Ipiña eta Vicky Gonzalez dira aktoreak. Sarre-
rak 5 euro balio du eta alde z aurretik Manuel Muñoz kiroldegian erosteko aukera dago. 70 minutu irauten du.

GORA ETA BEHERA



Haize zakarraren eraginak aparkalekuan

Eskoriatzako Santa Ana aparkalekuaren bueltan zenbait txapa jarri zituzten eremua ixteko. Hala ere, haize zakarraren ondorioz, apurtuta daude hainbat. Hori horrela, aparkatuta dauden autoetan kalteak eragin ditzake, eta oinezkoen segurtasuna ere ez da bermatzen eremu horretan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



IMANOL BELOKI



GED Eskoriatzak Fernando Eskoriatza plazan ateratako talde argazkia. IMANOL BELOKI

Etapari berriaren gaineko azalpenak ematera

Gure Esku egitasmoak etapa berriari ekingo dio. Hori horrela, Irati Eleizalde Gure Esku Gipuzkoako arduraduna kultura etxean izango da urtarilaren 28an, 19:00etan, bertaraten diren eskoriatzarrei zenbait argibide ematen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku herri mugimenduak orain arte egindakoen hausnarketa egin du, eta jauzi bat egiteko garaia dela adierazi dute arduradunek. Hala, Euskal Herriko lurraldeetan etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzea helburu izanik, egin gura diren ekintzen berri ematen izango da Irati Eleizalde Gipuzkoako Gure Esku ekimeneko arduraduna urtarilaren 28an, 19:00etan, kultura etxean, GED Eskoriatza taldeak antolatuta.

Sinadura bilketa masiboa

Erreferendumaren aldeko herri ekimena ate joka izenburupean, mota guztietako eragileek eta herritarren arteko lanketa izango duela oinarri adieraziko du hitzaldian Irati Eleizalde: "Azken hilabeteetan, orain arte egindako lan guztiaren hausnarketa prozesuan, jauzi bat egiteko garaia iritsi dela konturatu da. Erabakitze eskubi-

dearen gaia ahaldundu da, erakunde publikoetan eragiten jakin dugu, eta estatus politiko berriari buruzko eztabaidan ere eragin bat izan dugu... Hori horrela, jauzi hori erreferendum bidez erabakitzea posible egitea izango da hurrengo pausoa".

'11 gara izaera' lelopean


Orain arte herritarren arteko elkarlanean oinarrituta lan egin da, eragileekin egiten den elkarlanean sakondu gura dute: "Hori izango da etapa berri honetan sustatzen ari garen ardatza. 11 gara izaera izenburupean, erreferendumaren edo herritarren burujabetzaren alde asko eta askotarikoak garelako erakutsi nahi dugu".

HERRI EKIMENA NOLA BIDERATU NAHI DEN AZTERTZEKO HITZALDIA IZANGO DA MARTITZENEAN

Euskal Herrian inoiz egin den sinadura bilketarik handiena ere egitea badela asmoa gaineratu du Eleizalde. "Maiatzaren 3tik ekainaren 7ra bitartean, zenbait mobilizazio egin gura ditugu: Euskal Herri osoan ekintzak antolatzea eta, aldi berean, sinadura bilketa masibo bat. Ideia da manifestu bat ardatz hartuta sinadurak biltzea, eta eskakizun zehatzak egingo dizkiegu Eusko Legebiltzarrari, Nafarroako Parlamentuari eta Euskal Hirigune Elkargoari erreferenduma garatu dezaten...".

Herritarrei gonbidapena

Hainbat helbururekin antolatu du GED Eskoriatzak martitzeneko hitzaldia: batetik, egitasmoak eman nahi dituen hurrengo pausok herritarren artean zabaltzeko, eta, bestetik, Eskoriatzan egin nahi diren ekintzak antolatzeke prest daudenak agertu daitezen eta herrian dinamikarekin jarraitzeke lantaldea berritzeko.



Harkaitz eta ur bideak erakusketa. KARMELO OÑATE

Karmelo Oñate marrazkilariak erakusketa jarri du Barakaldon

Oñateren ilustrazioez gain, bi argazkilariren lana batzen du 'Harkaitz eta ur bideak' izeneko erakusketak

I.B. ESKORIATZA

Harkaitz eta ur bideak izeneko erakusketa jarri berri du Karmelo Oñate ilustratzaile eskoriatzarrak, Tontxu Gonzalez eta Ignacio Fernandez argazkilariekin batera, Clara Campoamor Barakaldoko kultura etxean.

Barakaldoko Mendi Astearen barruan, urtarilaren 13an ireki zuten erakusketa, eta bertan, eskoriatzarraren marrazkiak eta beste bi argazkilariren lanak daude ikusgai. Hiru artisten lanek gai bera jorratzen dute; hain zuzen ere, mendiak, arroilak eta espeleologia irteerak.

Hala, irudi gehienetan paisaiak soilik agertzen diren arren, beste zenbait argazki eta ilustraziotan leku horietan ekintzak gauzatzen agertzen dira hainbat protagonista.

Erakusketa arrakastatsua

Egunotan jende dezente izan dela erakusketako lanak ikusten adierazi du Karmelo Oñatek: "Erakusketa osatu dugun kide bakoitzak 15 argazki eraman ditu; nire kasuan, 15 marrazki. Sekulako argazkiak daude; batez ere, arroila jaitsieretakoak direnak...".



'MAKILA ESKUEN ETA IBILI BASUEN'

Mendibitzu baserria bisitatzen

Makila eskuen eta ibili basuen egitasmoaren barruan, mendi irteera egin zuten pasa den domekan zenbait herritarrek. Irteera Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideek antolatu zuten, eta, hainbat bide berri ezagutzeaz batera, Mendibitzu baserria barru-barrutik bisitatzeko aukera izan zuten bertaratuek.



Inkernu tabernan kontzertua eskaini duten zenbait musika talderen iragarpen kartelak. ATXORROTX KULTURA ELKARTEA

Oroitzapenak gogoan kartelen bildumarekin

Hamasei urtean Inkernu tabernatik pasa diren kontzertuen kartelen bilduma osatu du Atxorrotx Kultura Elkartea. Horrekin batera, Errekan Gora egitasmoaren kartel batzuk ere batu dituzte, eta guztiak asteburuan jarriko dituzte Inkernun ikusgai

Imanol Beloki ESKORIATZA
Atxorrotx Kultura Elkartea hamasei urtez aritu da hilean edo hamabostean behin kontzertuak antolatzen Inkernu tabernan. Talde ugari pasa dira bertatik, askotariko estiloetakoak, eta, guztira, 120 kartel batu dituzte. Hala, asteburu honetan, kartel horien erakusketa jarriko dute tabernan. Horrekin batera, egubakoitzean, 22:30ean, Serge musikariaren kontzertua izango da. "Kartel bakoitzak istorio bat du kontzerteko. Oroitzapen asko ekartzen digute; batez ere, aspaldi jo zuten taldeenak. Izan ere, Euskal Herriko taldeez gain, Taiwandik, Brasildik, Kataluniatik... etorritako taldeak izan ditugu, eta horiek jendaurrean

jartzea da asmoa", adierazi du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak. Bestalde, gaineratu du helburua Inkernun egindako kontzertuen iragarpen kartelak erakustea dela, baina Errekan Gora jaialdietako kartelen bat edo beste ere egongo dela.

Serge musikaria oholtzan
Gaur, 22:30ean, Eraso! taldeko musikaria izango da Inkernu

120 KONTZERTUTAKO KARTELEN BILDUMA OSATU DUTE INKERNUKO ERAKUSKETARAKO

tabernan, formatu akustikoan; teklatu-jole baten laguntzarekin izango da Sergio Ruiz G-Txabarri. Bertan, Gari Berasaluzeren *Enarak itzuli dira* liburutik moldatutako poemak eskainiko dizkie bertaratzen direnei, musikaz girotua.

Aurrera begirako emanaldiak
Azken kontzertuetako karteletan aurrera begirako emanaldien berri ere ematen hasi dira Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak. "Brasilgo talde batek jotzeko eskaera egin digu, eta baloratuko dugu. Horrekin batera, gaurko kontzerturako gertu, otsailean Xabin eta Sala anaiak; eta martxoan Sharon Stoner Oñatiko taldea izango dugu".

LEINTZ GATZAGA 23

"Frontoian orduak sartzera animatu behar ditugu haurrak"

JOSE INAZIO BELOKI PILOTA ENTRENATZAILEA
Gatzagako Udalaren saria jasoko du urtarrilaren 28an

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA
Jose Inazio Beloki gatzagarra zenbait urtez aritu da herriko gaztetxoek eskupilota entrenatzaile. Gaur egun, erretiratuta dagoen arren, ahal duen guztietan inguratzen da frontoira. Hala, herri mailako pilotaren alde egindako lan handiarengatik Gatzagako Udalaren saria jasoko du Debagoieneko Kirol Sarien ekitaldian. Urtarrilaren 28an, martitzenean, izango da, Bergaran, Seminarixoan, 19:00etan.

Gatzagako Udalaren saria jasoko duzu egindako lan guztiagatik. Ederra da halako aitortza izatea?

Noski; oso pozik nago emango didaten sariagatik. Beti nago ahal dudan heinean laguntzeko prest, eta aitortza hau jasotzea izugarria da. Zainetan daramadan zaletasuna da eskupilota, eta ilusioa egiten dit gaztetxoak pilotan jokatzeko ikusteak. Izan ere, sei edo zazpi urte inguru egongo nintzen entrenatzaile; gero, lanean hasi nintzen aste bukaeretan, eta, hala, denera ezin iritsi...

Entrenatzeko beti prest, baina laguntza ere ezinbestekoa, ezta?

Hala da. Mauri Zubillagarekin batera txapelketak egiten hasi nintzen. Martxoan hasi, eta Gatzagako Andramari jaietan amaitzen zen txapelketa. Final ederrak ikusi ditugu bertan, eta maila handiko pilotariekin gozatu ahal izan dugu. Esaterako, Irribarria eta Altuna pilotariak, gaur egun, profesionalak direnak,



Beloki Gatzagako frontoian. IMANOL BELOKI

izan dira jokatzeko Leintz Gatzagan.

Garai batean, akaso, zaletasun handiagoa zegoen?

Bai. Gogoan dut afizionatu mailako txapelketa bat antolatu genuela duela 25 urte, eta izugarria izan zen. Bai pilotarien partaidetza aldetik, eta baita ikusleen partetik ere. Gaur egun, berriz, Gatzagan eta Eskoriatzan behintzat, haur gutxiago ari dira; izan ere, beste kirol batzuetan ari dira gehiago. Futboleko, bereziki.

Gatzagako frontoiak, dena den, bizirik jarraitzen du?

Txapelketei dagokionez, ez hainbeste, baina jendeak erabiltzen du frontoia. Hala ere, gustatuko litzaidake kategoria txikietako Euskadiko Txapelketa egiten jarraitzea. Horretarako, haurrak animatu behar ditugu frontoian orduak sartzera...



2008an herriko pilotari gazteekin ateratako talde argazkia. JOSE INAZIO BELOKI



Ibargaraiko 4 eta 14 atarien artean izango da obra; maiatzean hasia aurreikusten da eta sei hilabete iraungo luke. JOKIN BEREZIARTUA

Ibargarai altxatu egingo dute, azpiegiturak berritu eta irisgarriago egiteko

Abuztuan ur-hoditerian izandako matxura bati "behin-behineko soluzio ona" eman ostean, Seminarioko patioaren pareko kale zatian esku-hartze integrala egingo du Udalak; maiatzetik urte bukaerara iraungo dute lanek, eta aurrekontua 450.000 euro da

Jokin Bereziartua BERGARA

Ibargarai kalearen 4. eta 14. zenbakien arteko eremuan, Miguel Altuna zaharraren eta Seminarioko patioaren pareko kale-zatian, berriro urbanizatzeko proiektua lizitazio fasean dago eta obrak maiatzean hasiko dira; lanek sei hilabete irautea aurreikusten du Udalak. Abuztuan ur-hoditeria apurtu zen bertan eta hortik eratorritako proiektua da BEB Arkitektura enpresak idatzi duena. Obrak 450.000 euroko aurrekontua du, eta ez dago dirulaguntzarik.

"Behin betiko" konponbide bila

Abuztuan izandako matxura baten ondorioz, ur-hoditeria apurtu eta arazo horri behin-behineko konponbidea eman zion Udalak, herritarrei "ahalik eta kalte txikiena" eragiteko: "Behin betiko konponbideak

lanketa sakona eskatzen zuen. Horregatik itxaron behar izan da, Ibargaraiko tramu horretan esku-hartze integrala egiteko". Horregatik, Udalak bertako ur-hoditeria berritu eta 4. eta 14. atarien arteko zatia erabat berriro urbanizatzeko proiektuaren idazketa esleitu zuen. Esandako moduan, BEB enpresak idatzi du proiektua eta dagoeneko lizitazio fasean dago.

Bizilagunen eta dendarien kezka Kokalekua eta egungo trafikoa eta oinezko fluxua ikusita, Udal Gobernuak aitortu du eraginak

BIZILAGUNEK ETA DENDARIEK OBRETAN PAIRATUKO DITUZTEN ARAZOEN GAINEKO KEZKA HELARAZI DUTE

ekiditea "ezinezkoa" izango dela. Hori bera helarazi dute atari horietako presidentekin eta kale zati horretan negozioa duten merkatariekin astelehenean, urtarilak 20, egindako bileretan. "Duda barik, halako obra bat etxe edo denda aurrean tokatzen denean kezkak sortzen dira, eta horiek azaldu zizkiguten bileratan. Batez ere, obrek iraungo duten denbora tartea da haien kezka; ahal dugun heinean saiatuko gara obra euren beharretara egokitzen. Uste dut ulertzen dituztela obra egin ostean inguru osoan izango diren onurak", esan du Gorka Artola alkateak.

"Ahalegin bereziak" egingo ditu Udalak etxeetarako eta dendetarako sarbideak egokitzeko –horiek beti bermatu beharko dituzte–, eta, kokalekua Ibargarai dela jakinda, "are gehiago", oinezkoen eta ibilgailuen trafikoa



Proiektua: autobus geltokia lekuz aldatuta eta oztopo batzuk kenduta. ZETABI

Amillaga berriro urbanizatuko dute

Udalak esku artean dauka Amillaga kalea berriro urbanizatzeko proiektua. Amillagan ere, Ondartzako biribilgunearen eta Enai kalearen artean, ur saneamendua eta espaloiak berrituko dituzte, eta irisgarritasuna hobetuko dute; irisgarritasuna hobetzeko proiektuak aurreikusten du, besteak beste, Laino skate parkearen pareko oztopo arkitektoniko bat kentzea eta eskailera txiki bat egokitzea. Horrez gain, Zetabi arkitektura bulegoak idatzitako proiektuan jasota dago Lainoren parean dagoen autobus geltokia lekuz aldatzea; hau da, geltokia herrigunetik 77 metro urrunduko dute. Erabaki hori ez zaio gustatu EAJri: "Halako erabakiak kontsultatu egin behar dira, eta autobusaren erabiltzaileekin alternatibak bilatu". Proiektua lizitazio fasean dago eta adjudikatu ostean sei hilabeteko exekuzio epea izango luke. Obrak udan hasia aurreikusten du Udalak.

bermatzen saiatuko dira. "Kalea ia-ia osorik altxatuko dugu eta eraginak izango dira, nahitaez".

Lanak lurpean eta lurrazalean

Lanen artean dago ur-hornidura eta kanalizazioa erabat berritzearena eta euri-urak jasotzeko sistema eraberritzearena. "Ur-sare nagusia eta etxeetarako hornidura sareak berritu egingo dira; fibrozementuzkoak diren instalazio zaharrak kendu egingo dira eta instalazio modernoak jarriko dira. Bestetik, alde zaharretik nahastuta datozen euri urak eta erabilitako ur zikinak banatzeko aprobetxatuko da; euri-urak zuzenean errekaratuko dira eta ur zikinak araztegira", zehaztu du Artolak.

Lan horiek guztiak egingo dira eraikinen aldean, eta interbentzioak izango dira etxebizitzaren ondoan, aparkalekuetan eta galtzada zati batean. Gainera,

ALDE ZAHARRETIK NAHASTUTA DATOZEN URAK BANATZEKO ERE APROBETXATUKO DUTE ESKU-HARTZEA

espaloia jatorrizko neurria hamabost zentimetro zabalduko da –baldosak gaur egungo berak izango dira–, eta irisgarritasuna hobetzeko zati horretako atari eta negozio bakoitzaren sarrerak aztertu dira banan-banan. Gaur egun eraikinen aldean dauden aparkalekuak, hogeitaz inguru, desagertu egingo dira.

Parkingarekin zerikusirik ez

Obra honek ez du zerikusirik aurreko agintaldian Seminarioko patioa eta Ibargarai berriro urbanizatzeko aztertu ziren aukerekin. Hain zuzen ere, lurpeko parkingaren proiektuaren berri eman ostean, ingurua berriro urbanizatzeko beste proiektu bat idaztea eskatu zuen EAJk, parkinga egin ostean exekutatuko litzatekeena. Hala ere, prozesua eten egin zuen EH Bilduk 2019ko uztaillean, Mugikortasun Plana amaituta izan arte; "tamaina handiko" proiektu hori gauzatu aurretik herritarrek nola mugitzen diren "zehatz" jakin nahi zuen egungo Gobernuak. Mugikortasun Plana negurako gertu izatea aurreikusten zuen EH Bilduk, baina atzeratu egingo da.

Jokoak jolasetik ezer ez duenean sortu den kezka

Eusko Jaurlaritzak araudia berritu arte apustu etxe berriak irekitzeko baimenik emango ez duela iragarri arren, hainbat dira gaiarekin kezkatuta dauden herritarrak; Lubaki taldeak, esaterako, hitzaldia antolatu zuen atzoko eta ekintzak iragarri ditu otsailera begira

Jokin Bereziartua BERGARA

2019ko irailean sortu zen Lubaki Langile Elkartasun Sarea, "kapitalismoak eragindako desoreken aurrean elkarri babes-teko" asmoz: "Langileok zapalkuntza mota asko pairatzen ditugun arren, guztiek dute errobera, sistema kapitalista. Zapalkuntza guztiak borrokatu eta gainditzeko, sistemaren osotasunean aztertu eta ulertu behar ditugu; horregatik, klase batasuna dugu oinarri". Bergararrak dira gehienak, baina badaude Antzuolako kideak ere.

Apustu etheen kontra, "irmo"

Elkartea sortu zutenetik zehaztutako lan ildoen barruan kokatu behar da atzoko hitzaldia: *Jokoa eta apustu etheen problematika*. Apustu etheen kontrako "jarrera irmoa" dute: "Pobretzen gaituelako, dependentzia sortzen duelako, alienatu egiten gaituelako eta kapitala elikatzen duelako, apustu etxeei ez!".

"Kezkagarriak" diren datuak

Atzoko hitzaldian hainbat datu eman zituzten, Igor Meltxorren *Hagan juego* izeneko dossierrean oinarrituta. Hala, eman zituzten datuen artean, "harrigarria" da Lubakiko kideen ustez 2013tik 2018ra Internet bidezko apustuak %463 igo izana Euskal Autonomia Erkidegoan. Ia epealdi berean, Meltxorren dossierreko datuen arabera, online jokaturako diru kopurua 24 milioi eurotik 121 milioi eurora pasatu zen: "Eta diru kopuru hori gora doa etengabe". Horrekin batera, fisikoki jokatzeko aukerak "ia mugagabeak" direla diote: "EAEn 2.100 apustu makinatik gora dago, horietatik 1.100 tabernetan, eta horietan zein Internet bidez adin txikikoek zailtasun handirik gabe joka dezakete".

Jokoaren edota haren atzean dauden dinamikek dependentzia sortzen dutela "jakinekoa" dela



Taberna bateko apustua; EAEn 1.100 taberna daude halako makinekin. XABI GOROSTIDI

**APUSTUAREN BATEZ
BESTEKO ZENBATEKOA
38,93 EURO DA
GIPUZKOAN; ESTATUAN
8,10 EURO DA**

adierazi dute apustu etheen kontra agertu direnek: "Osasunaren Mundu Erakundeak emandako datuen arabera, jokoarekiko dependentzia zutenen kopurua 270.000tik 860.000ra igo zen 2012tik 2018ra. Denbora tarte hartan, jokatzeko modua ere erabat aldatu zen; 2012an, %70ek arazoa txanpon makinekin zuten; eta 2018an, arazo nagusia kirol apustuek eragindakoa zen".

Gertuago etorrira, "kezkagarriak" diren beste datu batzuk ere eman zituzten atzo Lubakikoek, betiere Igor Meltxorren ikerketak iturri hartuta: "Apustuaren batez besteko zenbatekoa Gipuzkoan 38,93 euro da; Bizkaian 22 euro eta Araban 23,38 euro. Estatuko apustu bakoitzeko batez bestekoa 8,10 euro da". Eta joko-zalearen profila gero eta gazteagoa den seinale, beste datu esanguratsu bat eman zuten

atzo: EAEn laguntza eskatzen dutenen %34 18 eta 25 urte artekoak dira".

"Kaltea ez da ekonomikoa soilik"

Ondorioei begira, Lubakikoek diote eragina ez dela soilik ekonomikoa: "Apustuek gure familiak, lagunez eta, oro har, gizarteko arazoez urruntzea ere eragiten dute. Ezegonkortasunaren, lan prekarioaren eta noraezaren garai honetan, ilusioa eta esperantza sortzen du, edonork dirua modu errazean irabazi dezakeen ilusio faltsua sortuz".

Igor Meltxor ekartzeko lanean

Simon Arrieta plazan dago herriko joko areto bakarra, baina Lubakikoek diote taberna askotan daudela apustuak egiteko makinak. Apustu etheen kontrako elkarretaratzea egingo dute otsailaren 14an Irizar jau-regiaren atarian (20:00), eta, datarik zehaztu ez badute ere, Igor Meltxor gonbidatu nahi dute, hitzaldi bat eman dezan.

Gogora ekarri behar da, era berean, Jaurlaritzak apustu etxe berrietarako baimenak emateari utzi ziola urtarilaren 15ean, araudia berritu arte.

Aurrekonturako negoziazioak "bide onetik", EAJren ustez

Gobernuarekin "jarrera positiboa" dagoela diote, eta zuzenketa guztiak onartzea eskatu dute

J.B. BERGARA

Hurrengo asteleheneko osoko bilkuran eztabaidatzekoa den 2020ko udal aurrekonturako negoziazioetan "jarrera positiboa" dela diote jeltzaleek: "EH Bilduk 2020rako egindako aurrekontu proposamena aztertu ondoren, bederatzi zuzenketa aurkeztu genituen proposamena hobetzeko asmoz, bereziki Bergarako herritarren ongizatea azpimarratuz. Oraingoz, lauzpabost bilera egin ditugu Gobernuarekin, eta jarrera positiboa izan da, elkarriketarako eta Bergararen eta bergararren alde lan egiteko prestutasuna aurkitu da".

"Azkenera arte egingo dugu lan"

Negoizazioak "bide onetik" doazela adierazi zuten jeltzaleek eta bederatzi zuzenketak onartzea eskatzen diote Gobernuari: "Ezinbestekoa ikusten dugu bederatzi zuzenketetan akordioetara iristea alde bozkatzeko; azken egunera arte lanean jarraituko dugu". Zuzenketen artean, honako hauek aipa daitezke: 2020an jaiotakoei laguntza programa; hileta zibiletarako gun bat sortzea; lurpeko parkingaren proiektua ekonomikoki hornitzen jarraitzea; txakurrendako espazioetarako lan-mahai bat sortzea...

Gorlako kantinaren irekiera jaia egingo dute bihar, 12:00etan

2019ko urritik itxita egon ostean, bihar irekiko dute berriro ere Gorlako kantina. Raul Sanchezek eta Unai Barrenak hartu dute kantinaren ardura, hiru urterako, eta, hasiera batean, honako hau izango da ordutegia: egubakoitzetan, 16:00etatik 22:00etara; zapatuetan eta domeketan, 10:00etatik 22:00etara. Biharko irekiera jaia 12:00etan izango da.

Jardunen 30. urteurrenerako logo baten bila gabiltza

Lehiaketa antolatu dugu urtemuga irudika dezan; logoa aurkezteko azken eguna otsailaren 7a da

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Aurten 30 urte betetzen ditugu eta 30. urteurrena irudikatuko duen logo baten bila ari gara. Lehiaketa antolatu dugu horretarako eta lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 7a da. Edonork har dezake parte eta nahi beste logo aurkeztu, eta teknika librean izango da erabat. Hori bai, ez dugu onartuko inolako irudi sexistarik edota estereotipo sexistekin zerikusirik duen logorik zein bestelako elementurik.

Logoan ez da egilearen daturik jarriko; egilearen datuak –izen-abizenak, adina, telefonoa eta helbidea– gutun-azal itxi batean sartuko dira, eta gutun-azal hori eta logoaren marrazkia beste gutun-azal handiago batean sartu beharko dira. Posta elektronikoz bidaltzea erabakiz gero, bi fitxategitan berezizko da: alde batetik, logoaren marrazkia; eta, bestetik, egilearen datuak. Lanak gure Errotalde jauregiko bulegoan –Udal Liburutegian– aurkez daitezke, baita jardun@topagunea.com helbide elektronikoa ere. Saria 150 euro da, baina lehiaketa saririk gabe ere gera daiteke, epaimahaikoek hala erabakitzen badute.

MINDFULNESSA

8 saio

Larunbatetan

10:00etatik 12:30era

Hasiera, otsailak 15

Informazio gehiago:

FELIX (652 77 15 83)



Bergarako Bubisher elkarteak kideak, iaz. BUBISHER

Saharako errefuxiatuei janariz laguntzeko deia

Bubisher elkarteak gaur abiatu du, beste urtebetez, Sahararako janari bilketa; supermerkatuetan eta ikastetxeetan batu ostean otsailaren 20an abiatuko da kamioia Oxirondotik. Egoera okerrera doala diote: "Giza eskubideen ikuspegitik onartezina da"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Sahararen aldeko Bubisher elkarteak eta Udalak Sahararen aldeko XVI. Euskal Karabana abiarazi dute. Urtarrilaren 24an hasi eta otsailaren 8ra bitartean egingo dute janari bilketa Bergarako supermerkatuetan eta beste astebete luzatuko dute eskoletatik jasotzen duten ekarpenetarako epemuga.

Saharako errefuxiatuen eremuan egoera okerrera doa urtez urte, Bubisher elkarteak Aitziber Osak zehaztu duenez: "Krisi ekonomikoak nabarmen jaitsi zuen elkartasunerako joera, eta orduan ez gara bueltatu krisi aurreko kopuruetara; gobernuen eta udalen partetik jasotzen ditugun laguntzak ere murrizten joan dira, eta, ekarpenez gain, janari partidetan ere beherakada izan da azken urteotan. Ondorioz, malnutrizio eta anemia kasuak asko areagotzen ari dira". Osak gogora ekarri du zein den Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoan bizi duten egoera:

"Ahaztuta daude, baina hori baino okerragoa da. 44 urte darozate giza eskubideen ikuspegitik onartezina den egoeran. Erabaki politikoa da jende hori guztia hor egotearena. Izan ere, NBERen ebazpenak ebazpen, Espainiako eta Marokoko gobernuek ez dute kasurik egiten; han bizi diren sahararren giza eskubideak egunero ari dira urratzen, eta ez da ezer gertatzen".

Baliabide naturalen xahuketa

Ikuspegi humanotik "drama" bizi dela dio Osak, baina ez hori bakarrik: "Mendebaldeko Sahararen baliabide naturalak xahutzen ari dira. Arrantzatzeak aukerak, esaterako, gero eta murriztagoak dira; hemen jaten

GERO ETA ELIKAGAI GUTXIAGO HELTZEN DENEZ, MALNUTRIZIO ETA ANEMIA KASUAK AREAGOTZEN ARI DIRA

ditugun olagarroetako asko Mendebaldeko Saharako uretan arrantzatutakoak dira, esaterako".

Oxirondo azokatik Saharara

Janari bilketaren kanpaina Gabonetan egin izan dute orain arte Debagoienean, baina aurten atzeratu egin da. "2019 bukaeran, Saharako presidentea aukeratzeako kongresu bat egin zen eta horrek guztiak atzeratzea ekarri du; hortaz, denboraz oso justu gabiltza". Asmoa da janari bilketa asteburu honetan hastea supermerkatuetan, otsailaren 8ra arte. Ikastetxeetan otsailaren 14ra arte luzatuko dute bilketa eta Eskoriatzako eta Antzuolako sahararren aldeko elkarteak lankidetzara ere izango dute. "Oxirondon izango dugu janaria otsailaren 20ra arte, eta gero, Saharara bidaliko dugu".

Honako janari hauek dira bildu nahi direnak: arroza, pasta, babarrunak, garbantzuak, dilistak, hegazuza oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak.



NIRE USTEZ

ASIER ELORZA

Monarkia

Monarkiaren kontra nago, bai. Musean lau erregeak tokatuta ere, ez dut hordagorik botatzen handira... Batzuek horrenbeste miresten duten konstituzioaren enegarren artikulua ez du esaten, bada, denok berdinak garela? Non apuntatu behar da errege izateko? Erregeak nahi ditugula? *Derecho de pernada* berrezarriko nuke nik, Erdi Arora buelta: etorri *vascongadetara*, Felipe, eta ezagutu bertako neskak... Eta mutilak. Hau esanda, nola da posible gure bihotzeko futbol taldearen izena Real Sociedad izatea? Ze izen klase da hori? Eta gaztelaniaz, gainera? Oraintxe aldatuko nuke nik: *Ñoñostiarrrak* edo *Giputxasko*, adibidez. Eta Athletic? Bizkaitarrak ez dira *brexit*-arekin enteratu, ala? *Atzetik* edo *Gabarrabarik* izan daitezke izen egokiagoak. Gasteizko taldearen izena euskaratu egingo nuke: Alaves=Batera. Eibarren izena ere alda dezakegu; kalean dagoen giroa ikusita, *Hey Bar* izan daiteke. Euskarak arazo gehien duen probintzian, ezin da hitz politagorik aukeratu: Osasuna... Ole nafarrentzat. Nondik hasi naizen gogoeta hauekin? A, bai... osasun ona opa dizuet denoi, monarkiari izan ezik: *Altza Felipe, tru la lai!*

Auto batek su hartu zuen AP-1 errepidean, iparraldeko sarbidean

AP-1 errepidearen iparraldeko sarbidean auto batek matxura izan eta su hartu zuen astelehenan, 08:00 aldera. Suhiltzaileak heldu zirenerako autoa kiskalita zegoen. Ezbeharrak ez zuen eragozpen handirik eragin; denbora tarte batez itxita egon zen sarbidea, Eibarko noranzkoan, baina 09:00etan ireki zuten berriz ere. Ez zen zauriturik egon.



Autoa erreta, AP-1 errepidean. ANDONI GOITI

OHARRAK

San Paulo jaiak asteburuan Ubera auzoan

Gaur hasi eta domekara bitartean, askotariko ekintzak izango dituzte. Ekitaldien artean, honako hauek antolatuta dituzte: gaur, trikiti afaria Maialen Arzallus eta Arkaitz Allurrekin (21:00); bihar, tarta eta tortilla lehiaketak, auzo bazkaria, puzgarriak, mozzorro festa eta AZ Gaubelarekin dantzaldia izango dituzte, besteak beste; domekan eguerdian, Alai taldekoen kantak eta Moises Azpiazu taldeko dantzarien erakustaldia izango dituzte.

'Domeketan familian gozatzen': San Blas opilak

Urtarrilaren 26an Oxirondon egongo dira, 11:30etik 13:30era.

Zumba saioa egingo dute Xabalote gaztelekuan

Bihar izango da, 17:30etik 19:30era, eta ez dago aldeztu aurretik izena eman beharrik. Arropa eroso eta eramatea gomendatu dute.

Xaxau: Pentekosteak antolatzeke lehen bilera

Bihar egingo dute lehen bilera irekia, kartzela zaharrean (10:30).

Mus txapelketa gaur Depor tabernan (22:00)

Zortzi erregetara jokatu dute eta izena eman behar da ordu erdi lehenago. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du.

Bergarako saskibaloitaldeak, "bide onetik"

Bergara kirol elkarteko saskibaloitaldeak "denboraldi ona" egiten dabilta. Hala adierazi dute saskibaloitailerik, eta, batez ere, hiru talderen lana azpimarratu nahi izan dute: senior mutilak, senior neskak eta errendimendu mailako gazte neskena

Jone Olabarria BERGARA

Bergarako saskibaloitaldeek gogoz hasi zuten denboraldia eta emaitza "politak" lortzen dabilta, taldeko lehendakari Marian Melladok azaldu duenez. Orokorrean talde guztiak "bide onetik" doazen arren, hiru taldek egindako lana nabarmendu du.

Errendimendu mailako gazte neskak "ederto" aritu dira denboraldiko lehen fasean Melladoren esanetan: "Euskal Ligarako iguera fasea jokatzeko pare bat puntura geratu dira. Dena den, oso hasiera ona egin du talde honek, eta orain, errendimendu fasean lehiatzen jarraitzea tokatzen zaigu, gogotsu".



Errendimendu mailako gazte taldea. BKE SASKIBALOIA

Seniorrak, "indartsu"

Senior mailako neskak denboraldi "oso ona" egiten dabiltzala adierazi du Melladok, eta Lehen Mailan jokatzeko postu baten bila lehian jarraituko dute: "Une honetan, laugarren postuan daude, hirugarren postuarekin berdinduta. Puntu bakarra ateratzen die bigarren sailkatuak, eta bi lehenak". Asteburu honetan Cafes Aitona taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Mutilen kasuan, seniorrak ere "txukun" dabiltzala azaldu du, eta Lehen Mailara igoko lituzkeen lauko finala jokatzeko lehian ari dira: "Seigarren postuan gaude une honetan, aurrekoek puntu bakarra ateratzen digute eta, oraindik aukerak ditugu lauko finala jokatzeko".

Eskola mailak, osasuntsu

Txikiaren kasuan, hainbat talde dituztela adierazi du Melladok, baita azken asteetan haur ugari batu direla harrobira: "Saskibaloitailerik dagokionez, 50 bat haur dabilta gurean, zifra polita, eta hiru talde ditugu txapelketa mailetan: bi alebin mailan eta bat benjaminetan".

Hainbat partidu asteburuan Udal Pilotalekuan

Gaur, hilak 24, binakako lagunarteko partidua izango da frontoian: 19:30ean hasita, Izagirre eta Olano, Agirreren eta Ilarduaren aurka. 20:00etan, Binakako Udaberria Txapelketako kadeteetan, Bergarak eta Beasainek neurtuko dituzte indarrak. Bihar, 15:45ean hasita, eskolarteko txapelketaren bigarren fasea jokatu dute benjaminek.

Eskubaloitaldeek lau hitzordu dituzte asteon Labegaraletan

Bihar, hilak 25, hiru partidu hartuko ditu kiroldegia; gazte mutilak 11:00ean jokatu dute, bigarren territorial taldeak 13:00etan eta kadete neskek 19:30ean. Domekan, infantil B neskak arituko dira, 11:30ean. Era berean, lehen territorial taldeak Elgoibarren jokatu du zapatuan, 19:30ean, eta gazte mutilak Hernanin, 11:00etan.

Debagoieneko GREMIOAK

AROTZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

• Iturgintza eta gasa

• Berogailuak eta petrolio-produktuak

• Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

• Instalazioen mantentze-lan guztiak

• Berokuntza eta gasa

• Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

• Barnuko zein kanpoko lorezaintza

• Ureztatze sistemak

• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Muga gabeko punk-oi! doinu gazteen eztanda

Duela urtebete pasa ekin zion bideari Bergarako No Limits talde gazteak. Bost lagunez osatuta, gaztetxean egin zuten debut-kontzertua iazko martxoan eta ordutik hona kontzertu ugari eskaini dituzte; otsailean, hiru kantu grabatuko dituzte

Jone Olabarria BERGARA

"Ikasteko asko eta esperientzia berriak bizitzeko gogoz beteriko" Bergarako talde gaztea da No Limits. Hala deskribatzen dute euren burua Oier Jauregik, Jon Maiztegik, Erik Herranek, Ibon Muniategiandikoetxeak eta Gorka Azkargortak, No Limits taldeko kideek. Bost lagunek osatzen dute eta punk-oi! doinuak jorratzen dituzte, musika estilo honek Debagoienean izan duen emaria agortu gabe dagoela erakutsita.

Orain dela urtebete pasa ekin zioten musika proiektu honi, 2018ko abenduan: "Lagunak aspalditik egon gara talde bat sortu nahian, baina ez genuen horretarako esfortzurik eginen. Azkenean, bi-hiru lagun elkar-tu eta horretaz serio berbetan hasi ginen". Ordutik hona, instrumentuak erosi ostean, "hutsetik" hasi ziren gazteak, material "eskasarekin" eta taldeki-de baten baserrian "zarata ateratzen".

Lehen kontzertua, "ahaztezina"

Bergarako gaztetxean egin zuten, 2019ko martxoaren 30ean, lehen kontzertua. Jende ugari gerturatu zen euren lehen zuzeneko ikustera, egun hartan Bergaran egin zuten Ikasle Egunaren baitan. Orduko oroitzapenez galdetuta, "jasotako berotasuna" azpimarratu dute gazteek: "Esperientzia ahaztezina izan zen. Batez ere, bertan zeudenen berotasunagatik eta jendearen ilusioagatik. Agertoki gaian asko disfrutatu genuen; ahaztuko ez dugun kontzertua".

Lehen aldiz taula gainera igo ziren egun hartatik, hainbat kontzertu eta esperientzia bizi izan dituzte bergararrek; Antzuola, Oñati, Arrasate, Soralue, Oibar (Nafarroa), Aretxabaleta, Angiozar... Izandako leku guztietan "oso ondo" hartu dituzte, eta, aitortu dutenez, ez



Kartzela zaharrean egindako debut kontzertuaren irudiak. IMANOL SORIANO

"JARRAITZAILEEN BEROTASUNA ASKO ESKERTZEN DUGU, HOR EGOTEAK BALIO HANDIA DU GURETZAT"

zuten halako harrerarik espero: "Jendea gozatzen ari zela ikusten genuen kontzertuetan, eta hori izugarria da guretzat".

Lanean jarraitzeko asmoz, astero batzen saiatzen dira, behin, gutxienez, eta goiko estazioko lokalean entseatzeko dute; Jauregi eta Maiztegi gitarrarekin aritzen dira, Erik Herranek baxua jotzen du, Ibon Muniategiandikoetxeak bateria eta Gorka Azkargorta abeslari aritzen da. Urtebete pasa honetan "esperientzia hartuz" joan dira: "Hutsetik hasi eta zerbait ikasteko prest gaude beti. Gogorik ez zaigu falta; beraz, poliki-poliki gorako bidean jarraitu nahi dugu".

Jarraitzaileen garrantzia

Hasiera-hasieratik jarraitzaile fidelak izan ditu taldeak, iaz martxoan kartzela zaharra bete

zuten haietatik, egun kontzertu ezberdinetara jarraitzen dituztenetaraino. Taldeko kideen esanetan, "bereziki" baloratzen duten zerbait da: "Askok eskertzen dugu kontzertuetara etortzen direnen berotasun eta sostengua, lagunak, familia... Kontzertuz kontzertu hor egoteak balio handia du eta horrela segitzea espero dugu".

Otsailean, hiru lan berri

Iaz martxoan grabatu zuten *Zarata ateratzen* lehen lanaren ostean, otsail hasieran hiru kantu grabatu behar dituzte No Limits taldekoek, orain arte egindako lanak partekatze asmoz. Hiru abesti izango dira eta bakoitzak "bere gai propioa" izango duela aurreratu dute: "Gure egunerokotasuna eta pentsaera irudikatzen dituzte".


Proiektu berriekin esku artean, eta orain arteko erritmo berean, kontzertua eskainiko dute otsailaren lehen zatian, kartzela zaharrean. Bidea eginen segin nahi dute, eta argi dute zein den euren izaera: "Gogo handiz betetako Bergarako talde gaztea gara eta aurretik datorkiguna ilusio handiz itxaroten gaude".

"Gaztetuta" dator Musika Banda urtarrileko kontzertuan

Domekan eskainiko du Bergarako Musika Bandak urtarrileko kontzertua, 12:30ean, pilotalekuan

J.O. BERGARA

Enrike Txurrukaren gidaritzapean urtarrileko kontzertua eskainiko du Bergarako Musika Bandak domekan, hilak 26, Udal Pilotalekuan, 12:30ean hasita. "Eskaintza zabala eta askotarikoa" prestatu nahi izan dute, "entzuleen gustukoa" izateko asmoz: Pascual Marquina-ren *Cielo Andaluz*, Philip Sparke-ren *Concert Prelude*, *Scarborough fair*, Georg Friedrich Haendel-en *Water Music*, Miguel Gonzalez Bastidaren *Lorea* eta Erik Clapton-en *The Flower of Clapton*.



iazko kontzertu bateko irudia. GOIENA

Hamar musikari gazte

Bandako ordezkariak adierazi dutenez, 2020. urtea "gaztetuta" hasi dute; izan ere, 2019 bukaran hamar musikari gazte sartu ziren Musika Eskolatik: hain zuzen ere, Ion Aranburu eta Hodei Murgizu perkusioarekin

arrituko dira, Ane Azkarate oboearekin, Alain Ayastui eta Lia Ayerbe saxoarekin, Alaine Egizabal flautarekin, Itxaso Villar eta Aitor Arzelus klarinetearekin, Unai Laskurain bonbardinoarekin eta Oihana Laskurain tubarekin.

Martxan da Koldo Eleizalde literatura lehiaketan 35. aldia

Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen Koldo Eleizalde lehiaketak 35. aldia beteko du aurten, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea. Aurreko urteetako generoak mantenduko dira aurten ere: ipuin idatzia, komikia, bertsoa, ipuin-kontaketa, antzerkia, txisteak eta poesia. Lanak aurkezteko epea apirilaren 24ra artekoa izango

da eta Bergaran jaiotakoek edo bertan bizi direnek zein ikasi edo lan egin dutenek har dezakete parte.

Idatzizko lanak –ipuin idatzia, poesia, komikia, bertso idatzia...– paperean aurkeztu behar dira Bergararren Arreta Zerbitzuan; eta ikus-entzunezkoak –antzerkia, ipuin-kontaketa, bertso kantatua, txisteak...– Internet bidez aurkeztu behar dira www.bergarakoeuskara.eus webgunean. Sari-ematea Seminarixoa egingo dute, ekainaren 6an.

Dama Beltzak taldearen musika bihar Seminarixoa

Emanaldia eskainiko du bihar arratsaldean, 19:00etan, Dama Beltzak taldeak Seminarixoa. Musikaren bitartez iraultza eta borroka eginen zuten dama beltz haiei omenaldia da Dama Beltzak. Estitxu Pinatxoren ahotso oinarri, pianoarekin eta gitarrarekin lagundutako historia musikala kontatu nahi du taldeak. Sarre-ra 8 euro da.

Txistulari bandaren kalejira Uberan, San Paulo jaien baitan

Gaur hasi eta domekara bitartean ospatuko dituzte Uberan San Paulo jaiak, eta, horien baitan, kalejira egingo du Bergarako Txistulari Bandak auzoan zehar domekan, 10:00etan hasita. Ostean ere, 12:00etan, Alai-taldearen emanaldia egongo da gozagai eta 12:15ean Moises Azpiazu dantza taldeko kideek ere eskainiko dute emanaldia.



dks'19
DEBAGOIENEN
KIROL SARIAK

Mankomunitateko udal bakoitzak bere herriko kirolari, elkarte edo ekimena sarituko du.



ANTZUOLA SARIA
Aitor Mendizabal



ARAMAIO SARIA
Aitor Ugarte



ARETXABALETA SARIA
Oihana Aldai



ARRASATE SARIA
Fernando Zufiria 'Txufi'



BERGARA SARIA
Josetxo Muniategi



ELGETA SARIA
Iñaki Olaortua



ESKORIATZA SARIA
Narciso Pavo



LEINTZ GATZAGA SARIA
Joxe Inazio Beloki



OÑATI SARIA
Markel Irizar

SARI BANAKETA ZUZENEAN:

GOIENA TELEBISTAK ZUZENEAN ESKAINIKO DU ETA
GOIENA.EUS ATARIAN STREAMING BIDEZ ESKEINIKO DA

URTARRILAREN 28AN, 19:00ETAN, BERGARAKO SEMINARIKOAN

**SARI NAGUSIEN
BABESLEAK:**



HERRITARREN SARIA

ekidegroup

KIROLARI ONENAREN SARIA

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA
TALDE ONENAREN SARIA



SARI BEREZIA



KIROL IBILBIDEAREN SARIA



Herritarrak goizeko erosketetan herriko erdigunean. MAIDER ARREGI

Bizirik dagoen herri inklusibo baten alde

Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenengoz jarri du martxan 'Inklusibe' programa. Antzuolako herria aukeratu du lehen proba gisa eta jada herritar talde bat hasi da batzarrak egiten. Helburua bazterkeria egoeran dauden herritarrak identifikatzea da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Lehenengoz eta proba pilotu gisa, *Inklusibe* programa jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak Matia fundazioaren gidaritzapean. Helburua inklusioan nahiz bazterkeria egoeran daudenak identifikatzea da. Modu horretan, bazterkeria egoeran sentitzen den kolektiboari ahotsa ematea eta herrira gerturatzea gura dute.

Herritar talde bat dagoeneko hasi da batzarrak egiten Matia fundazioak dinamizatzailerekin. Lehen urratsak egin dituztela azaldu du Gizarte Ongizate zinegotzi Josune Martinez Ramirezek: "Herrian jendarte orokorra aztertu gura dugu. Hala, dauden inklusio eta bazterkeria egoerak aztertuko ditugu saio ezberdinetan. Horretarako, lehenik eta behin, definitu behar dugu guretzako zer diren inklusio eta bazterkeria egoerak. Hala, bazterkeria egoeran egon daitekeen kolektibo hori herriko mugimendura gerturatzeko".

Talde zabala

Diputazioko Matia fundazioak dinamizatzen ditu saioak. Batzarrak hileroko egiten dituzte, eta egitasmoak zein bide hartuko duen parte hartzaileek adostuko dutela dio Martinezek: "Askotariko esparruetako eragileek osatzen dute taldea: dantza taldeko kideak, Anelkarkoak, mugimendu feministaren ingurukoak, enpresatan dihardutenak, futbol taldeko kideak... talde polita eta konpromisoduna sortu dugula uste dut".

Herri konprometitua

Antzuolan bada aurrekari bat: Herri Lagunkoia programa, hain zuzen ere. Hau ere, Matia fundazioak herriko nagusien ongi-

"BAZTERKERIA EGOERAN DAGOEN KOLEKTIBOA HERRIKO MUGIMENDURA GERTURATU GURA DA"

zatea ardatz herri atseginagoa eraikitzeko asmoz gidatu zuen programa. Eta Antzuolan ekimen honek izandako arrera aparta ikusita, Matia fundazioak *Inklusibe* ekimena ere Antzuolan abiarazteko zalantzarik ez du izan. "Herri Lagunkoia balorazio eta hausnarketa oso ona izan zuen. Asmoa da behin Antzuolan egin ostean Donostiara eta Lasartera ere zabaltzea".

Emaizak, ekainean

Inklusibe programak adinekoak ditu abiapuntu. Hala ere, sortutako talde eragileak ondorioztatzen dituen beharren arabera jokatu du eta jarriko du arreta. "Taldea jarriko du norabidea, eta bazterkeria egoeran sentitzen diren herritarrei ahotsa eman go zaie. Denen artean bizirik dagoen herri inklusiboa eraikitzen joatea da asmoa".

Ondorioak jasoko dituen txostena ekain aldera aurkeztuko du Gipuzkoako Foru Aldundiko Matia fundazioak".



TXOMIN MADINA

Herri Eskolari aitortza

Andoni Argiñanok herritarren aurrean aurkeztu du Herri Eskolako bilakaera eta herrikuntza pedagogikoaren bidean egindako lana. Hark dio Antzuolako eredu pedagogikoaren indarguneetako bat dela garaia aldatzen joan diren heinean horietara egokitzeko izan duen gaitasuna. Gaineratu du mantendu gura bada neurriak hartu beharko direla.



ARROLA

Ibilera nordikoaz gozatzen

Xabier Madina irakaslearen gidaritzapean, 14 lagunek ibilera nordikoaren gaineko ikastaroa jaso dute. Alde teorikoaz gain, mendiko makilak hartu eta praktikan jarri dute Kaxeta inguruan. Ikastaroak izandako harrera ona dela eta bigarren saioa antolatu du Arrolak, otsailaren 1erako. Plazak mugatuak dira eta izena eman beharko da: arrolamt@gmail.com.

Pentsio eta bizitza duinak aldarrikatzeko aldarrikapenak

Lan, pentsio eta bizitza duina lelopean urtarilaren 30ean egingo den greba orokorraren baitan, bihar, zapatua, Elorregira martxa egingo da. 10:00etan autobus geltokitik irten eta Bergararekin bat egingo du ondoren Elorregira joateko. Astelehenean, batzar irekia egingo da, 18:00etan, Olanaren, eta hilaren 29rako, 21:30ean, lapiko jotzea deitu dute.

Herriko mus txapelketako finala jokatu da domekan

Antzuolako azken kanporaketa jokatu zen iragan asteburuan Arin jatetxean. Josue Madariagak eta Joxi Beltranek osatutako bikoteak eskuratu zuen finalerako txartela. Hala, herriko mus txapelketako finala Gorosti taberna jokatu da domekan, urtarilaren 26an, 16:30ean hasita. Guztira, sei bikoteak parte hartuko dute finalean.



Elikagaiak batzeko Eroskin jarritako gunea. MARTA SANCHEZ

Abian da Sahararen aldeko elikagai kanpaina

Urtarrilaren 27ra arte, saharar errefuxiatuei laguntza bidaltzeko helburuarekin, herritarrek hainbat gunetara oinarritzko elikagaiak eramateko aukera izango dute. Otsailean abiatuko da elikagaien karabana solidarioa Tindufeko kanpalekuetara, Aljeriara

Maidar Arregi ANTZUOLA
Sahararen aldeko XVI. elikagaien bilketa kanpaina abian da. Aurten ere Anelkarrek, Herri Eskolak, Udalak eta Sagiri elkarteak indarrak batu dituzte eta herritarren errefuxiatuek bizi duten egoeraren sentsibilizazioan eragin dute. "Jasaten duten egoerari aurre egiteko, gure laguntza beharrezkoa dute. Aurten ere

arroza, lekaleak, azukrea, atuna, sardinak oliotan, pasta, olioak, helduendako pixoihalak eta konpresak batu gura ditugu -iraungitze-datari erreparatu-. Hilaren 27ra arte, Amaia, Denetik, Eroski dendetan eta Eskolan batuko dituzte elikagaiak. Laguntza Ekonomikoak ere jasoko dituzte: Euskadiko Kutxa, 3035 0080 94 0800054177.

Karabana solidarioa
Otsailean abiatuko da elikagaiz beteriko karabana solidarioa Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetara, Aljeriara. "Kanpalekuetako egoera oso larria da; horregatik, herritar ororen beharra eta elkartasuna zinez garrantzitsua da. Laguntza ororen beharra daukagu", azaldu dute Anelkarko kideek.

460,5 kilo elkartasun iaz

2019ko kanpainak erantzun ona izan zuen. Guztira, 29 kaxa eta 460,5 kilo elikagai batu ziren iaz Antzuolan. "Antzuolarrek erantzun bikaina ematen dute beti; Sahararekiko elkartasuna oso errotuta dago herrian eta urtero egiten den elikagaien bilketan erantzuna ere oso ona izaten da", aitortu diote GOIENARI Anelkarko ordezkariak.



Anelkar eta Sagiriko kideak iaz batutako kaxak antolatzen, Orlanen. ANELKAR

NIRE USTEZ

AITZOL ITURBE

Nik ere greba!

Euskal Herrian ere datuak gordinak dira. 437.000 pertsona bizi dira pobrezian edo atarian. 157.000 pertsona daude langabezian izena emanda, 80.000k ez dute inolako laguntzarik jasotzen. 700.000 pentsiodun daude, 354.000k 1.000 eurotik beherako pentsioa jasotzen dute. Kontratuen %92 behin-behinekoa da, horien %76 emakumeenak dira. Emakumeek gizonezkoek baino %24 gutxiago kobratzen dute...

Zerbitzu publikoen egoeraren adierazle, berriz, EAEko hezkuntzaren inguruko hainbat datu: 2008tik hona matrikulazioek gora egin dute, eta ikasgela kopurua gutxitu egin da; 2009an BPGaren %4,3 zuzentzen zen hezkuntzara, 2017an %3,6; Europako 29 estaturen artean EAE bat gehiagotzat hartuko bagenu, 30etik 28. postuan legoke hezkuntzara bideratzen duen BPGaren zatiaren arabera.

Mila datu eman daitezke. Egoera larria da, oso injustua, eta interes orokorraren aldeko politika publikoak behar ditugu. Baliteke zuk, nik bezala, oraindik miseria gordina gertuegitik ez ezagutzea, baina gaur auzoan dabilena bihar etxe barruan izan genezake.

Emakume Master Cup-eko partidua otsailaren 1ean

Pasa den urtarrilaren 18an eman zitzaion hasiera, Ataunen, Laboral Kutxa Emakume Master Cup 2020 txapelketari.

Edizio honetan, 94 pilotari ariko dira jokoan eta txapelketan 47 bikote osatu dira. Tartean daude antzuolarrak ere: Leire eta Nagore Galeano ahizpak eta Olatz Insausti, hain zuzen ere. Herriko pilotariak etxean joka-

tzen ikusteko aukera ere izango da aurten: otsailaren 1ean, zapatuan, arratsaldeko lau eta erdietan hasita jokatuko dirakanporaketak Antzuolako Udal Pilotalekuan.

Pilotari antzuolarrek 16 urtez azpikoen promozio txapelketa jokatu dute. Galeano ahizpek bikotea osatu dute eta Insaustik Uharteko Eider Salbide pilotariarekin jokatu du kanporaketa.

Otsailaren 1ean, lau kanporaketa jokatu dute.

OHARRAK

Zine emanaldia

Filmazpit-en eskutik, *Futamukaz* film azpigituluduna izango da ikusgai Torresoroan domekan, 18:30ean.

'Nigan' saioa

Barnekotasuna lantzeko *Nigan* saioa egingo da hilaren 28an, martitzena, Orlanen, 18:30etik 20:00etara bitartean. Izena emateko, deitu (669 13 29 00) edo idatzi: nigan@yahoo.com.

Eskolako argazkiak

Eskolarekin zerikusia duten argazkiak kultura zerbitzuan jaso daitezke urtarrilaren 30era arte. Helburua da hezkuntzaren historia argazkiekin jaso eta erakustea.

Derbia Mojategin

Domekan, Mondra izango du Antzuolak aurkari Mojategin, 16:30ean. Bi taldeek hamaseina puntu dituzte sailkapen orokorrean.

Tripontzia: sariak

Gure Eskuk antolatutako Tripontziaren lehen zenbaki saritua 17.541 da; bigarrena, 24.628; eta hirugarrena, 8.121.

Egun osoko festa auto gidarien eskutik

Otsailaren 8an izango da Mendi Mendia Racing jaialdiaren laugarren edizioa. Auto erakusketa, bazkaria eta kontzertuak iragarri dituzte. Nabarmentzekoen artean da Ostiada Oi! taldearen kontzertua. Zuzenekoa prestatzen ari da talde elgetarra

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Mikel Beretxinaga, Oskar Sarasua eta Asier Unzetabarrenetxea hasita daude denboraldi berria prestatzen. Ez daude bakarrik; izan ere, hiru auto gidariak hainbat lagun eta zale dituzte inguruan. Autoak prestatzen ari dira egunotan: alde batetik, laster hasiko direlako denboraldi berriko lasterketak; eta, bestetik, azken urteotan moduan ate joka dagoelako Mendi Mendia Racing jaia.

Otsailaren 8rako iragarri dute egun osoko jaia. Auto erakusketa, bazkaria eta goizaldera arteko kontzertuak prestatu dituzte. "2017an, 60 bat lagun izan ginen. Iaz, berriz, 165. Urtean urtean gora doa elkartzen den jende kopurua. Ea aurten ere jendea animatzen den", adierazi du Oskar Sarasuak.

Aurreko denboraldia ez zen denendako berdina izan. "Ondoen Mikel Beretxinaga ibili zen", azaldu du Sarasuak. "Autoak, oraingoz, garajea daude. Iazko berdinak izango dira".

Unzetabarrenetxeak BMW M3 e36 autoa gidatuko du, Mikel Beretxinagak BMW e36 325i autoa, eta Adrian Gorostiza izango du aurten kopilotu lanetan. Oskar Sarasuak, berriz, Citroen Saxo 16v bat gidatuko du.



Elgetako hiru gidarietako bi, Beretxinaga eta Sarasua, lasterketa batean. M.M.RACING

Otsailaren 8a: egitaraua

- **11:00** Ibilgailu klasikoek topaketa, plazan.
- **12:00** Triki-poteoa.
- **13:30** Argazkia, plazan.
- **14:00** Bazkaria, antzokian.
- **21:30** Kontzertuak: Ostiada Oi!, Barne Guda, Azken Sustraiak eta DJ MTR, antzokian.

Txartel salmenta martxan da

Mendi Mendia Racing jaiko egitaraua aurreko urteetako antzerakoa da. Auto erakusketan, hori bai, auto klasikoak izango dira aurten. "Gure hiru autoak plazan izango dira, eta horiekin batera 25 urtetik gorako auto klasikoak", azaldu du Sarasuak.

Otsailaren 5a da txartelak erosteko azken eguna. Bazkari-rako txartela, kontzertuak barne, 18 euro da. Kontzertuetarako sarrera, berriz, 5 euro da. El Rincon de Lolan, Bergarako Arranoan edo 608 67 64 42 tele-

fonora deituta eskura daitezke. "Kamisetak ere aterako ditugu aurten", jakinarazi dute.

Jaialdian bildutako diruaren zati bat umeen gaitz larrien edo onkologikoen ikerketa bultzatzea helburu duen Super H elkartera bideratuko dute. Gainerakoa izango da lehiaketetara laguntzera hurbiltzen diren adiskideen dietak eta autoen bestelako gastuak ordaintzeko.

Intxortako rallysprinta

Denboraldiko egutegia zehazteko dute Elgetako auto gidariak.

Aurten, ordea, albiste da uztai-lean jokatzekoa den Intxortako rallysprinta. "Erlojupeko zatia zein izango den ez dakigu. Baita Angiozar-Kanpanzar izatea. Amasgas da antolatzailea. Euskadiko txapelketarako proba puntuagarria izango da".

AZKEN DENBORALDIA EZ ZEN DENENDAKO BERDINA IZAN, MIKEL BERETXINAGA IBILI ZEN ONDOEN

Elgoibarrera, jaiotza ikustera

Goiena komunitatea

Eguneko zentroa / ELGETA

"Joan den astean, Elgoibarrera gerturatu ginen, hango jaiotza mekanikoa ikustera, urtero bezala. Asko gustatu zitzaigun, eta han eskainitako tratua eskertu nahi dugu", adierazi dute Elgetako eguneko zentrotik. Sei erabiltzaileekin egin zuten Elgoibarrerako joan-etorria.



ELGETAKO EGUNeko ZENTROA

Zuzendaritza berria Ozkarbin

Aurreko astean egin zuten urteko batzar orokorra Ozkarbi elkartearen. Bertaratutako bazkideek horrela erabakita, Zuhaitz Uzuriagak hartu du presidente kargua, Oxel Erostarberi erreleboa emanda, eta lagun berriak sartu dira zuzendaritzan. "Sorrerako norabideari heldu behar zaiola esan dute bazkideek, eta horretan ari gara", adierazi du Uzuriagak.



GORKA ARIZMENDIARRIETA



Ostiada Oi! taldea Elgetako gaztetxean 2013ko abenduan. GOIENA

Ostiada Oi! berriz ere taula gainean

Mendi Mendia Racing jaiak izango du, aurten, beste berezitasun bat. Ostiada Oi! talde elgetarrak kontzertua egingo du Espaloian. Urteak dira ez dutela horrelakorik eginen. 2013ko abenduan egin zuten azken emanaldia, Elgetako gaztetxean. "Jotzeko eskatu digute, eta aurten animatu egin gara. Laurok, gainera", adierazi du taldeko Iker Valle. Hala, Josu Azkarate, Aritz Macarro, Aniotz Virumbrales eta Iker Valle izango dira agertoki gainean. "Gogotsu gaude, baina ez da erraza. Ez dugu materiala lehen moduan eta entseguak egiteko elkartzea ere zailagoa da orain". Kaleko Urdangak taldearen Azkoitiko lokalean hasi dira entseatzen. Betiko kantak joko dituztela adierazi du Valle. Beste bi talde ere izango dira kontzertuan: Bergarako Barne Guda eta Elorrioko Azken Sustraiak. Ondoren, DJ MTR izango da antzokia girotzen.

"Gurasoek ezin dute irakasleen papera hartu"

JOXE AMIAMA IBARGUREN PEDAGOGIAN DOKTOREA

Goieskolako Jardunaldi Pedagogikoen baitan, 'Irakasle al naiz nire etxean? Laguntza motak etxeko lanetan' hitzaldia eskaini du pedagogoak Elgetako Eskolan

Jone Olabarria ELGETA

Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko kide da Joxe Amiama Ibarguren pedagogian doktorea. Eguaztenean izan zen Elgetako herri eskolan, eta *Irakaslea al naiz nire etxean? Laguntza motak etxeko lanetan* hitzaldia egin zuen. Amiamaren esanetan, "kalerako beharko lukeen denbora bat eskolari eskaini izan zaio historikoki, etxeko lanei. Hala beharko luke?". Abiapuntu horretatik hasi du Amiamak hausnarketa.

Beharrezkoak dira etxeko lanak?

Hainbat aldagai izan behar dira kontuan: alde batetik, edadea dago; eta, bestetik, tipologia. Ikerketa ugari egin dira, eta haurrak txikiak direnean ez da funtzionala etxeko lanak bidaltzea. Tipologiari erreparatuta, ariketa mota guztiak ez dira denentzat erabilgarri. Helburua ondo finkatu behar da etxeko lanak bidaltzen direnean, hori lortzeko bide egokia aurkitu.

Etxeko lanak bidaltzekotan, zenbat denbora eskaini?

Hasteko, gogoratu behar dugu kalerako denbora bat erabiltzen ari garela. Ez dago loturarik denboraren eta baliagarritasunaren artean. Batzuek denbora gutxiarekin errendimendu handia ateratzen dute eta beste batzuek nahiz eta denbora asko sartu ez dute denbora hori aprobetxatzen. **Tipologiari erreparatu behar diogu orduan...**

Denbora ez da aldagai garrantzitsu bat. Tipologia bada klasean egindakoa errepikatzea, eta dagoeneko umeak baldin badaki, demagun zatiketak egiten, hamar bidaltzen badira, seigarrenean dagoeneko aspertuta egongo da, badakielako. Aldiz, haurrak ez badaki zatiketak ongi egiten, berdin da hamar edo hoge bi-dali, ez du jakingo. Hainbat familia edo ikastetxetan oraindik uste dute ordu erdirekin



Amiama, eguaztenean, Elgetako Herri Eskolako hitzaldian. LARRAITZ ZEBERIO

"DENBORA EZ DA HAIN GARRANTZITSUA ETXKO LANETAN, HELBURUA ETA MOTALANDU BEHAR DIRA"

nahikoa ez bada ordu bat sartu beharko duela. Horrek ez du emaitza bermatuko.

Gurasoen kasuan, zer paper jokatzen behar dute?

Oso garrantzitsua da argi izatea eskola sistema bat dela eta etxea edo familia beste bat. Eskolan, irakasleak, mahaiak, arbelak... daude eta irakasleek harreman kurrikular bat dute ikasleekin, sistema hori horretarako dago diseinatu. Etxean, aldiz, familiar, beste sistema bat dago, helduak daude, umeak, ilobak, aitona-amonak... baina ez dago irakaslerik. Etxeko lanak eskola sistemako zerbait dira, beste testuinguru batera eramaten ditugunak, beste sistema batera. Hor talka bat dago.

Nola lagundu, hortaz, haurrak eskolatik kanpo?

Lagundu egin behar da, baina ez irakasle paperean sartu. Fa-

miliei aipatu ohi diet haien funtzioa ez dela berriz ere Frantziako Iraultza, uraren zikloa, matematika... ikastea. Adibide bat jartze aldera, batzuetan, gurasoek badakite zerbait erakusten haien hurrei, baina umeak dira askotan esaten digutenak: "Ez, nire irakasleak ez du horrela erakusten". Hori, azken finean, beste sisteman ez sartzeko eskaera bat da. Haurraren jarraipena egin behar da, baina beste bide batzuk landu behar dira; motibazioaren aldetik, batez ere.

Nola uztartu, nahastu gabe, bi sistema ezberdin diren eskola eta etxea?

Zubiak eraiki behar dira eskolaren eta etxearen artean; betiere, jakinda bi sistema ezberdin direla. Prozesu horretan, eskolatik badira gai hauek bideratzeko momentuak. Irakasleek ere klase orduak baliatu ditzakete haurrekin lantzeko; etxeko lanak nola egiten ari diren, zer baldintzatan, norbaitek laguntzen dien... galdetzeko; betiere, kalifikatetik haratago. Familientzat, agendak edo irakasleek hitz egitea oso baliagarria da, arazoak daudela edo dena ondo doala.



Joan Frances Tisner, iaz, apirilean, Espaloian. GOIENA

Herrixa Dantzan, Joan Frances Tisnerren musikarekin domekan

Etzi hasi eta maiatzera bitartean lau dantzaldi egingo dituzte zuzeneko musikarekin Espaloian

J.O. ELGETA

Iaz apirilean egin bezala, Biarnoko Joan Frances Tisner Espaloian izango da domeka honetan, hilak 26. Gaskoniako dantzetan aditua den musikariak ordubeteko dantza tailerra egingo du, eta *Bal gascon* delako dantzaldi irekia jarraian. Tailerrean parte hartzeko, *herrixa-dantzan@gmail.com* helbidean eman behar da izena, eta 5 euro ordaindu.

Era berean, otsailaren 23ko saioan Aratusteetako dantzak izango dira nagusi eta maiatzaren 17rako Kantu eta Dantza

Eguna iragarri dute, zuzeneko musikarekin.

Eskaintza aberatsa

Martxoko azken domekan, Aniez Perez dantza aditua izango da Espaloian. Euskal Herriko eta Europako *trad* dantzaldietako dantzak ekarriko ditu Elgetara, zuzeneko musikarekin lagunduta. Apirilaren 26rako, Mixel Etxekopar txirularia eta kantaria gonbidatu dute Herrixa Dantzanera. Dantza tailerra eta dantzaldia egingo ditu, eta Zuberoko kadrileak eta braleak landuko ditu.



GOIENA

Danbor doinuak herrian asteen

Herri Eskolako danborradak emanaldi berezia eskaini zien San Sebastian kofradiako noblei astelehenean, hilak 20, San Sebastian egunez.

Errege katolikoen garaitik dator San Sebastian kofradia, eta, urteroko ohitura jarraituz urtarilaren 20an ekitaldia egin zuten sakristian. Haurrek beste danbor saio bat ere izan zuten arratsaldean, 15:30ean.



Urtarrilaren 18an plazan egindako soka dantza, urteurrenari hasiera emateko. MAIALEN REGUEIRO



Oñatiko Haurren Eguna, 1980ko hamarkadan. OÑATZ DANTZA TALDEA

Soka askatu barik jarraituko du dantzan Oñatz dantza taldeak

50. urteurrena du aurten Oñatz dantza taldeak eta zapatuan herriko plazan egindako soka dantzarekin hasi ditu ospakizun ekitaldiak. Transmisioa, auzolana eta nortasuna nabarmendu dituzte eta kontzeptu horiei eutsiz jarraituko diote orain arteko bideari

Oihana Elortza OÑATI

Gure sokaren gorulariak leloa-ekin ospatuko du Oñatz dantza taldeak 50. urteurrena, transmisioari eutsiz, auzolana eginez eta nortasunari eutsiz. Hiru ezaugarri horietan laburtzen dute dantza taldearen 50 urteko ibilbidea, eta ezaugarri berei eusteko asmoa dute hemendik aurrera ere. Bat datoz horretan, adibidez, ibilbidearen berri ondo dakien Jesus Irizar Txutxin eta etorkizunari begira dantzan diharduen Amaiur Mendi.

Dantza taldearen sorrera

Oñatz kultura elkartetik sortutakoa da Oñatz dantza taldea. Duela 50 urte izan zen hori, 1970eko Oñatiko Haurren Egunean. "Aurretik bazeuden dantzariak Oñatin, baina Udalekoak ziren. Orduko gizarteak dantza taldeak egotea eskatzen zuen,

baina egoera politikoak debekatu egiten zuen. Orduan, talderik ez egon arren, auzoetan dantzan erakusten zitzaaien umeei. Ni, esaterako, Zubillagan ibili nintzen, baina Araotzen, Santa Lutzian, Santxolopeztegin eta beste auzo askotan ere ikasi zuten; gehienetan, auzoko apaiak erakutsita", dio Txutxin-ek. Haurren egunetara joaten ziren taldeak herri ezberdinetako ikasleak taldeak ziren. "Bost urtez aritu ginen lanean Udaleko dantzariak Oñatzeko kide izateko. Hamaika ziren, dantzarako beharrezkoak diren bederati eta beste bi ordezkari, eta dirua jasotzen zuten, esaterako, Corpus dantzak egiteko. Umeek bazekitela dantzan esan genien guk udal ordezkari, neskak ere bazirela taldean, eta, azkenean, akordioa egin genuen: dirulaguntza bat jasoko genuen

Corpus dantzak, Oñatiko dantzak eta Udalak zituen beste zerbitzu batzuk mantentzeko baldintza-ekin. Diru kontuak egin ziren, aurrekontu batzuk, eta horrela osatu zen kopurua: %35 Udalak emandako laguntza izan zen,

beste horrenbeste herriko kooperatibetako langileek jarri zuten -125 pezeta bazkide bakoitzak- eta gainerakoa, taldeak. 1975ean egin genuen lehen aldiz dantza Oñatz dantza talde moduan, Corpusetan", du oraindik gogoan Txutxin-ek.

Momentu historikoak

2018an Corpus dantzetan emakumeak dantzan ikustea une historikoa izan den moduan, 50 urte horietan beste momentu garrantzitsu batzuk ere bizi izan dituzte Oñatz dantza taldean. Horietan lehena, lehen Haurren Eguna, 1970ekoa. "Euskal Herri osotik etorri ziren ume dantzariak, 1.000 baino gehiago, eta denak etxeetan hartzeko beste familia zeuden prest herrian. Ume haiei ogitartekoak emateko herriko okinek lan nola egin zuten ikustea ere hunkigarria

da", dio Lourdes Idoiagak, Txutxin-ekin batera taldearen sorreran egon zenak. Ikurrina legeztatu zutenean Oñatiko herriko plazan egin zuten lehen dantza du bereziki gogoan Beatriz Igartuak, eta 1995ean Oñatin egin zen Euskal Herriko Dantzari Eguna, esaterako, Jesus Irizarrek berak. Inauterien barruan Luzaideko dantzak egiten hasi zirenekoa du, berriaz, gogoan, Edurne Elortzak.

Urte hauetan guztietan, dantzarekin batera makina bat bi- zipen ere izan dute bost hamarkadatan Oñatzeko kide izan direnak: Palentziara eta Poloniara egindako irteerak, Gernikatik bueltan ospitalean bukatu zutenekoa egoera txarrean zegoen entsalada errusiarra janda, txapela kiribildu eta denbora-pasa besteari jotzen pasatzen zituzten momentuak, behar bezala janz-

Jasotakoa ondorengoei transmititzeko gertu

Eguaztenean, urteurreneko ospakizunen barruan, solasaldirako batu ziren Oñatzeko egungo eta lehengo kideak. Zer da Oñatz? izenpean, han batutakoek norbere bizitzan dantza taldeak izan duen pisuaz gogoeta egin zuten. Transmisioaren garrantzia nabarmendu zuten eta etorkizunera begira dituzten erronkez ere aritu ziren.



Oñatzeko oraingo eta lehengo kideak, gaztelekuan. TXOMIN MADINA



Euskal Herriko Dantzari Egunean, 1995ean. OÑATZ DANTZA TALDEA

teko elkartzen ziren uneak, dantzan irakastera Ameriketara joandako urtea...

Hori guztia nola bizi izan duten ikusita, transmisioa eta auzolana landuz jarraitzen dute belaunaldi berrikoek ere, nortasuna galdu barik. "Taldea moduan lan egiten da Oñatzen, eta horrela jarraitzen dugu. Dantzak ikasi behar direnean, gutako batzuk joaten dira ikastaroa jasotzera, eta gero, horiek dira beste guztien irakasleak, adibidez. Ume txikiei dantzan erakusten diegunean ere, pausoekin batera talde kontzeptua erakusten diegu. Uste dut ezaugarri horiek beharrezkoak direla eta eutsi egin behar zaiela", dio Amaiur Mendi dantzari gazteak.

Jantzien erronka

Izan ere, auzolana eta "isilean egiten den lana" da dantza tal-

dearen beste aldea. "Askoren artean egiten da lana, bata besteari lagunduz. Baina lan handia dago: bilerak egin, jantziekin arduratu, ekitaldiak prestatu, txorimaloak atera behar badira atera... eta jendea horretarako prest egotea handia da", dio Txutxin dantzari beteranoak, txistulariekin ahaztu gabe: "Beti izan ditugu ondoan, elkarrekin ibili gara hara eta hona".

Egun, 300 bat ume daude Oñatz dantza taldean, eta 60 bat nagusi. Harrobia badago, baina jantziekin eta materialarekin dutela erronka handia dio Txutxinek; arropak egiteko telak, esaterako, ezin bilatu ibiltzen direla, gastatzen ari direla eta gero eta zailagoa dela behar besteko kalitatea duten oihalak aurkitzea. Berdina gertatzen zaie, adibidez, arkuak egiteko materialarekin.

2020ko ekitaldian

50. urteurreneko ekitaldiak

- **Urtarrila.** Zer da Oñatz?
- **Otsaila.** Oñatiko Inauteriak
- **Martxoa.** Oñatzen harrobia
- **Apirila.** Jantziak
- **Maiatza.** Erraldoi eta txorimaloak
- **Ekaina.** Corpusak
- **Uztaila.** Oñatzen eguna
- **Abuztua.** Euskal Herriko taldeen emanaldia
- **Iraila.** Oñatiko Haurren Eguna
- **Urria.** 50 urte dantzan
- **Azaroa.** Musikariak
- **Abendua.** Oñatzen emanaldia



1995eko Corpus egunean, dantzariak eta musikariak. OÑATZ DANTZA TALDEA



Oñatzeko neska-mutiko dantzariak 1980an. OÑATZ DANTZA TALDEA



Luzaideko dantzak herriko Inauterietan. OÑATZ DANTZA TALDEA



ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOLKULARITZA
ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Turista talde bat San Migel parrokia bisitatzen. GOIENA

Udalak turismoko plan estrategikoa abiatu du

Turismoan egon diren aldaketetara egokitzeke eramango dute aurrera plana, Beinke enpresarekin elkarlanean. Maiatzera bitartean lehen fasea egingo dute, diagnostikoa; gaur egungo turismo egoera aztertuko dute. Horren ostean, ekintzak finkatuko dituzte

Maialen Santos OÑATI

Sektorearen diagnostikoa eginez ekingo diote plan estrategikoa-ri. Lehen fasean, gaur egungo turismo egoera aztertuko dute. Txosten bat egingo dute herriko baliabideekin, baita datozen bisitarien profilekin ere, eta emaitza horiek zehaztu egingo dituzte, bigarren faserako oinarriak jarri eta lanean hasteko.

Turismoko eragile guztiak hartuko dituzte kontuan eta sektorearen ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aztertuko dituzte, besteak beste.

Beinke enpresaren laguntza

Plan estrategikoa egiteko Beinke enpresa kontratatu du Udalak eta Lurdes Romano oñatiarra izango du buru. Oñati izan zen barnealdeko lehen herrietako turismoa bultzatzen eta Romano izan zen Oñatiko lehen Turismo teknikaria. Hala, Oñatiko Udalak bermetzat du halako esperientzia duen teknikaria oñatiarra eta Oñatiko turismoa ondo

ezagutzen duen profesionala izatea. Lourdes Romanorendako, berriz, "erronka berezia" izango da, baina "pozik" dago, eta sektorearen eragina duten adar guztiei heltzeko prest azaldu da. Turismoaren plan estrategikoa agintaldi osoan zehar landuko duten gaietako bat da Udal Gobernuarendako.

Maiatzera bitartean lehen fasea, diagnostikoa, egingo dute. Abendura arteko tartean, aldiz, ekintzak finkatuko dituzte; horretarako, sektoreko eragileekin bi topaketa egingo dituzte epe horretan zehar.

Datozen urteei dagokienez, ekintza zehatzendako diru partidak sartuko dituzte urtean urteko aurrekontuan.

**ERAGILE GUZTIAK
HARTUKO DITUZTE
AINTZAT; AHULEZIAK
ETA INDARGUNEAK
AZTERTUKO DITUZTE**

Fitur azokan dago Oñati

Eguaztenean hasi eta domekara bitartean Madril en egiten ari diren Fitur turismo azokan daude Oñatiko ordezkariak. Herriak turismo aldetik dituen aukerak eta eskaintzak erakusten ari dira bertako postu batean, eta, era berean, azokan parte hartzen duten beste turismo eragile eta agentziekin bilerak ari dira egiten, bata bestearen eskaintzak eta eskaerak konpartitzea helburu. Herrialde askotako ordezkariak daudenez gero, haien lan egiteko modua ezagutu gura dute oñatiarrek, ideiak hartu eta Oñatira egokitzeke gero.

"Edonor ari da ETaz ahoz gora hizketan, militanteak izan ezik"

ANDER LIZARRALDE DOKUMENTALAREN EGILEA
'Ahuntzak' taldeari buruz egin dute lana

M.S./O.E. OÑATI

60ko hamarkadako mugimendu klandestinoari buruzko dokumentala da *Oñatiko Ahuntzak*. Ander Lizarralde idatzi du gidoia, eta Xanti Ugarte arduratu da arlo teknikoaz.

Zer jasotzen du dokumentalak?

1966tik 1968ra bitartean Oñatin antolatu zen mugimendu klandestinoari buruzkoa da. Edonor ari da ETari buruz ahoz gora hitz egiten, militanteak izan ezik. Zer diote eurek? Ezin jakin. Tamalez, ez dago adierazpen askatasunik, eta luzerako izango dela ematen du.

Nolakoa zen *Ahuntzak* taldea? Zein helbururekin sortu zen?


Hasiera batean, ETako kide ziren. 1967an, erakundetik banandu eta talde autonomoa sortu zuten; *Komandos autonomos de ETA*. *Ahuntzak* deitzen zieten mendian entrenatzen ibiltzen zirelako, baina izatez izendapenak ez dauka garrantzi berezirik, anekdota bat besterik ez da.

Oñatin kokatzen zen taldea?

Oñatin militante eta laguntzaile artean 30-40 lagun ibili ziren. Horrez gain, Arrasate, Durango eta Zornotza inguruetan jardun zuten, batez ere.

Zein material erabili duzue dokumentalerako?

Cabra taldeetan ibilitako kideak elkarrizketatu ditugu. Hemerroteka apur bat ere erabili dugu eta Xabier Zumalde *Cabra*-ren liburu etako irudiak ere baliagarriak izan zaizkigu proiektua aurrera eramateko.



Ander Lizarralde. X.U.

Zein helbururekin egin duzue dokumentala?

Orain zenbaitzuek terroristatzat dituzten haiek nortzuk ziren, zer egiten zuten eta zergatik jakin nahi izan dugu; historia geuk idatzi dezagun, etsaiek egin baino lehen. Historia hurbilaren transmisio falta handia sumatzen dugu. Egia ofiziala ari da gailentzen. Bide batez, ohar bat; *Cabra* taldeetan militante eta laguntzaile izan zirenetako asko gero EAJra joan ziren.

Noiz eta non ikusi ahal izango da dokumentala?

Hiru emanaldi eskainiko ditugu: lehena domekan, 26an, gazte txean; eta 28an eta 29an, kultura etxean. Denak, 19:00etan. Horrez gain, DVD formatuan salgai egongo da Arrano tabernan eta Txokolateixan. Hilaren 29an Youtubera igoko dugu, *Oñatiko Ahuntzak* izenarekin.

'Mari Errauskin' bihar igoko da Santa Ana aretoko oholtzara

Mari Errauskin ipuin klasikoak antzerki bilakatuta ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, 17:00etan. Eskoletan eta ume artean gehiegikeriak gertatzen direnean mutu ez geratzea zein garrantzitsua den erakutsiko diete haurrei, kantuen eta jolasen bitartez. Sarrerak aurrez eskuratu daitezke, www.onatieus.com webgunean, 3,5 eurotan.

Hilaren 31ra arte egin daitezke Grant beka eskuratzeko eskaerak

Oñatiko Udala Grant izeneko bekaren deialdia egin dute Udalak eta Lege Soziologia Institutuak, laugarren urtez. Oñatiko herriari ekarpena egiten dioten gizariek zientzien eta zuzenbidearen alorreko ikerketa proiektuak sustatu gura dituzte. Beka eskuratzeko, urtarilaren 31 baino lehen egin behar da eskaera, Lege Soziologia Institutuan.

Presidente aldaketa egingo du Aloña Mendik

Asteon egindako ezohiko batzarrean, Aloña Mendi Kirol Elkartearendako presidente berria aukeratzeko prozesua jarri dute martxan. Idazkaria eta diruzaina ere aukeratu beharko dituzte; otsailaren 8a baino lehen aurkeztu ahal izango dira hautagaitzak

Maialen Santos OÑATI

Anton Inza, Angel Barrena eta Resu Murua dira Aloña Mendi Kirol Elkartearen zuzendaritza batzordeko kideak. Hirurendako ordezkariak behar ditu Oñatiko klubak, eta, eguaztenean egindako ezohiko batzarrean, aho batez onartu zuten hauteskunde prozesua martxan ipintzea. Horretarako, egutegi bat zehaztu dute. Horren arabera, eguaztetenetik aurrera egungo zuzendaritza batzordeak jardunean egingo du lan.

Otsailaren 1ean, botoa emateko eskubidea duten bazkideen zerrenda jendaurrean ipiniko dute. Otsailaren 8a izango da



Aloña Mendi Kirol Elkartearen zuzendaritza batzordeko kideak, eguaztenean.

hautagaitzak aurkezteko azken eguna, eta, horien kontrako errektorsorik ez balego, otsailaren 20an egingo litzakete bozketa.

Aloña Mendi kirol elkarteak hamalau sail ditu. Sail bakoitzak modu autonomoan funtzionatzen du. Euren zuzendaritzak dituzte, eta lan egiteko modu ezberdinak. Hori horrela, kirol elkartearen presidentearen lana beste funtzio batzuetara bideratzen da, Anton Inzak azaldu duenez: "Lan handiena tabernaren kudeaketak ematen du. Bestelakoan, presidentearen lana izaten da erakundeekin elkartzea, ekitaldi batzuetan ordezkari izatea, dirulaguntzak eskatzeko txostenak egitea... Era berean, elkartearen sail guztien aterkia da zuzendaritza". Bestalde, bazkideek aho batez onartu zuten kirol elkartearen zati bat sozietate mugatua izatea. Horren harira, elkartearen baitan dagoen negozio zatia –taberna eta kirolak, esaterako– Aloña Mendi SLk kudeatuko ditu aurrerantzean. Hala, kirol arloa liberatuta geldituko da, eta, ondorioz, elkartea onura publikoaren kirol entitate izendatu dute.

Berrikuntzekin dator Aloñako Igoerako izen-ematea

Proban parte hartu nahi duten oñatiarrek –herrian erroldatutakoak– gainontzekoek baino egun batzuk lehenago eman ahaliko dute izena; otsailaren 1ean edo 2an. Guztira, 100 dortsalegongo dira eskuragarri, eta, horiek agortzekotan, otsailaren 8ko goizeko 10ak arte itxaron beharko da, oñatiarrek ez direnekin batera dortsala lortzeko. Izen-ematea www.sailkapenak.com atarian egingo da, eta ohi baino bi euro garestiagoa izango da: 27 euro. Aloñako aterpetzeko teilatuaren zati bat erorita dago, eta horrek eragindako kalteak konpontzera bideratuko dira pertsona bakoitzeko bi euro horiek. Horren truke, mendi lasterketako parte-hartzaile bakoitzak HOKO arropa etxeak emandako oroigarri bat jasoko du.

Aloñako Igoera apirilaren 26an egingo da, eta gehienez ere 300 korrikalarik hartu ahal izango dute parte. Proba egin ahal izateko baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da.



Goiena Klubeko bazkidetza %30 merkeago

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Ondorioz, besteak beste, Goiena Klubeko bazkide baldin bazara edo egiten baldin bazara, **zerga onurak** ezarriko zaizkizu Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Goiena Klubeko bazkidetza kuota **%30 merkatuko zaizu errenta aitortzen** egiterakoan.

BAZKIDE EGITEKO, DEI EGIGUZU: 943 25 05 05
EPE-MUGA: 2020KO URTARRILAREN 31.



Hainbat komertziotan deskontuak. | Puntua aldizkaria astero etxean.
Deskontuak Goienako iragarki salikatu eta eskeletan. | Zozketak eta promozioak.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Linazisoro, Aristi eta Axpe dira finalistak DKSn

DKS'19 Debagoieneko Kirol Sarietako epaimahaiak eman du aditzera ze hiru kirolari aukeratu dituzten 2019ko kirolari onenaren sarirako. Iaz saria jaso zuen Maialen Axpe eta Mikel Linazisoro finalean dira ostera ere; Mikel Aristi da nobedadea

Imanol Beloki BERGARA

Gaínean dago Debagoieneko Kirol Sarien ekitaldia. Hiru egun baino ez dira geratzen martitzenean Bergarako Seminarioan (19:00) DKSen aurtengo 14 sariak banatzeko, eta ia dena dago gertu. Batetik, dagoeneko itxi dute Herriarren Sarirako botoa emateko epea -1.600 boto inguru jaso dituzte aurtengo-; hala, iaz Martin Perez eskoriatzarrak abantaila handiarekin irabazi zuen, baina aurtengo oso borroka estua egon da hainbat hautagairen artean.

Irabazi duen kirolaria -ekitaldira arte antolatzaileek ez dute izenik aurreratuko- boto kopu-

ru totalaren %24arekin gailendu da, eta atzetik, bigarrenak %20 jaso du.

Bestalde, iaz moduan, epaimahaiak kirol talde onenaren saria, ibilbidearen saria eta sari berezia ere aurreratu ditu -ikus ondoko taula-, eta, amaitzeko, hiru izen proposatu ditu 2019ko kirolari onenaren sarirako: iazko irabazle Maialen Axpe atleta,

KIROLARI ONENAREN SARIA BATEK ERAMANGO DU, BAINA HIRUREN LANA AITORTU GURA DUTE

Mikel Linazisoro eskalatzailea eta Mikel Aristi txirrindularia dira aukeratuak, eta martitzenean ekitaldian jakingo da nor den irabazlea: "Ez da erabaki erraza, besteak beste kirol jarduera ezberdinak direlako. Hala, izendapen honekin epaimahaiak hiru kirolariak omendu gura ditu, eta euren lana aitortu. Hirurak dira irabazleak, baina bai, bat aukeratu behar da eta martitzenean izango dugu horren berri".

Hala, GOIENA hiru hautagai horien gertukoekin izan da berbetan, besteak beste, hiru kirolariak 2020an izango dituzten erronken gaínean.

Gainontzeko saridunak:



Eskoriatzarrak, iazko apirilean, Zirauntzari etxean irabazi ostean. GOIENA

Talde onenaren saria Eskoriatza KEko areto futboleko gizonezkoen talde nagusiak jasoko du datorren martitzenean kirol talde onenaren saria. Urteak egin dituzte Euskadiko Txapelketan lehian, maila nazionalera igotzeko amesten, eta iaz lortu zuten helburua.



Markel Irizar, Donostia Klasikoan, agur-lasterketan. ARITZ GORDO

Kirol ibilbidearen saria Trek-Segafredo taldeko ziklista ohiak 16 urte egin ditu profesionalismoan. Oñatikoari nazioarteko lider handienendako lan egitea egokitu zaio. Hala ere, Andaluziako Itzulia eta Poitou-Charentesko Tourrean erlojupekoa irabazi zituen.



Joseba Azkarate, aurtengo Antxintxika krosean helmugan. GOIENA

Sari berezia Antxintxika taldeak 15 urte egin ditu Soraluze eta Bergara batzen dituen krosa antolatzen, eta urte hauetan guztietan ahalegina egin dute lasterketa gupil aulkian dabilzanek ere egin dezaten. Aurtengo kirol egokituko saila sortu dute klubean.

Gertukoek horrela ikusten dituzte hiru finalistak



ASIER LINAZISORO MIKEL LINAZISOROREN AITA

"Mikelek egiten duen hori seriotasunez hartzen du"


"Oso urte polita egin du Mikelek, nazioarteko txapelketetan nabarmendu egin da. Pena, Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko txapelketa aurretik lesionatu egin zela eta ezin izan zuela onena eman. Martxoan izango du azken aukera Tokion egoteko, baina ikasketek eman die lehenetsuna hila bete hauetan eta denboraldia prestatzeko oinarritzeko lana ez du egiterik izan. Mikelek, orokorrean, erraztasuna du kirola egiteko, baina egiten duen hori seriotasunez hartzen du, hori da bere indargunea".



FERNANDO ZUFIRIA MAIALEN AXPEREN ENTRENATZAILE OHIA

"Naroa Agirreren errekorra sei zentimetrora du"

"Maialenen aurtengo denboraldia begira, hasteko, iaz orkatilan izandako lesiotik errekupeatu egin behar da. Iaz, denboraldiaren lehenengo zatia oso ona egin zuen, 4,50eko marka egin zuen, baina gero, Italian min hartu zuen salto batean. Orain momentuan, Kuban dago entrenatzen, eta han ere ikasiko du zerbait, seguru. Maialenek erabateko dedikazioa eskaintzen dio atletismoari, eta gustatu egiten zaio egiten duena. Etxekoan babesa ere badu, eta hori oso garrantzitsua da".



JULEN IRIZAR MIKEL ARISTIREN TALDEKIDE ETA LAGUNA

"Mikelek bere buruari erakutsi dio maila baduela"

"Mikeli gustatu egiten zaio egiten duena, txirrindularitza maite du, eta hori oso garrantzitsua da, lanbide soil moduan hartuz gero gogorra egiten da-eta bizimodu hau. Iaz, oso ondo hasi zuen urtea, eta ondoren, beherakadaxo bat izan zuen. Baina helburu bat zehaztu zuen, udan egon gura zuen ondo, eta abuztuan bi lasterketa irabazi zituen. Garaipen horiekin nik uste dut bere buruari berretsi ziola lasterketetan aurrean ibiltzeko kapaz dela, eta horrek lasaitasuna ematen du".



Gorka Eraña arrasatearra baloiarekin, Bergarako jokalariai segika dituela, 2016ko joanekoan. GOIENA

Mondraren lepotik gura du Bergarak gora egin

FUTBOLA Bi talde horiek derbia jokatu dute zapatuan Agorrosinen (16:00). Joanekoan, Mojategin, 1-1 egin zuten, baina orain arteko bidean arrasatearrek zazpi puntu gehiago batu dituzte. UDAk seigarren dagoen Amaikak Bat hartuko du Ibarran

Xabier Urzelai ARRASATE Bihar, zapatua, sailkapenean azken-aurreko postuan dagoen Bergarak (16) taularen erdialdean egonkortu den Mondra (23) hartuko du Agorrosinen (16:00). Puntu beharrean daude Barkeoren mutilak, lau garaipen bakarrik batu dituztelako, baina horietako hiru etxean izan dira, eta hortik hasi behar du talde

mahoneroak indartzen. Azken bi partiduak galdu egin dituzte –kanpoan jokatu dituzte biak– eta etxean bide hori errekupe-ratzen hasteko ordua da. Mondrak, berriz, entrenatzai-lea aldatu zuenetik joera posi-tiboagoa izan du, edo hori era-kusten dute zenbakiek. Baina joan den astean Ordiziaren kontra etxean lortutako 1-lekoa

baleko bilakatzeko garaipena behar du bihar. **Amaikak Bat, Ibarran** Aretxabaletak, berriz, domekan hartuko du Amaikak Bat (16:30). Debakoek azken bi partiduak etxean jokatu dituzte, eta biak irabazi dituzte. Ondo hasi zuten liga, baina ondoren, beherakada izan zuten; seigarren daude.

Aloña Mendik bigarren jarraitzen du

Erregional Preferentean borroka estua dute Beasainek (38), Aloña Mendik (37) eta Lagun Onakek (37). Hain zuzen, oñatiarrek Beasainen kontrako porrotetik erreakzionatu eta azken lau partiduak irabazi egin dituzte. Domekan, atzean dabilen Idiazabal izango dute aurrean. Horrez hain, Mondrak eta Antzuolak derbia jokatu dute domekan Mojategin (16:30).



Beasainen kontra 4-5 galdu eta gero –irudian– Aloñak ez du galdu. GOIENA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	ARETO FUTBOLA	EUS. BIGARREN MAILA
OHOREZKO ERREGION.	GIPUZKOAKO SENIORRA	Mekalki Aloña-Easo Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Bergara-Mondra Zapatua. 16:00. Agorros.	Eskoriatza-Batzarre Zapatua. 18:00. M.Muño.	Erroibide-Alkideba Domeka. 12:00. Irun.
Aretxabaleta-Amaikak Domeka. 16:30. Ibarra.	EUSKADIKO TXAPELKE.	GIPUZKOAKO TXAPELK.
ERREGIONAL PREFERE.	Arcada-Aretx. UDA Zapatua. 18:00. Laudio.	DKS-Bergara Soraluce Zapatua. 18:00. Donos.
Billabona-Aretxabaleta Zapatua. 16:45. Arratzain	Hegalariai-Mondrate Domeka. 12:15. Sondika.	GIP. SENIOR EMAKUME.
Mondra-Antzuola Domeka. 16:30. Mojategi.	SENIOR EMAKUMEZKOA	Grupo Eme-Eskoriatza Zapatua. 20:00. Errente.
Aloña Mendi-Idiazabal Domeka. 16:30. Azkoaga.	Atsedena.	ERRUGBIA
OHOREZKO GAZTEAK	GIPUZKOAKO SENIORRA	EUSKADIKO TXAPELKET
Aretxabaleta-Amaikak Zapatua. 16:00. Ibarra.	Eguzki-Mondrate Domeka. 11:15. Lasarte.	ART-Iruñea Zapatua. 16:00. Mojategi.
Mondra-Burumendi Zapatua. 16:30. Mojategi.	ESKUBALOIA	PILOTA
Aloña Mendi-Anaitas. Zapatua. 17:45. Azkoa.	EUSKADIKO TXAPELK.	GIPUZKOAKO TXAPELK.
EMAKU. OHOREZKO E.	Corazonistas-Ford Mu. Zapatua. 18:30. Gasteiz.	Egubakoitzean 19:00etan hasita lau partidu jokatu dute Oñatin.
Goierrri-Bergara Zapatua. 17:45. Ordizia.	Gure Auzune-Fagor In. Domeka. 12:15. Divino.	Aretxabaletan 19:00etan hasita beste lau partidu jokatu dituzte. Bergaran, 10:00etan partidu bakarra egongo da, eta Arrasaten beste bat 20:15ean.
Bergara-Lagun Onak Domeka. 11:30. Ipintza.	EMAKUMEZ. EUSKADI.	Zapatuan, 16:00etan hasita Oñatin lau partidu jokatu dituzte, eta Aretxabaletan 17:30ean partidu bat.
EMAKU. GORENGO MAI.	Ereintza-Cons. Aloña Zapatua. 17:30. Errente.	
Goierrri-Bergara Zapatua. 17:45. Altamira.	GIPUZKOAKO TXAPELK.	
Touring-Leintz Arizme. Domeka. 17:00. Fanderi.	Elgoibar-Soraluce Ber. Zapatua. 19:30. Elgoibar.	
	SASKIBALOIA	
	EBA	
	MU-Valle de Egues Zapatua. 18:30. Arrasate.	

SASKIBALOIA Zapatuan hartuko du MUK Valle de Egues Iturripen

Oraingo denboraldian Mondragon Unibertsitateak domeka arratsaldeetan jokatu izan ditu etxeko partiduak, baina aldake-ta izango da oraingo asteburuan, zuri-moreek zapatuan (18:30) jokatu dute-eta hamahirugarren dagoen Valle de Eguesen kontra. Ardoiren kantxako porrota lehenbailehen ahazteko partidu egokia da.

ARETO FUTBOLA Bihar, Eskoriatzak Batzarre izango du aurrean

Maila nazionalean sailkapenaren erdialdeko postuetara salto egiteko kontrario zuzena da Batzarre, eskoriatzarrek baino hiru puntu gehiago dituen taldea. 18:00etan jokatu dute bihar, zapatua, Manuel Muñozen. Eskoriatzarrek azaroaren 10etik ez dute norgehiagokarik irabazi, eta egoera hori aldatzea da helburua.

TXIRRINDULARITZA Ibarreko ordezkariak Euskadi Fundazioan

Euskadi Fundazioak denboraldi berriko kideak aurkeztu zituen martitzenean, San Mamesen, Bilbon. Bertan izan ziren, besteak beste, elite mailako ordezkari Mikel Aristi eta Julen Irizar txirrindulari bergararrak eta baita 23 urtez azpiko taldeetako ordezkari Xabi Murgiondo oñatiarra eta Ainhize Barrainkua aretxabaletarra.

ERRUGBIA Iruñearen bisitarekin hasiko dute fase berria

Asteburuan hasiko dute Euskal Ligako bigarren mailako igoera fasea eta lehen jardunaldian ARTko seniorrek aurkari eza-guna hartuko dute Mojategin, Iruñea. Norghegiagoka 16:00etan hasiko dute, zapatuan. Zuri-moreen helburua orain arteko bolada onari eustea da, lehenengo faseko kanporaketa partidu guztiak irabazi egin dituzte eta.



Bizipoza egitasmoak egin duen Dokuweb-ean jasota dauden dokumentaleko protagonista batzuk. BIZIPOZA

Guztion artean mundu hobe baten alde lanean

Bizipoza egitasmoak Euskal Herrian jarduten duten askotariko elkarteak batzen ditu, horien balioak gizartean hedatzeko helburuarekin; Bergarako Seminarixoan azalduko dituzte gaur, 19:00etan, egitasmoaren ezaugarriak eta egin dituzten ekimen berriak

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Irabazi asmorik gabeko egitasmoa da Bizipoza, eta izaera bereziko gaiak lantzen dituzten haurren eta familien ongizatea helburu duten elkarteei laguntza eskaintzea du helburu; eta, aldi berean, elkarte horiek transmititzen dituzten balioak jaso eta gizarteratuz herri inklusiboagoa eraikitzen saiatzea.

Eskualdez eskualde ari dira elkarte eta esku artean dituzten ekimenak ezagutarazteko aurkezpenak egiten; gaur, egubakoitza, Bergarako Seminarixoan izango dira, 19:00etan; ekitaldia guztiontzako zabalik dago.

35 elkarte batuta egitasmoan
"Irrien Lagunak klubetik abiatu zen Bizipoza", dio egitasmoa

kide Anabel Arraizak, eta zera gaineratu du: "Elkarte horrek bost arlo lantzen zituen, horien artean elkartasuna, eta arlo horretatik sortu zen Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarte, baina 2016an izaera autonomoa hartu zuen eta hastapenetatik zeuden Elkar, Berria eta Katxiporreta eragile sozialei bestelakoak batu zitzaizkien; hori horrela, gaur

egun, 35 elkarte, askotariko babesleak eta boluntario sarea dira Bizipoza egitasmoa parte. Debagoienera etorrira, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatea dago, egun, babesleen artean. Elkarteei dagokienez, guztiak aritzen dira Euskal Herrian, baina izaera ezberdinekoak dira. Batetik, eskualde zehatz baten eragiten dutenak daude; Bergarako Ndank Ndank elkarte, esaterako. Eta baita lurralde zabalagoak ere. Horien artean, askotarikoak daude: gaixotasun edo sindrome ezberdinetako elkarteak eta familia eredu ezberdinak dituztenak –besteak beste, ADEMG, esklerosi anizkoitza dutenen Gipuzkoako elkarte; eta Aspanogi, minbizia duten haurren familien elkarte–; Chernobilen Lagunak; Alaiak, Gipuzkoako adopzio familien elkarte... horietan ere Debagoieneko kide eta bazkideak daude".

Euskal gizartea hezteko

Elkartasuna, euskara eta auzolana dira, besteak beste, Bizipoza egitasmoak gizarteratzen dituen balioak. "Horiekin guztiekin hezi nahi dugulako euskal gizartea, gizarte inklusiboagoa izan dadin".

Hala, asmo horrekin askotariko ekimenak egiten dituzte urtean zehar: elkarteekin jardunaldiak; elkarte bakoitzari buruzko ipuin bat egiten dute, hilero *Irrien lagunak* aldizkarian argitaratzen dutena; eta baita ikus-entzunekoak eta askotariko kanpainak ere.

'Dokuweb'-a, ekimen berria

Bizipoza dokumentala eta *dokuweb* bat dira sortu berri dituzten eta orain eskualdez eskualde aurkezten ari diren ekimen berriak: "*Dokuweb*-a

prozesu luzea izan da. Orain dela bi urte hasi ginen lanean, eta bidean topatu dugun Danobat Group-en laguntzarekin egin dugu; gure *Olentzero* izan da, eta eurei esker gauzatu ahal izan ditugu egitasmoan dauden 33 elkarteren mikro-dokumentalak, non horien izaera eta jarduna azaltzen diren, eta horiekin guztiekin osatu dugu Dokuweb-a; horrez gain, *Bizipoza* dokumentala ere egin dugu, non egitasmoaren ezaugarriak laburbildu ditugun. *Bizipoza.eus* gure atarian daude biak ala biak jasota".

Seminarixoan, gaur

Atariaz gain, eskualdeka egiten ari diren aurkezpenetan ari dira ekimen horiek erakusten, eta hala egingo dute gaur, Bergaran. "Debagoienean aritzen diren hiru elkarteren mikro-dokumentalak ikusiko ditugu: Ndank Ndank, Chernobilen Lagunak eta Aspanif elkarteak, eta baita *Bizipoza* izeneko ere. Eragile ezberdinekin harremanetan jarri gara, eta ekitaldira gonbidatu eta euren elkartasun keinutxo eskaintzeko proposatu; horrez gain, Moises Azpiazu dantza taldea, Maite Aristegi bertsolaria eta Ertzak musika taldea ere izango dira ekitaldian; hala ere, azpimarratu nahi nuke guztientzako ditugula ateak zabalik, eta ongietorriak izango direla babesle, bazkide edo boluntario jardun gura dutenak".

ELKARTASUNA, EUSKARA ETA AUZO-LANA DITUZTE, BESTEAK BESTE, BALIO NAGUSI

KONTZERTUA: INOREN ERO NI

GOIENA TELEBISTA

URTARRILAREN 24AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

KOOLTUR EKINTZAKO KIDEEKIN ELKARLANEAN EKOIZTUTAKO SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Goya sariak eskualdera hurbiltzeko esperoan

Hamabost izendapen ditu Aitor Arregi oñatiarraren Moriarti lantaldeak 'La trinchera infinita'-rekin, eta "ilusioz eta aurrekoan baino lasaiago" daude biharko: Malagako Martin Carpena jauregian egingo dute, 22:00etan hasita, sari banaketa ekitaldia

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Hitzaldi, elkarrizketa eta sari banaketa artean egin du astea Aitor Arregiren lan-taldeak; Madrilén, Donostian eta Jaenen izan dira, eta gaur, Malagarako bidea hartuko dute.

Bigarren izango dira Goya sarietan, eta aurretikotik ikasita doazela dio Oñatikoak: "Pozik

gaude, gauza eder moduan bizi dugu; sari-banaketaren funtzio-namendua eta bestelako batzuk ezagutzeak asko lasaitzen du".

Handien artean, harro

"Ilusio handiarekin" daude biharko, eta, hamabost izendapen edukita, gala "dibertigarria eta bizia" izango dela dio. Aitortu

du Pedro Almodovar ikusten dutela indartsuen: "Bera da faboritoena, baina hor dago Aménabarren *Mientras dure la guerra* ere, berak ditu izendapen gehien. Badakigu zein den gure lekua Goya hauetan, eta, sentituz diot, film handi horien artean egotea dela guretako oparia, eta baita filmak eman digun guztia ere".

Sari handiena, egindako bidea



IMANOL GALLEGO
ZINE KAZETARIA

Azken urteetan moduan, lagunekin afaldu eta hiru modutara jarraituko dut gala: mahaikideekin komentatzen, sare sozialez beste batzuekin, eta, noski, telebista piztuta. Gertuko filmak daudenean adiago jarraitzen dut, eta prest dut dena zapatuan txikatzeko.

Moriartikoentzako nahi nituzke sari nagusiak, baina Pedro Almodovar oso indartsu ikusten dut nik ere. Akademikoak arlo askotako zinemagileak dira eta botoa ematerakoan laguntasunak daude.

Ekoizleen Forque sarietan *La trinchera infinita*-k jaso zuen film onenarena, baina Kazetarien Feroz sarietan, *Dolor y gloria*-k; hala ere, sariak sari, ez dut uste emaitza txarra denik sari nagusi barik etxeratzea, egindako bidea da garrantzitsua.

Hiru film nagusi daude eta horregatik zaila izango da besteek askorik lortzea; halakoetan, izen berak asko errepikatzen dira.

Almodovar, aurkari gogorra



AITOR ABAROA
ZINE ADITUA

Aspergarria iruditzen zait gala; Oscar sariena, berriz, ikusten dut. Twitter bidez jarraituko dut komentatu dena eta diskurtsoak gero.

Izugarria da beste behin Moriartikoek lortu dutena, baina Pedro Almodovarren *Dolor y gloria* aurkari gogorregia iruditzen zait; batez ere, kanpoko faktoreengatik: nazioartean arrakasta handia; Antonio Banderas Oscar sarietan izendatuta; eta 2006tik Almodovarrek ez du saririk jaso. Beste sariak aipatuz, sorpresa eman dezake Vicente Vergarak *La trinchera infinita*-aktore berri onenaren saria 50 urterekin irabaziz; hori bai, sari teknikoetan eskukada polita lor dezake Moriartik.

Galder Gaztelurrutiak *El hoyo*- eta Aritz Morenok *Ventajas de viajar en tren*- merezimendu handia dute zuzendari berri onenarena jasotzeko, baina Belen Funesek irabaziko du *La hija de un ladrón*.

Ustekabeak egongo dira



AITOR BIAIS
KULTURA KAZETARIA

Goya sariak ikusteko ohitura dut urtero, baita Oscar edota beste sariketa batzuk ere. Telebista bidez ikusten ditut, normalean, baina sare sozialen bitartez ere egiten diet jarraipena.

Aurten, oso lehia estua egongo da; zantzu ugari erakusten dute Pedro Almodovarren gaua izango dela, baina ausartuko nintzateke esatera uste baino sorpresa gehiago egongo direla. Eta, ildo horretan, *La trinchera infinita*-k aukerak izango ditu; bada, *Handia*-rekin gertatu zenaren kontrakoa gerta liteke: kopuruz gutxiago lortzea, baina sari garrantzitsuagoak; horrez gain, aukera gehiago ere baditu, nire ustez; batez ere, soinuari eta argazkiari dagokionez.

El hoyo filmak indartsu ekin zion zine areto zein jaialdietan, baina esango nuke *Ventajas de viajar en tren* aurreratu egin zaiola eta saria lortzeko aukera gehiago dituela.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urtarileko sariak!

Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremundenda.org

Erakundearen webgunea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendapen LEPD 15/1999 legearen arabera, jakingarria da gure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuta daudela. Datu biltzekiaren helburua da datuak erabiltzeko gaitasuna gertatzea. Erabiltzailearen datuak erabiltzeko, hain zuzen ere, erabiltzaileak hainbat informazio ematea behar du.

Irabazi bi lagunendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begintu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Ibai-Arte elkarteari esker

'Strad' ikuskizunerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Urtarrilak 31 | 20:30ean

Bergarako udalari esker

'Gorrio' dantzaldirako sarrerak ditugu

Bergara | Seminarioa | Otsailak 1 | 19:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Strad/Gorrio" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendapen LEPD 15/1999 legearen arabera, jakingarria da gure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuta daudela. Datu biltzekiaren helburua da datuak erabiltzeko gaitasuna gertatzea. Erabiltzailearen datuak erabiltzeko, hain zuzen ere, erabiltzaileak hainbat informazio ematea behar du.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€

